

Goienkaria

2007ko urtarrilaren 12a > Egubakoitza > VII. urtea > 271. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Gaizki aterako zaizkio gauzak Zapatero presidenteari, amore ematen duelako"

Itziar Lamarain
PP alderdiko
zinegotzia > 09



G2a

Bergarako
bandak 175 urte
egin ditu > 43-44

GIZARTEA

Debagoieneko populazioak behera
egin du azken hamar urteotan > 05

KORRIKA 15

Asteon egingo dituzte batzarrak,
ekitaldiak antolatzeko > 07

BIDEGORRIA

Tarte berria atera du enkantera
Aldundiak, Aretxabaletan > 31

GIZARTEA > BIDE HEZKUNTZA

Haurdunak babesteko gerrikoak

Arrasateko Udalak segurtasun uhal berezia alokatzen die emakumeei haurdunaldiak iraun bitartean > 18

AZPIEGITURAK > DEBAGOIENeko KIROL ETXEAK

Ekainerako bukatuta egongo dira kirol etxeetako lanak

EKIPATZEN Arrasateko Mojategi kiroldegian lan mardulenak egin dituzte eta hornitzen hasiko dira laster

BERDEGUNEA Bergarako Agorrosinen maiatzerako bukatuko dute bainuetxea; berdegunea, udarako

PROIEKTUAK Aretxabaletan ere kirol etxe berria egiteko proiektua dute eta Antzuolan bi gimnasio > 02-03

ETXEBIZITZA > ZOZKETA

Bi lokal etxebizitza bihurtzeko

Bergarako Udalak zozkatuko ditu eta babestutako etheen prezioa dute > 25

ABELTZANTZA > ELGETA

Txakurrek eraso egin diete ardiei

Elgetako baserritarrak kezkatuta daude azken boladan areagotu egin direlako ardienganako erasoak. Azken eraso Betizu baserriko artaldeari egin diote. Oraingo honetan ez dute ardirik hil, baina kolpe handiak hartu dituzte. > 37



ORDEZKARITZA ZABALA Alderdi politikoetako ordezkariak zabala izan zen atzo Arrasateko plazan kale eraso gaitzesten, ordu laurdenez.

XABIER URTZELAI

Herritar asko eta politiko ezagunak elkartu dira kale erasoak gaitzesteko

Zapatu goizaldean La Caixaren kontra egin dako eraso gaitzesteko agerraldi isila egin zuten Arrasaten. Mila bat lagun elkartu ziren, besteak beste: Inazio Lakuntza alkatea, Diputatu Nagusi Gonzalez de Txabarri, Batzar Orokoretako presidente Ereño (EA),

PSE-EEko Gipuzkoako Idazkari Orokor Hueras eta Buen senadorea, EBko Gipuzkoako koordinatzaile Karrera, PPko Gipuzkoako idazkari orokor Sancho eta Otaola batzarkidea, eta Aralarko Ubera batzarkidea eta Gipuzkoako koordinatzaile Erostarbe. > 15

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Saillatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950-2007 ARRASATE

ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ETXE MODEL
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

CUCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

MUEBLAS
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Etxetresna elektrikoekin ez zarela moldatzen? Har ezazu momentu! Arkauz etxean guztiz maiteminduko zara.

Arkauz zure etxea da. expert banatzaile ofiziala

arteman
KOMUNIKAZIOA

baietz asmatu ;-)
www.arteman.org

LANAK > DEBAGOIENEN KIROL ETXEAK

Hauteskundeetarako amaituko dituzte ibarreko kirol etxe gehienetako obrak

EKIPATZEN Arrasateko Mojategi kiroldegia hornitzen hasiko dira laster, futbol eta errugbi zelaiarekin batera atletismo pistak jartzen

BAINUETXEA Bergarako Agorrosin gunean maiatzerako gura dute bainuetxea amaitu; berdeguneak ere udarako egon behar du gertu

KANTXA BERRIA Hori da Oñatiko Zubikoan kirol etxe berritasun handiena. Kantxa horrek 124 autorendako aparkalekua izango du lurpean

XABIER URTZELAI > BERGARA

Ibarrean, Bergarako, Arrasateko eta Oñatiko kirol etxeetan dabilta obra nagusienak egiten. Herri horiekin batera kontuan hartu behar dira Antzuola eta Aretxabaleta. Antzuolarrek 2008an izango dute bi gunez osatutako gimnasioa, eta Aretxabaletan komenigarria izango litzateke hauteskundeetarako mahai gainean izatea kiroldegi berriko behin betiko proiektua. Hala, egun, Musakolako kiroldegian dabilta lan handienak egiten, Mojategiko kirolgunea izango dena, alegia.

HORNITZE LANETAN LASTER

Musakolako kiroldegiko eraikinean aldaketa nabarmenik izango ez bada ere, Arrasateko puntako kirolgunea izango du Mojategin: belar artifizialeko futbol eta errugbi zelaiak, atletismo pistak, tenis, paddle eta skatean ibiltzeko guneak... Horrekin batera, beste hainbat kirol jarduerak egi-

teko aukera ere eskainiko dute Mojategin. Eta, Udaleko Obra Saileko teknikari Izaro Agirre-ren esanetan, apirilera izango da hori guztia gertu: "Lanak bide onetik doaz, eta ez dugu arrazoirik pentsatzeko atzerapenak egongo direnik. Egia da orain arte egin duen eguraldi onak asko lagundu duela langileen jardunerako, baina aurreantzean txarra eginda ere ez litzateke aparteko arazorik egongo". Arduradunen esanetan, laster bukatuko dute lehenengo fasea, gutxi geratzen da eta harrailak, aldagelak eta bestelakoak amaitzeko. Gero etorriko da instalazio guztiak hornitzeko ardura -atletismo pistak, zelai artifizialak, tenis eta paddle kantxak-, eta urtaril amaieran esleituko dituzte lan horiek, obrak otsailean hasteko.

Hain zuzen ere, kiroldegiko arduradunak buru-belarri dabilta lanak gainbegiratzen eta momentuko zuzenketa txikiak

Antzuolan bi guneko gimnasioa izango dute 2008. urterako: makinak izango dira gela batean eta aerobika eta bestelakoak egiteko gertatuko dute bestea

Aretxabaletan, hauteskundeetarako mahai gainean gura dute kirol etxe berriaren behin betiko proiektua

egiten. Hala, hasieran aurreikusi ez bazuten ere, kirolguneak bidegorri moduko ibilbidea izango du, korrika egiteko edo oinez ibiltzeko aproposa; bestalde, federatuei baino gehiago gainontzeko herritarrei begiratuta, fitnessa egiteko gunea izateko ere hainbat moldaketa egin gura dituzte.

ZUBIKOA ERE APIRILERAKO

Oñatin, berriz, Zubikoan egiten dabilta kantxa berria da albiste. Orain arteko kantxa hitzorduz beteta egoten da; horrenbestez, egiten dabilta bigarren kantxa horrek hobeto banatuko ditu hainbat kirol taldeen entrenamendu eta partiduak. Kantxa, baina, ez da berritasun bakarra izango, eraikin berriaren gimnasioa, aldagelak eta taberna jarriko dituzte-eta. Hala, taberna zaharreko gunea beste kirol jarduerak batzuk egiteko egokituko dute: karatea, eta abar.

Era berean, Zubikoako eraikin berriak beste berezitasun



KARPAN Pilotaleku parean jarriko dituzte paddleko



BANAKETA Harrailak errugi eta futbol zelaiak banatu

bat dauka; izan ere, lur azpian 124 automobilendako tokia izango duen parkinga egiten dabilta. Kopuru horretatik 14 aparkaleku itxiak izango dira, pribatu-

LANAK ARGAZKITAN



Kantxa berria Oñatin

Irudian azaltzen dena Zubikoako kantxa berriaren barrualdea da. Eraikin berean egongo dira aldagelak, gimnasioak eta taberna berria. Baita lur azpiko aparkalekuak ere.



Bainuetxea eta pasabidea Bergaran

Orain arte egon den karpa Labegaraietako tenis kantxa estaltzeko erabiliko dute. Horrekin batera, pasabidea jarriko dute igerilekuaren eta berdegunearen artean.



Proiektua Aretxabaletan

Irudian duzue Donostiako Arkitektura Eskolako irakasleek egindako proiektua. Maiatzerako amaituta izan beharko dute behin betiko proiektua.



eta teniseko kantxak.

x.u.



HARMAILAK Bederatzi maila izango ditu futbol zelaiko harmailak.

x.u.



ko ditu; taberna ere egongo da hor.

x.u.



KONTROL DORREA Atletismo txapelketetan epaileek egingo dute bertan lan.

x.u.

tuak, eta gainontzekoak publikoak. Edozelan ere, Udalak oraindik ez du erabaki zelan kudeatuko duen aparkaleku hori.

BERGARAN, BAINUETXEA

Agorrosingo gunean, igerilekuan eta gainontzeko gimnasio eta fitness geletan jo eta ke dabilta erabiltzaileak. Bainuetxeko lanak, baina, erdibidean daude. Obra horiek ere maiatzerako edo, berandu jota, ekainerako gura dituzte amaitu; zementazioko lanak amaitzeko paretak leuntzen dabilta orain, eta aurki hasiko dituzte gainontzeko ekipamendu lanak.

Eta lanak ez dituzte hor amaituko, udarako gertu egon behar du eta eguzkia hartzeko berdeguneak. Hori da herritarrek egingadako eskakizunetako bat, eta udan gehien eskertuko dena. Horretarako, barruko igerilekuek pasabidea jarriko dute kanpoko berdegunera, eta obrak egin bitartean behin-behineko igerilekua estaltzeko erabili duten karpa Labegaraietara eramango

dute otsailean, hango tenis pista estaltzeko.

Eta, horrez guztiaz gainera, Udalaren hurrengo erronketa bat Agorrosin zelan handitu izango da: futbol zelaiak, aldagelak, eta abar.

ARETXABALETAN, PROIEKTUA

Aretxabaletan dagoeneko erabaki dute zelako kirol etxea gura duten, Donostiako Arkitektura Eskolako irakasle Asier Akuriolak eta Fernando Bajok aurkeztutako ideia izan zen eta lehiaketako irabazle. Edozelan ere, ideiak gauzatu egin behar dira, eta dirua behar da horretarako; kasu horretan, bederatzi milioi euro.

Horren harira, aretxabaletarrak nahiko motibo dute kirol etxe berria eskatzeko. Gaur egungo eraikina zaharkituta dago, eta, berez, pilotalekua oinarri hartuta egin zuten gainontzeko eraikina; horrek oinarritzko hainbat arazo dakartza, eta egia da, bestalde, herria poliki-poliki handitzen dabilela. Proiektuaren ideia onartuta, Aretxabaletako Uda-

lak hainbat aldaketa tekniko proposatu zituen kontuan hartzeko, eta apirilera espero dute arkitektoek behin betiko proiektua aurkeztea. Hauteskunde ostean ikusi beharko da Udalak ze asmo erakusten duen proiektu horrekin. Gauzak ondo joanda, 2008ko aurrekontuetan kontuan hartu beharko lukete kirol etxe berria.

ANTZUOLAN GIMNASIOA

Antzuolan, Marianisten etxea zegoen tokian etxebizitzak egiten dabilta, eta etxebizitza berri horien oinetxeak Udalarenak dira. Hori aprobetxatuta, Udalak gimnasioa egingo du han: "Gimnasioak bi gune izango ditu: batean ariketak egiteko makinak egongo dira, eta beste gunea aerobika eta bestelako kirol jarduerak egiteko prestatuko dute", esan digu Udaleko kirol teknikari Juan Luis Aranburuk. Hala ere, oraindik ez dago zehaztuta lanok noiz amaituko dituzten. Urrian hasi ziren etxeak egiten, eta 2008ra arte ez dira gimnasioak erabilgarri egongo.

Aurrezki Gorakorra EUSKADIKO KUTXA

%5,00

URTEKO INTERES NOMINALA
Laugarren seihiakoan

%3,50

URTEKO INTERES NOMINALA
Hirugarren seihiakoan

%3,25

URTEKO INTERES NOMINALA
Bigarren seihiakoan

%3,00

URTEKO INTERES NOMINALA
Lehen seihiakoan

%3,71

2 URTERAKO GORDAILUA
GUTXIENEZ 3.000 EURO

Goi-goian

Gehieneko zenbatekoa bezero bakoitzeko: 30.000 €

• Inbertsioaren zenbatekoa eskudiruzko sarreraren edo beste entitate batzuen txeeen bidez osatuko da •

• Interesak sei hiletik behin likidatuko dira • Eskaintza 36 milioi euro osatu arte edo 2007ko otsailaren 10era arte egongo da indarrean • Euskadiko Kutxak 15 eguneko epea emango du, formalizazio-egunetik aurrera, gogoeta egiteko, eta, nahi izanez gero, eragiketa bertan behera uzteko



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

AHT > LAU URTE DITUZTE ENPRESA ERAIKITZAILEEK LEGUTIANO ETA ESKORIATZA ARTEKO ZATIA ERAIKITZEKO

AHTren Debagoieneko zati bat eraikitze lanak esleitura

Eskoriatza-Aramaio eta Aramaio-Arrasate zatiak eraikitze lanak enkantera atera dituzte

Leintz Gatzaga, Aramaio, Eskoriatza eta Arrasateko lurrak hartuko dituzte zatiok

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Abiadura Handiko Trena Debagoienetik igaroko da, eta aurrera doa asmo hori betetzeko prozesua. Horren harira, batetik, Espainiako Gobernuak Sustapen Ministerioak AHTren *Euskal Y*-aren bi zati eraikitze lanak esleitu ditu, Legutianoetik Eskoriatzarainoko trenbidearenak, hain zuzen ere. Bestalde, Eskoriatza-Aramaio eta Aramaio-Arrasate zatiak eraikitze lanak lehiaketara atera ditu Sustapen Ministerioak.

LAU URTE ETA 130 MILIOI EURO

Legutiano eta Eskoriatza arteko trenbidearen lanak bi zatitan eraikiko dituzte. Guztira, 130,7 milioi euroko aurrekontua dute lanok. Lehenengo zatia Comsa y Cycasa eta Canteras y Construc-

ciones enpresek eraikiko dute. Bost kilometro luze izango du lehen zati horrek eta 65 milioi euro kostako da. Lau urte izango dituzte lanak amaitzeko. Zati horretan, Albertiako tunelaren lehenengo zatia egingo dute, hasierako 2,7 kilometroak, hain justu. 4,8 kilometroko luzera izango du, guztira, tunel horrek.

Legutiano-Eskoriatza trenbidearen bigarren zatiaren lanak honako enpresei esleitu dizkie Espainiako Gobernuak: Ferrovial Agroman eta Fonorte Empresa Constructora. 2,4 kilometro ditu bigarren zati horrek. 65,6 milioi euroko aurrekontua dauka eta 45 hilabete izango dituzte lanak amaitzeko. Bigarren zati horren zati handienak Leintz Gatzaga, Aramaio eta Eskoriatza-ko lurrak hartzen ditu.

BESTE BI ZATI LEHIAKETARA

Aipatutako bi zatiak esleitzearekin batera, beste bi zati eraikitze lanak lehiaketara atera ditu Espainiako Gobernuak Sustapen Ministerioak. Aipatzekoa da, gainera, zati horiek (esleitutakoak eta lehiaketara ateratakoak) direla Madrilgo Gobernuak bere gain hartuko dituen bakarrik Gipuzkoan. Gainerakoen ardura Eusko Jaurlaritzaren esku geratuko da.

Eskoriatzatik Arrasaterainoko bi zatiak atera ditu Sustapen Ministerioak lehiaketara. Guztira, 191,44 milioi euroko aurrekontua izango dute zati biek. Lehenengo zatiak Eskoriatzatik Aramaiorainoko tartea hartzen du.

5,58 kilometroko luzera dauka tartea horrek eta 113 milioi euroko aurrekontua izango duela aurrez ikusten dute. Hiru zubibide eta lau tunel bikoitz izango ditu. 30 hilabete izango dituzte lehenengo zati hori eraikitzeko.

Bigarren zatia da Aramaiotik Arrasateraino doana, 3,39 kilometrokoa, hain zuzen ere. 78,34 milioi euroko aurrekontua eta 30 hilabete izango dituzte. 1.196 metroko geltokia egingo dute tartea horretan.

Abenduaren amaieran atera zituzten lehiaketara aipatutako zatiok, baita esleipenak ere. Egun haietan hainbat mobilizazio ekitaldi egin zituzten AHTren aurkako taldeek.

Esleitutakoak eta lehiaketara ateratakoak

LEGUTIO-ESKORIATZA

- > Egoera: esleitura.
- > Aurrekontua: 130,7 milioi euro.
- > Luzera: 7,4 kilometro.
- > Lanak amaitzeko epea: 4 urte.
- > Enpresak: Comsa y Cycasa eta Canteras y Construcciones Ferrovial Agroman eta Fonorte.

ESKORIATZA-ARRASATE

- > Egoera: lehiaketara aterata.
- > Bi zati: Eskoriatza-Aramaio eta Aramaio-Arrasate.
- > Eskoriatza-Aramaio: 113 milioi/30 hilabete/5,58 kilometro.
- > Aramaio-Arrasate: 78,34 milioi/30 hilabete/3,39 kilometro.

KOMERTZIOEN GIDA

Dagoeneko hasi dira banatzen

21.500 ale inguru banatuko ditu Goienak ibarreko herri guztietan

GOIENKARIA > BERGARA

Oñatin dagoeneko banatzen dihardu Goienak 2007ko komertzio gida. Eta, astelehenetik aurrera, Leintz ibarrean eta Bergara aldean banatzen hasiko dira. Hala, urtarri bukaera alderako ibarreko herri guztietan egongo da. 21.500 ale inguru banatuko dituzte. Eta, etxean gida jaso ezean, bi modu daude eskatzeko: 943-71 23 91 telefonora deituta edo publi@goiena.com helbidera idatzita.



GIDA Informazio osagarri ugari du.

el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz

harrapa ezazu!

MERKEALDIA



ARIKETAK Terapiak eta ariketak egiten dituzte zentroan, garuneko gaitza duenaren egoera hobetzeko.

O.E.

OSASUNA > ARRASATEN DU EGOITZA

Garuneko gaitza dutenen bizi kalitatea hobetzen dute Atece-n

Garraio zerbitzua eta sukaldia ere badute zentro horretan, eta Debagoien osoari ematen dio zerbitzua, egun erdiz nahiz osoz

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Arrasateko Atece zentroan garuneko gaitza dutenen bizi kalitatea hobetzen egiten dute lan azken bi urte eta erdian. Debagoien osoari ematen dio zerbitzua. Hain zuzen ere, momentu honetan, 13 lagun joaten dira egunero, Debagoienetik ez ezik, Elorriotik, Durangotik eta Arabatik ere bai, baina gehiagorendako tokia ere badute.

ONDO PRESTATUTAKO EGOITZA

Leire Pagaldai zentro horretako langilea da, eta, kontatu digunez, edozein arrazoiengatik garun gaitza duten pertsonak joan daitezke zentro horretara: "Hona etortzen dira, adibidez, errepideko, laneko edo kiroleko istripua izan dutenak, gaixotasun birikoak dituztenak edo garuneko gaitza erorketaren ondorioz dutenak".

Egoitza bera Arrasate erdian dago, Azoka kalean, Uarkape pilotalekuaren parean. Espazio handiak ditu barruan eta garuneko gaitza dutenek euren eguneroko bizimodua errazteko behar duten guztia dute. "Fisioterapeuta bat dugu eta gela bat dago prestatu-

ta harekin lana egiteko. Sukaldia ere badugu, bertan bazkaldura izan dezan, eta ekintza askotarako erabiltzen dugu gela ere badugu. Hantxe egiten ditugu, besteak beste, jolasak eta terapiak", azaldu du Pagaldaiak. Komunak eta dutxa ere, noski, erabiltzaileendako egokituta daude. Eta garraio zerbitzua ere badute; hau da, zentroko furgoneta joaten da gaixoa jasotzera eta berriro etxean uztera.

ASKOTARIKO TERAPIAK

Atece zentroaren helburua da gaixo horien bizi kalitatea hobe-

tzea, eta han diharduten zortzi langileak horretan saiatzen dira egunero, goizeko zortzietatik iluntzeko zortziak arte. Horretarako, hainbat terapia erabiltzen dituzte: "Badakigu hemen ezin dugula gaixotasuna ehuneko ehuneko osatu, baina gaixoaren bizimodua asko hobe dezakegu. Musikoterapia, eskulanak, logopedia memoria taldea eta halako terapiak egiten ditugu, taldeka, eta bakarkakoak ere baditugu. Ikusi izan ditugu makuluen gainean gurrildun aulkian etorri direnak, eta ederra da hori", dio Leire Pagaldaiak.

ORDAINDU BEHARREKOA

Horretarako, ordea, errehabilitazio handia egin behar dela dio Pagaldaiak. Istripua gertatu eta hurrengo sei hilabeteak oso garrantzitsuak dira ondorioak txikitzeko: "Inguruan Aita Menni ospitalea dago horretan espezialdua eta Madrilen dago beste egoitza bat. Horiek, ordea, pribatuak dira. Osakidetza gutxiengoa ematen du eta momentu puntualean bakarrik. Baina gero ere landu behar da gorputza, gaitza bizi gutxitirako da-eta", dio.

Egun erdiko zerbitzua 225 euro da hilean eta osokoa 450 euro. Hauze da zentroko zenbakia: 943-79 28 07. Eta helbide honetan informazio zabalagoa dago: www.fedace.org.

DATUA

13

ERABILTZAILA EGUNERO

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 13 erabiltzaile doaz egunero Arrasateko zentrori; 35 urte ditu gazteenak. Batzuk egun erdiz egoten dira eta egun osoz besteak. Zortzi langile dabilta.

BIZTANLERIA > DUELA HAMAR URTE 64.831 GINEN

Ibarreko biztanle kopurua behera doa: 63.334 gara

Herri handietako kopuruak egin du, batez ere, behera eta txikietakoak gora

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Urte berriari ekin diogun honetan, iazko eta azkeneko hamar urteotako datuak bildu nahi izan ditugu, Debagoieneko biztanleriaren gorabeherak aztertzeko. Oro har, 1997. urtetik hona, behera egin du biztanle kopuruak Debagoienean. Kontuan hartu behar dugu dauzkagun 2007ko datuak ez direla oraindik ofizialak, udaletan emandakoak diren arren.

Momentu honetan, 63.334 biztanle ditu errolatuta Debagoienak. Orain dela hamar urte, berriz, 64.831 debagoiendar ginen. Oñati, Aretxabaleta, Antzuola, Aramaio eta Elgeta

dira biztanleriak gora egin duen herriak. Bergaran eta Arrasaten, berriz, nabarmen egin du behera. Arrasatek, esaterako, 1997an baino 2.413 biztanle gutxiago dauka gaur egun. Bergarak 354 biztanle galdu ditu.

2006ko jaiotzen datuak ere jaso ditugu ibarreko udaletan: guztira, 589 ume jaio dira Debagoienean. Herri txikietako datuak altuak dira.

Biztanleak, herriz herri

- > Arrasate: 22.158
- > Bergara: 14.876
- > Oñati: 10.769
- > Aretxabaleta: 6.580
- > Eskoriatza: 3.962
- > Antzuola: 2.133
- > Aramaio: 1.548
- > Elgeta: 1.058
- > Leintz Gatzaga: 250

HAUTESKUNDE SINDIKALAK > IBARREKO UDALETAN

LAB sindikatua nagusi Debagoieneko udaletan

Debagoieneko udaletan 22 ordezkari lortu ditu LAB sindikatuak

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Hauteskunde sindikalak egiten dihardute azkenaldian; Debagoieneko udal gehienetan egin dituzte dagoeneko, eta LAB sindikatua nagusitu da. Guztira, 22 ordezkari lortu ditu LABek, udaletan eta udal fundazio edo zerbitzuetan. ELAK hamahiru eta ESK-k bi. 2002ko hauteskundeekin alderatuta, aldatu egin dira gauzak: orduan 18 ordezkari eskuratu zituen LABek, 17 ELAK eta bi ESK-k.

Arrasateko Udalean honakoak izan dira emaitzak: LABek

sei; ELAK hiru eta ESK-k bat. Aretxabaleta, Antzuola eta Eskoriatzako udaletan LABek bakarrik izango du ordezkari-tza, ordezkari bakarrarekin. Bergaran, zortzi ordezkari izango ditu LABek, hiru ELAK eta bakarra ESK-k. Oñatiko Udalean, azkenik, hiruna ordezkari lortu dituzte LABek eta ELAK.

UDAL ZERBITZUETAN

Arrasateko Iturbide zaharren egoitzan ordezkari bat izango du LABek; Aukea Kirol Patroinatuan, berriz, ELAK izango du ordezkari bat, baita Aretxabaletako Urrats Gain, Bergarako Mizpirualde eta Oñatiko zaharren egoitzetan ere. Aretxabaletako Leintz Udal Euskarlegian, azkenik, LABek bakarrik eskuratu du ordezkari-tza, ordezkari bakarrarekin.

Baserriko kiwiak salgai



Oñatiko IRABAN baserrian hazitako kiwiak saltzen ditugu. 10 kiloko kaxak.

Oñatin, Iraban baserrian:
943 78 18 32

Arrasaten, Agricentro Otxoan (Zigarrola 2):
943 79 17 79

Anima zaitetz eta proba itzazu bertako kiwi goxoak

MANIFESTAZIOA > 17:00ETAN ABIATUKO DA BILBOKO JESUSEN BIHOTZA PLAZATIK

Alderdi eta sindikatu gehienak Ibarretxek deitutako manifestazioan

EAJ, EA, Batasuna, Ezker Batua, Aralar, ERC eta CiUren babesa jaso du, besteak beste, deialdiak

Debagoieneko hainbat herritako EAJ alderdiak autobusak antolatu ditu Bilbora joateko

A. IRIZAR/M. BELASTEGI > BERGARA
Eusko Jaurlaritzak, Juan Jose Ibarretxeren eskutik, egin du manifestaziorako deialdia, *Bakea eta elkarrizketaren alde* leloarekin. Deialdi hori egin zuenetik, hainbat alderdi eta sindikaturen babesa jaso du, baita beste hainbaten kritika ere.

PSE-EE alderdiak manifestazioan parte hartzeko asmoa erakutsi zuen hasiera batean, nahiz eta leloarekin ados ez egon. Bal-

dintza bakarria Batasunak ez parte hartzea zen; atzo, eguena, jakin genuen Batasunak parte hartuko zuela. Erredakzioa ixteko orduan, PSE-EE bere erabakiaren berri eman gabe zegoen.

BABES ZABALA

Esan bezala, babes zabala jaso du Ibarretxeren deialdiak; hona hemen Bilboko manifestazioan parte hartuko dutela iragarri duten alderdi, sindikatu, erakun-



DEIALDIA Azkarraga eta Madrazorekin batera egin zuen deialdia Ibarretxek. ARGAZKI PRESS

de eta taldeetako batzuk: EAJ-PNV, EA, Aralar, Batasuna, Ezker Batua, ERC, CiU, CCOO, UGT, ELA, Udalbide eta Elkarbide. LAB gaur, egubakoitza, hartzekoa zen erabakia.

Debagoieneko hainbat herritatik antolatu ditu EAJk Bilboko autobusak; Arrasatetik 15:30ean aterako da, Garibaitik, Bergaran 15:15ean dute hitzordua, geltokian; eta Antzuolan, 15:30ean, Olaran aurrean.

Bestalde, aipatzekoa da "bake eraikuntzan eta normalizazio politikoan herritarren parte hartzea sustatzeko" EUDELe eta Ibarretxek hitzarmena sinatu dutela; tartean, Bergarako Udala dago. Ekimenarekin bat egin dute EAEko hamaika udalerrik, tartean Bergarako Udalak.


GUREKO ORDEZKARI POLITIKOEN IRITZIA

1- Juan Jose Ibarretxe lehendakariak 'Bakearen eta elkarrizketaren alde' lelopean manifestazioa deitu du zapaturako Bilbon. Bat zatoz leloarekin? Zergatik?



Mikel Lete
EA

1- Une politiko nahasi honetan herri honen benetako nahia kaleratzea funtsezkoa delako egiten dugu bat deialdiarekin.
2- Madrilgo atentatuak prozesuaren atzerapena ekarriko du. Garbi dugu ETaren borroka armatua bukatu egin behar dela. Prozesuaren etorkizunaren gainean atzera egiterik ez dago, baina ETAK zapuztu duen konfiantza berreskuratu egin behar da.



Mikel Zubimendi
Batasuna

1- Bai. Prozesua herriarena da, lidertza eta oinarriak herriak ipini ditu, bakea eta elkarrizketa bai, beti herriari hitza eta erabakia emanaz. Presoen alde Anoetan, bihar Bilbon, noiznahi eta nonahi, zintzo eta prest.
2- Puri-puritan, puntu-puntu dago, guztioi dagozkigun ardurak, erabakiak eta arriskuak geureganatzeko momentuan. Prozesuak ez baitu alternatibarik.



Blanca Roncal
PSE-EE

1- Guk beti erantzungo diegu demokratek egindako deialdiei eta beti parte hartuko dugu demokraziaren alde eta terrorismoaren aurka egiten diren ekimenetan. Zeinek? Demokratekin.
2- Prozesua hautsita dago; ETAK su-etena apurtu du atentatuarekin. Komunikatua, gainera, ez da pozik egotekoa, ETAK mehatxatzen jarraitzen du-eta.



Oxel Erostarbe
Aralar

1- Bakea eta elkarrizketa izan dira historikoki gure apustua, eta hori berrestera joango gara Bilbora. Konponbideak zibila behar du, hitzaren bidez eraikia. Arme elkarrizketari eman behar diote bidea.
2- ETari eta gobernuari dagokiek argitzea zertan den bake prozesua. Normalizazio politikoaren prozesuan alderdiok ahalegina egin behar dugu elkarrizketa bideratzeko.



Iñaki Galdos
EA

1- Leloa ona da eta adierazten duenarekin bat gatoz. Alderdi gisa beti mantendu dugu bakearen eta elkarrizketaren aldeko jarrera. Gainera, gobernu baten gaude eta ados gaude gobernu-buruaren deialdiarekin.
2- Prozesua gaizki ikusten dugu, ETAK apurtu egin duelako, bere kabuz, abisurik eman gabe, su-etena.



Ander Rodriguez
EB-IU

1- Bai. Atentatuaren aurretik EBk proposatu zuen era honetako manifestazioa egitea, gizarteak prozesuaren protagonismoa berreskuratu beharra zuelako.
2- Prozesuak berriro hasi behar du, betiere, mesfidantza handiagoarekin eta ilusioarekin, baina zuhurtasunez. ETAK beste urrats bat eman behar du elkarrizketa erabakitzailera ezartzeko.



Itziar Lamarain
PP

1- Ez, ez nago eta batere ados: ez dakit ze elkarrizketa planteatu daitekeen halako gentilajearekin; bizitzaren eta askatasunaren kontra egiten duten horiekin.
2- ETAK nahi duten bezala dago. Barajasko atentatu gertatu eta gero, bazirudien bertan behera geratuko zela, baina ikusita Euskadiko Alderdi Sozialistak haiek hizketan jarraitzen duela, amore eman du.

KORRIKA 15 > EKITALDIAK PRESTATUKO DITUZTE

Herri batzarrak egingo dituzte Korrika 15 antolatzen

Ikastetxeak, elkarteak, enpresak, koadrilak nahiz norbanakoak daude gonbidatuta herri batzarretara

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Korrika 15 antolatzeneko batzarrak egingo dituzte ibarreko herrietan datozen egunetan. Herrietako enpresa, sindikatu, ikastetxe, koadrila, alderdi politiko, erakunde eta norbanako guztiak daude gonbidatuta batzarretara. Bilera horietan erabakiko dute zein ekitaldi egin herri bakoitzean, herria nola girotu, laguntzak nola eskatu eta zein herritar omendu, besteak beste.

ITURRIAGA ETA ELORTZA

Oskar Elizburu da Korrika 15eko arduraduna Debagoienean eta hura joango da batzar horietara euskararen aldeko ekimen hori zelan antolatu laguntzera eta informazioa ematera. "Korrika Kulturalerako menua ere eramango dut. Guk baditugu pailazoan, bertsolarien, antzerki taldeen, musikarien eta beste hainbaten kontaktuak, ekitaldiak egiteko gertu daudenak, eta herri bakoitzak erabakiko du zer ekitaldi antolatu bere herrian", azaldu du Elizburuk. "Ekitaldi horiekin batera, noski, beste hainbat gauza egin daitezke herria girotzeko, eta proposamen guztiak dira onak", jarraitu du.

Bestalde, Korrika 15ek prest du dagoeneko nazio mailako kultura egitaraua, eta ekitaldi bat Debagoienean egingo dute, Arrasaten, Udalak lagunduta. "Martxoaren 4an, Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariek bertso-trama egingo dute musikari batzuekin batera. Amaia antzokian izango da ikuskizuna", aurreratu du Elizburuk.

380 EURO KILOMETROAK

Bestalde, Korrika 15eko kilometroak salgai jarriko ditu AEK-k, aurreko ekimenetan egin duen moduan. 380 euro balio du kilometroak eta elkarte, koadrila edo norbanakoak eros ditzake. Hori egiteko, bi bide daude: herri bakoitzean egingo dituzten batzarrak edo Arrasateko AEKra deituta, handik koordinatuko dutelako

guztia. Hauxe da Arrasateko AEK euskaltegiko telefonoa: 943 77 03 69. Eta hauxe helbide elektronikoa: arrasate@aeenet.net.

DEBAGOIENETIK BIRRIAN

Korrika 15 martxoaren 22an abiatuko da Karrantzatik eta apirilaren 1ean iritsiko da Iruñera. Ibilbide hori egiteko, bi aldiz pasako da ibarretik: "Leintz Gatzagara helduko da martxoaren 23an. 22:45ak aldera hartuko dugu lekuak Mikeletetxen. Handik, Oñaraino joango da, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate zeharkatuta. Udanan, Legazpikoak egongo dira zain. Martxoaren 25ean, berriz, Deskargara helduko da Korrika 06:00ak inguruan eta Antzuola, Bergara eta Elgeta pasa ostean Elorriora joango da", argitu du Oskar Elizburuk.

HERRIZ HERRIKO BATZARRAK

> OÑATI

Urtarrilaren 15ean, astelehena, 19:00etan, kultura etxean.

> ARETXABALETA

Urtarrilaren 16an, martitzena, 19:00etan, Loramendiko lokalean.

> BERGARA

Urtarrilaren 17an, eguaztena, 19:00etan, kultura etxean.

> ARRASATE

Urtarrilaren 18an, eguena, 19:30ean, AEDK duen tabernan.

> ESKORIATZA

Urtarrilaren 22an, astelehena, 19:00etan, kultura etxean.

> LEINTZ GATZAGA

Urtarrilaren 23an, martitzena, 19:30ean, kultura etxean.

> ANTZUOLA

Zehazteke.

> ARAMAIO

Zehazteke.

> ELGETA

Zehazteke.



GOIENKARIA

Elgetako Intxorta mendian gudariak izan zituzten gogoan

Debagoieneko -Elgeta, Arrasate eta Bergarakoak, batik bat- eta Elorrioko berrehun bat lagun Elgetako Intxorta mendira igo eta omenaldia egin zieten gudariei, Askatasunak deituta. "Atzoko eta gaurko gudariei" egin zieten ohore. Ekitaldia ere egin zuten gudariok omentzeko mendiaren magalean.

Ekitaldiaren ostean Intxortatik jaitsi eta Elgetan egin zuten bazkaria giro alaian.

kontsumoa



Komertzioek bi hilabete dituzte beherapenetan jarduteko.

X.U.

Eguraldia eragin zuzena izango du orain hasi dituzten beherapenetan

XABIER URTZELAI. > BERGARA

Oraingo astean hasi dituzte neguko beherapenak, eta Debagoieneko merkataritzako aholkulari tekniko Oihana Barrutiak esan duenez, orain arte izan dugun eguraldi epelak eragina izango du beherapenetan: "Arropa edo zapata dendetan ez dute saldu aurreikusitakoa, negu epela izan dugulako. Eta, beherapenetan igarri egingo da hori, produktu asko egongo direlako salgai, neurri eta kolore askotakoak, gainera". Horrek ez du esan gura, baina, beste urte batzuetan baino beherapen handiagoak egongo direnik: "Legeak ez du horren gainean ezer esaten, komertzio bakoitzak erabakitzen du-eta ze beherapen jarri". Hori bai, normala den moduan, jendeak erantzuten ez badu prezioak gehiago jaitziko dituzte. Gogoratu, beste behin, beherapenetan egonda ere, kontsumitzaileen eskubideak berberak direla.



Zelan egon etxean epeletan, fakturak gora egin barik

Consumer aldizkariak hainbat aholku eman ditu etxean epeletan egon eta fakturak gora egin ez dezan.

Hala, lehenengo egin beharra etxebizitza behar den moduan isolatuta dagoen egiaztatzea da, beroak ihes egin ez dezan. Temperatura proposena 18-20 gradu bitartekoa da; hortik gorakoa larregikoa da. Etxea aireztatzeko nahikoa dira hamar minutu, eta eguerdian egitea komeni da, eguzkiak gehien jotzen duenean. Gainera, etxeko logela guztiak ez dute zertan egon tenperatura berean: komuna, erabiltzen ez den logela... Izan ere, komeni da berogailua egoki zaintzea.



Ez da komeni edozein bateria erostea

Automobilek badute bereziki ondo zaindu behar den elementua: bateria. Hala, RACek emandako datuen arabera, 2004an errepidean egin zituzten asistentzia zerbitzuetatik, %42 bateriarekin harremana zuten arazo-enganatik izan ziren.

Merkatuan bateria eskaintza zabala dago, 20 marka baino gehiago daude, askotariko prezio eta kalitatearekin. Zein aukeratu? Motor kontuetan adituek gomendatzen dute bi urteko garantiadun bateriak erostea, autoa abiatzeko erreserba 300 amperekoa baino handiagoa izan dezala eta azido-ihesik ez edukitzeko ondo babestuta egon dadila.

gure artekoak

BOLUBARRI BARAZKIAK ETA LANDAREAK > Bergarako Bolubarrri baserrikoa da Agurtzane Olabarria, eta huraxe da bere lantokia ere. Barazkiak eta landareak hazi eta saltzea da Olabarriaren lanbidea.

Agurtzane Olabarria

"Nekazaritzatik bizi izatea zaila da, baina egin daiteke"

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Ibarreko azoketan ibiltzen zareten irakurleondako ezagunak izango dira Bolubarriko porru, letxuga eta tomateak. Agurtzane eta beste lau lagunek lan egiten dute bertan, eta horretatik ateratzen dute bizimodua.

Berotegi eta lursail ugari dituzue ibarrean.

Bai, Bergaran hainbat tokitan ditugu berotegiak: etxe ondoan bertan, San Juan auzoan, Labegarietan eta San Kristobalen. Oñatin, berriz, lursail handia dugu, baina berotegirik ez. Batez ere, neguko produktuak ditugu Oñatin.

Zer ekoizten duzue?

Letxugak, porruak eta ziazerbak urte osoan zehar ekoizten saiatzen gara. Horretaz gain, sasoko produktuak ere bai: piperrak, tomateak, kipulak...

Non saltzen dituzue zuen produktuak?

Bolubarrin bertan barazki landareak saltzen ditugu. Bestalde, azokak eta hipermerkatuak dira gure saltokiak. Oñati, Bergara eta Arrasateko azoketara astero joaten gara. Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako supermerkatuei ere saltzen diegu.



Agurtzane Bolubarrri baserriko negutegi baten.

A.I.

FITXA TEKNIKOAK

> EKOIZPEN HANDIA

Horra hor datu batzuk: 24.000 kilo tomate, 40.000 porru sorta eta 400.000 bat letxuga.

> GAZTE GUTXI

Bezeroak, gehienak, edadetuak dira; gazte jende oso gutxi joaten da azoketara.

> ATZERRIKO LANGILEAK

Hiru anai-arrebez gain, beste bergarar batek, bi ekuatoriarrek eta boliviarr batek lan egiten dute Bolubarrin.

Ze bezero mota dituzue?

Azoketara, gehienbat, jende nagusia etortzen zaigu. Jende gazte oso gutxi ibiltzen da ibarreko azoketan.

Barazki landareak ere saltzen dituzue.

Bai, baina geroago eta gutxiago. Baratzea izateko ohitura gainhera datorrela iruditzen zait.

Baserritik bizimodua atera daiteke?

Bai; zaila da, baina egin daiteke. Gu, hiru anai-arreba bizi gara horretatik, eta bi langile ditugu.

etxeke leihotik



Iban Arantzabal > Ikus-entzunezkoen zuzendaria

Haize berria zutabeetan haize zaharraren ondotik

Ez dut nire burua zutabegiletzat. Beti idatzi behar da neurrian...: ez gehiago, ez gutxiago. Kopuruarekin moduan, gaiarekin ere horixe egin gura nuke askotan: ez gehiago eta ez gutxiago idatzi. Eta bata zein beste egitea hain da nekoso... Zaila behar du egunero-egunero zutabea idazteak eta zailagoa behar du *Zutabe* idazteak. Nola izan sinesgarri? *Zutabe*-ren faltan, blog ezberdineta-ko mezuek hartu duten haize berria egin zait adierazgarri:

- Imanol Muruak blogean, ez paperean: "Hanka-sartze politiko handia iruditzen zait Barajasko atentatua". Urtarrilak 10: "Ezker abertzaleko jende asko sumatu dut egunotan agiri honen zain, ulertzen ez zuenari buruzko azalpen uler- garri eta lasaigarri baten espe- roan. Baina ETAK ez die azal- penik eman. ETAK, orainoan, ohi baino jende gehiagori huts egin diolakoan nago".

- Anjel Lertxundik blogean zein paperean: "Anoetako espiritua bizirik egon izan balitz, hiritarrok entzungo genuen Batasunak atentatuari buruz egin zuen adierazpen ofizialean: Barajasen leherrarazi zuten furgonetan zegoena ez zela Anoetako espiritua. Hori aitortzea ahaztu zitzaion".

> Fermin Muguruza: "Hitzari eskainitako gune xume honetatik, nire erabateko gaitzes- pena azaldu nahi dut Madrilen izandako atentatuari. Nire amo- rrua bi langile ekuador- tar desagertuengatik".

> De Juana, ilegalizazio- ak, preso politikoen egoera jasanezina... Aipatu barik motz geratuko litzateke zutabe hau. Ez gutxiago eta ez gehiago idazte honetan alde hau ere nabarmen- tzea dagokit, zintzo.

"Zaila egunero zutabea idaztea, baina zailago behar du 'Zutabe' idazteak"

begi-bistan



Lan eta lan kamioiak (Antzuola) 2007/01/09

Argazkia: Aitor Atxa
Testua: Aintzane Irizar.

Irudi bitxia ikusi genuen marti- tzen goizean Sagasti auzoan. Hor- migoia zeramaten zazpi bat kamioi elkartu ziren eta ilaran egon behar izan zuten zain. Jo eta sua dihardute lanean.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Zuriñe Velez de Mendizabal
KAZETARIA



Epi Perez
PINTOREA



Jone Muxika
TXIRRINDULARIA

Euskonews.com agerkari digitala- ren *Euskonews gaz- tea* gehigarri berria- ren arduraduna izango da. Gaur, egubakoitza, hasita ikusiko du argia aldizkari berriak, astero. Euskal kul- tura eta zientziari eskainitako agerka- ri elektronikoa da *Euskonews*.

Oñatiko kultura etxean margo era- kusketa jarriko du Epi Perez pintore antzuolarrak. Urtar- rilaren 18tik otsai- laren 4ra arte egon- go da zabalik eta 45 margolan egongo dira ikusgai. Oñati- ko hainbat txoko- ren irudiak izango dira, besteak beste, erakusketan.

Jone Muxika txi- rrindulari elgeta- rra Espainiako ziklo-kros txapelke- tara joatekoa zen oraingo astebu- ruan, Madrilera. Baina aurreko aste- buruan Colindren- sen (Kantabria) min hartu zuen eta ezin izango du Espainiako txapel- ketan parte hartu.

Alderdi Popularreko Itziar Lamaraini egin diogu 2007ko lehen elkarrizketa nagusia. Arrasateko zinegotzia da azken agintaldian eta hurrengoetara ere aurkeztuko da; hura izango da zerrendako lehena. Hain zuzen, "Arrasateren alde lan egiten jarraitzeko" aurkeztuko da bigarrenez. Maiatzeko hauteskunde ez gain, egungo egoeraren gainean ere galdetu diogu.

Itziar Lamarain > PP

"Gaizki aterako zaizkio gauzak Zapaterori, amore ematen duelako"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Barajasko eta Arrasateko gertaerak ikusita, ETaren komunikatuak ez diola inolako esperantzarik ematen aitortu du Itziar Lamarain (Arrasate, 1945) Alderdi Popularreko kideak. Bere alderdiak lehenengo tokian jarraituko duela esan du eta amore emateko prest ez dagoela ere esan du, "beste batzuk egin duten moduan".

Nola ikusten duzu egungo egoera eta etorkizuna?

Etorkizuna, zoritxarrez, oso gaizki, beltz. Ez dut garbi ikusten arrazoi honegatik: edo ETak armak uzten ditu edo armarik gabe uzten dugu ETA. Ez dago beste biderik: elkarrizketak ez du balio eta ni, behintzat, ez nago etsitzeko edo belaunikatzeko prest.

Zer du txarra elkarrizketak?

Elkarrizketa ez da txarra, beti da ona, baina baldintzak ikusi behar dira. Ezin daiteke berbarik egin bonba edo pistola batekin mehatxatzen zaituenarekin. Baldintza edo egoera berean gaudenekin berba egiteko ez dut arazorik, baina ez mehatxatzen gaituztenekin. Gobernuak pistolarekin mehatxatzen duen pertsona batekin hitz egiten duela diote, baina ez, hori da alde batek indarkeria erabili duela eta besteak amore eman duela, baina ez elkarrizketa.

Eta elkarrizketa ez bada bidea, zein da?

Lehen esandakoak: ETak armak uztea edo kentzea. Bere momentuan esan izan balu armak utziko zituela, hobeto egongo ginatekeen gaur. Armarik gabe bizi izaten ez dakitelako ez dituzte utziko, agian. Baina hori egingo balute, hautesontziek esandakoari egingo genioke kasu, horrekin gauza asko egin daitezke-eta. Beti esan izan dut demokraziak eta hautesontziek agintzen dutela, baina armarik gabe.

Ze irakurketa egiten diozu ETaren komunikatuari?

Gertakariak erakutsi digute ETA ez dela desarmatu; alderantziz, berriro armatzen ari dela. Nik balorazio ezkorra egiten diot komunikatuari. ETak berriz dio ekintza gehiago egingo dituela, eta, beraz, oso beltz dugu etorkizuna. Elkarrizketa aipatzen dute gero, baina norekin egin behar duzu berba, armak dituztenekin? Haiekin ezin daiteke. Armak utzi-



Arrasateko udaletxean duen bulegoan hitz egin dugu Itziar Lamarainekin.

O.E.

ko deitu zion Zapaterok. Alderdi-ko askok esan zioten ez joateko, baina joan egin zen, beti egin duen moduan, edukazioa duelako.

Bilduko dira berriro?

Zertarako? Deitzen dion bakoitzean joango dela badakit, baina ez dizkio sinistuko kontatzen dizkion txorakeriak.

Zergatik ez zoazte Bilboko manifestaziora?

Leloarekin ados ez gaudelako. Baina EAJko asko ere gogo txarrez joango dira eta PSE-EE badoa, ados ez egon arren. Itzurakeria da guztia.

Bake prozesuan ere bakarrik gelditu zen PP. Hobeto?

Ez diot bake prozesua deitzen orain artekoari, amore emate prozesua baizik. Dagoen lekura heldu zenetik, ez du politikarik egin Zapaterok, ez da espainolez arduratu, egin duen gauza bakarra da PP bakarrik uzten ahalegindu. Baina PPK hamar milioi boto ditu, ez dago bakarrik.

PPk ez du arazorik alderdiekin hitz egiteko, baina planteamendua eginda dago, lege antiterrorista onartuta dago. Lege hori bi alderdi nagusiek egin zuten, baina alderdi guztiak gonbidatu zituzten eta ez ziren joan. Eta orain esaten dute gu bakarrik gaudela? Gu lehenengo tokian gaude, beste batzuk dira aldatu direnak. Batez ere Zapaterok zabaldu gura du irudi hori, baina ziur nago ez zaiola ondo aterako. Gauzak luzatu egin ditu eta egoera honetan heldu gura du hauteskundeetara, nahiz eta ezer ez konpondu. Hark ez du berba egiten, hark amore ematen du, eta horregatik, gaizki aterako zaizkio gauzak, ziur nago. Gizarteak zentzua hartuko du.

Batasuna egongo da hurrengo hauteskundeetan?

Berriz hitz egin dute Zapaterok, PSE-EEK eta ETak, eta aurkeztuko da, beste izen batekin.

Nolako izatea gura duzu Arrasateko Udalak ekainetik?

Orain artekoaren kontrakoa. Nik uste nuen lan batuagoa egingo genuela, gai gehiago mahai gaineratuko zirela, baina informazio asko gorde digute alderdioi. Alkatea bakarrik gelditu da. Gelmako kasuan elkartu ginen beste alderdiok eta orain ere aurrekontu alternatiboak prestatzen ari gara, ziur egingo dituzten gauzak sartzen.

ELKARRIZKETA

"Elkarrizketa beti da ona, baina baldintza beretan eta armarik gabe, ez bestela"

ko balituzte beste egoera baten egongo ginateke, baina ez dute egin eta egiten ez duten bitartean, ez dut esperantzarik pertsona horiek ezer onik ekarriko dutenik. Gainera, ziur nago komunikatu hori kaleratu dutela Zapateroren gobernuarekin hitz egin ostean.

IRTENBIDEA

"ETak armak uztea edo ETA armarik gabe uztea da bidea, ez elkarrizketa"

Diozu bai ETak bai gobernuak engainatu egin gaituztela.

Atentatuen erantzulea ETA da, argi daukat, baina arduragabea Zapateroren gobernu da, batez ere presidentea. Gezurak baino ez ditu esaten. Behin baino gehiagotan esan izan du ez duela ez ETarekin ez inorekin ber-

HAUTESKUNDEAK

"Orain artekoaren kontrakoa izatea gura dut hurrengo Arrasateko Udala"

ba egin, eta gertaerak erakusten digute hori gezurra dela. Elkarrizketa horiek egon dira, Batasunak ere baieztatu ditu.

Zertaz hitz egin zuten Zapaterok eta Raxoik?

Ez dut Raxoiekin berba egin, baina esan du ez dakiela zertara-



zabalik

Mikel Lezamiz

Loreak landatze eguna

Arrasateko herrian, eta ziur naiz Debagoien osoan berdira gertatzen dela, ezin dugu lore eta lorategi dezenterik eduki kalean, gauetan eta, batez ere, aste bukaeretakoz goizaldeetan apurto egiten dituztelako. Baten batzuek lapurto ere bai. Hiritartasuna falta zaigu eta ni ondo eta besteak hor konpon.

Herriak eta hiriak gero eta txukunago eduki nahi ditugu eta obra berriak egitetik aparte lorategi berriak eta lorontzi berriak jartzea kaleetan zehar gero eta normalagoa da. Horrela izan da Mondragones kale berrituan eta Olarte kalean. Azken honetan dendariak beraiek hartu dute konpromisoa loreak zaindu eta ureztatzeko.

Baina aspaldi honetan Arrasateko kaleetan basati asko dabil gaez eta herritar guztioi kalte egiten digute.

Ni ez naiz kontrolen zalea ezta errepresio-zalea, uste baitut heziketa epe luzerako aberatsagoa dela eta emaitza hobeak ematen dituela, eta era horretan lan egin behar dugula.

Honela jokatu nuke nik: zuhaitz eguna mendietan egiten den bezala umek eta gazteek landatzen dituztelarik, herrian ere loreak landatze eguna jarriko nuke, eta ziur asko beste pertsonak hori ikustean gehiago baloratuko luketela. Urtean zehar bizpahiru aldiz egingo bagenu (neguko, udaberriko eta udazkeneko loreak jartzea, adibidez) eta eskoletako eta auzotarren laguntza eskatuz gero auzolana bultzatuz, hiritartasuna bultzatuko genuke eta gure herriak bizia goak eta atseginagoak izango lirakeke.

Idea honi gehiago erantsiz, loreak aldatu behar diren egunean jendeari aukera emango nioke bat etxera eramateko, eta berak jarritako lorea balitz, zein hobeto opari bezala gurasoen-tzako edota maite duenarentzako.

"Arrasateko herrian ezin dugu lora eta lorategi dezenterik eduki kalean"

"Aspaldi honetan kaleetan basati asko dabil gaez eta herritar guztioi kalte egiten digute"

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziorza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereizbar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jauriritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaleto
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarrak galdezka

BERGARAKO IGERILEKUKO URAREN TENPERATURA

Bergarako Agorrosingo igerilekuetako uraren tenperaturaz kexu etorri zaigu aste honetan emakumezko bat erredakzioa. 26 gradutan dago ura. Temperatura horren zergatia jakin nahi izan du eta Udaleko Kirol Zerbitzura argibide bila jo dugu.

Udaleko Kirol Zerbitzutik argitu dutenez, igerileku handiko ura 26 gradutan dago eta txiki-koa, berriz, 31 gradutan. Azaldu dutenez, Erabilera Kolektiboko Araudi Sanitarioari dagokion 32/2003 dekretuak dio igerilekuetako urak 24 eta 28 gradu artean egon behar duela. Horrez gain, igerilekua dagoen inguru-nearen tenperatura ere arautzen du: ura baino bi gradu gutxiago edo gehiago izan behar ditu inguruneak. Bergarako igerilekuaren kasuan, ingurunea 30 gradura egoten da, erabiltzaileen erosotasunean pentsatuz. Kirol Zerbitzutik gehitu dutenez, araudiari eusteaz gain igeri egiteko ura 26 gradutan egoteari egoki irizten diote. Bestalde, putzuko ur guztia gradu bat

gehiago berotzea oso garestia dela ere aurreratu dute. Hori horrela, erabiltzaileen erosotasunaz gain, ekonomiaren irizpidea kontuan hartu dutela azpimarratu dute.

PLASTIKOA BATZEKO ZERBITZUA

Baserri ingurunean sortutako plastikoaren bilketa noiz hasiko den jakiteko idatzi digu irakurle batek.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

Zerbitzu hori Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkartek ematen du. Eurengana jo eta zerbitzua noiz hasiko den argitu digute.

Urtarrilaren 23an hasiko da zerbitzua. Hilean behineko zerbitzua da eta honako plastikoa batzen du: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, berotegietan eta ortuetan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta berotegiko plastiko zuria. Plastikozko sokei dagokienez, halakoak ez dituzte batzen.

Plastikoa arratsaldean laga behar da ohiko lekuetan –iazko urtetik hona plastikoa lagatzeko lekuan ez da aldaketarik egon–. Ohiko lekuez gain beste nonbait laga nahiz izanez gero, telefonoz deituta jakinarazi behar da (943 76 25 47).

Horrez gain, gogoratu behar da zerbitzua Arrasateko Udala, Bedoña eta Garagartza auzoetara, Bergarako Elosu eta Santutxu auzoetara eta Gatzagako Dorleta auzora joateko derrigorrez deitu behar dela telefonoz, osterantzean ez da pasatzen-eta.

marrakiz

Alex Ugalde



Adarra jo digute II

Marijo Deogracias

www.goiena.net/blogak/marijo

Aurreko mezu baten "adarra jo izan balidate" bezala sentitzen nintzela idatzi nuen. Ba, azkeneko egun hauetan, hainbat emakumeri entzun izan diot antzeko zerbait, baina kasu honetan Ahotsak gainean izan da. Abenduaren 30a ezkerro, ez dugu Ahotsakide bat bera ere entzun, era publikoan eta

Ahotsakide legez, ezer ere esaten su-eten iraunkorraren eta bake prozesuaren kontra izandako atentatuaz. Emakume izateari dei egin zioten apirilaren 8an Ahotsak mugimenduko kideek eta batzen gaituen horretatik abiatuta bakearen alde, elkarrizketaren alde, lan egiteko eta prozesuan parte hartze zuzena izateko aldarrikapena egin zuten. Han batu ziren hainbat alderdi politikoe-tako kide diren emakumeak, AB, Batasuna, Aralar, EA, EAJ, PSE, PSN, AB... Era pertsonalean, diotenez.

Abuztuaren prozesua krisian zegoela esaten hasi zirenean,

Ahotsak beste agiri bat atera zuten, apirilaren 8an aurkeztu zuten agiria sinatu genuen guztion babesarekin (horrela behar baitu), Ahotsak gertu legokeela behar izanez gero, krisi egoeran ere, prozesuari bultzada emateko eta horretan jarduteko buru-belarri.

95 urterekin

Iban Perez

www.goiena.net/blogak/leioha

Gaur telebista ikusten nengoela berri harrigarri bat aditzeko parada izan

plazara

Barajasko atentatuak hautsak astindu ditu eta bake prozesua kolokan jarri du. Aitor Arantzabal Batasuneko mahaikideak bake prozesua orain inoiz baino beharrezkoago dela dio eta zailtasun guztien gaintetik, ezker abertzaleak prozesua martxan jartzeko eta bururaino eramateko duen konpromisoa berretsi du. Bestalde, prozesuak oinarri sendoak behar dituela ere dio hark.

Aitor Arantzabal *

Prozesua oinarri sendoekin eraiki dezagun

Barajasko ekintzak astinaldi handia ekarri dio egoera politikoari. Doala hemendik bi hildakoen senitatekoei elkartasun zintzoena.


Hilabete luzeak daramatza ezker abertzaleak prozesuak bizi duen krisi egoera salatzen eta orain arteko baldintzek prozesua bidera ezina egiten zutela esanez.

Inposaketa eta ezker abertzalearen umilazio prozesu bat baino, negoziaketa politikoaren aldeko hautu garbia egin behar zela genion eta berresten dugu, gatazkaren erroetara joanez eta konponbide politikoa bilatuz.

BEDERATZI HILABETEKO BALANTZEA
Hilabete luze hauetan Estatu Espainolak ez du inongo lotsarik izan hartutako konpromisoari egin eta errepresioa eta jazarpen judizialaren bitartez inposaketa prozesu bat aurrera ateratzen: dispertsioa, Iñaki De Juanaren epaiketa, 18/98, zitazio eta debeku judizialak, jarduera politikoa oztopatzea, atxilotaketak...

Prozesuak aurrera egiteko behar dituen baldintza minimo batzuen aldarrikapenetik harago, gakoa Euskal Herriko eragileen arteko harreman eta negoziazio politikoan datza.

Negoziaketa politikorako prozesua hasteko oinarriko adostasuna behar da eta Batasunetik horretarako saio bat baino gehiago garatu dugu alderdi politiko ezberdinekin. Bitartean, PSOE-k, PNVren laguntzarekin, eztabaida atzeratu, prozesua desitxuratu eta mamirik gabeko ustezko bake prozesua inposatu nahi izan dute.



MIKEL ARROIABE

INOIZ BAINO BEHARREZKOAGOA
Zailtasun guztien gaintetik, azken hilabeteetan bezalaxe, ezker abertzaleak prozesua martxan jartzeko eta prozesua bururaino eramateko duen borondatea berresten du.

Euskal Herri osoan aldaketa politikorako eta gatazkaren konponbiderako sortutako aukerak bere horretan segitzen du eta horrek ardura politikoa eta erantzukizuna eskatzen du, prozesua inoiz baino beharrezkoagoa da.

PROZESUAK OINARRI SENDOAK
Gure Herrian prozesua egongo bada eta aurrera egingo badu oinarri sendoen gainean besterik ez da izango. Egun ez dauden bal-

"PSOE-k PNVren laguntzarekin prozesua desitxuratu eta mamirik gabeko ustezko bake prozesua inposatu nahi izan dute"

"Prozesua martxan jartzeko eta bururaino eramateko borondatea berresten dugu"

dintza eta oinarri sendo horiek eraikitzea behar du lehentasuna. Horrelako egoeratan bereziki neurtzen dira norberaren konpromisoak, ardurak eta aurrera egiteko borondatea.

Prozesuaren izaera eta helburuaren inguruan oinarriko adostasuna eraiki beharra dago eta Euskal Herriak marko demokratikoa eskuratzeko egin behar dugun bidea diseinatu eta adostu behar dugu. Finean, gatazkaren oinarriaren dauden lurralde zatiketa eta erabakitze eskubidearen ukazioa denen artean gaitzeta izan behar du eragileen zeregina.

Prozesuak, orain artean ez bezala, baldintza demokratiko minimo batzuk behar ditu. Euskal Herriko eragile eta herritarren arteko mugarik gabeko eztabaida politikoa burutu behar bada, erasorik gabe, trabarik eta mehatxurik gabe egin beharra dago. Gobernu espainolak horrelako prozesu batek eskatzen dituen konpromisoak bete behar ditu, eragile guztien jarduera politikoa ahalbideratuz eta salbuespen neurriak indargabetuz.

Batasunak prozesuaren aldeko bere jarrera berrestez gain, behar adineko, harreman ekimen eta enplazamenduak egingo ditu, prozesuak bizi duen egoera gaitzeta, behar dituen oinarri sendoak denen artean adostu eta behingoz gatazkaren sustraie-tara joaz betiko konponbidea ekarriko duen bide berriari heltzeko.

*Aitor Arantzabal, Batasuneko mahaikidea da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

Urtarrileko aldapa nabari duzu?

| | |
|-----|-----|
| BAI | %80 |
| EZ | %10 |

> IRAILEKOA GOGORRAGOA
Niretako aldapa handiagoa izaten da irailean (abuztuko oporren ostean) urtarrilean baino. Dena den, bai, igartzen da gastu gehiago izan ditugula, bereziki opariak erosten ditugulako. Nire ustez, Gabonak kontsumismoa bultzatzeko jaiak dira, batez ere.

Leire

> NAHIKOTXO

Ba, bai. Igartzen dut. Batez ere poltsikoan. Oparitan eta jaten gastatzen dugunarekin aldapa gogorra egiten zait niri.

Miren

> NIK EZ DUT SUMATZEN

Egia esan nik ez dut gehiegi sumatzen. Opari eta halakoetan ez dugu diru gehiegi gastatzen gurean. Izan ere, seme-alabarik ez dugunez, bada, gastu gutxiago

Leire

> GEHIEGI

Asko igartzen dut. Burua ezin jaso ibiltzen naiz

Ainara

DATORREN ASTEKOA: Batasuna egongo da udal hauteskundeetan?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

dut. Duela gutxi mutil batek amamari blog bat egin diola urtebetetze opari gisa.

Muxia-ko herrian gertatu da gertakari hau. Bloga *A mis 95 años* deitzen da eta idazleak, Maria Ameliak, bere bizitzari buruzko gauza interesgarriak kontatzeko gogo handiak ditu.

Beste notizia positibo bat blogintzaren inguruan eta blogosferarentzako. Interesgarria litzateke halako pertsona gehiago animatuko baziren idaztera, hala beraien memoriak eta oroitzapenak leku garrantzitsu batean geratuko lirake gordeta eta ez ahaztuta lekuren baten.

Doluminak nori?

Anjel Lertxundi
www.berria.info/blogak/lertxundi

Vasco Press agentziak eman zuen ETaren komunikatuaren gaztelaniazko itzulpenean, pasarte batek dio: "Así pues, queremos hacer llegar nuestro más sincero pésame a las dos personas, Carlos Alonso Palate y Diego Armado Estacio, que perdieron la vida en esta acción, así como a sus familias, amigos y al pueblo de Ecuador".

Doluminak hildakoei?
Horrela argitaratu da nik

ikusitako hedabideetan (hedabide guztiek eman dute itzulpen hori?), baina sarean begiratu besterik ez dago zer nolako algarak entzuten diren blogetan Carlosi eta Diegori emandako doluminen kontura.

Komunikatuak, ordea, oso kontu desberdina dio bere jatorrizko bertsiotan, euskaraz alegia: "Gure doluminak helarazi nahi dizkiegu ekintza honetan bizia galdu duten Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacioren senide, lagun eta Ekuador herriari".

Ederra aldea! Baina zer axola euskalduna ez den inori? Eta nola eman buelta hankasartzeari?

koplak

Lierni Altuna

Urtebarri, zaharrak barri

Urtea hasi berri dugu ta gaude betiko antzera, aberatsen irabaziak gora ta pobreenak behera.

Bake prosezuko esperantza bihurtu da ezereza, horrelako gai mamitsuetan ez da ta ezer erreza.

Lehortea ere aipagai da ez du euririk egiten, noizbait hasi beharko dugula gure kontzientziak pizten.

Euskarak ere desagertzeko arriskua omen dauka, gure esku da hitz egitea gurea dela burruka.

"Garapenaren" azkartasunak kontrolatzen gaituela, burujabeak izan behar dugu ezin da izan bestela.

Hala ere badaukat barnean esperantza ta indar asko, urtea hasi baino hobeto bukatuko dugulako.

Agorrosingo kirolguneko tarifak direla-eta, alkate Jaunari

Jabi Bengoa
Bergara

Irailean inauguratu zenuten Agorrosingo kirolgunea dela-eta, hona hemen nire iritzia.

Orain dela lau urte kanpoko igerileku ederrak geneuzkan eta barruko berrizatu beharreko igerilekuak. Orain, berriz, barruko igerileku ederrak dauzkagu, taberna itzela, gimnasio dotoreak, izar askotako sarrera gunea, palmera eta guzti, eta uda sasoiaren batek daki zer, kanpoko igerilekurik ez baitugu izango hainbat urtetan.

Hala ere, batez ere, igerilekuetako tarifetan erreparatu nahi nuke. Guk, bergararrok, igerilekuetan sartzeko beste herrietako edozein biztanlek baino bi aldiz gehiago ordaindu behar dugu. Argi esan behar dut gure familiak igerilekuak besterik ez dituela erabili nahi eta Bergaran familia asko dagoela gure egoera berean. Adibidez, arrasatearra izanez gero, bertako igerilekuak erabiltzearen 180 euro inguru ordaindu beharko genituzke urtean familiako. Bergaran, berriz, 430 euro inguru. Beste datu objektibo bat aipatzearen, esan, Bergaran tarifa soziala duen familia batek 160 euro inguru ordaindu beharko lukeela, ia beste herrietako tarifa normalaren beste. Bidezkoa iruditzen al zaizu, alkate jauna? Ez al duzu uste zure herritar askok igerileku zoragarri horiek ezingo dituztela disfrutatu?

Eta ez hori bakarrik, Mankomunitateko beste herrietako biztanleek Mankomunitateko txartel komuna atereaz gero, gurearen erdi prezioan, Bergarako igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute. Gauza bakarra eskatu nahi nizuke, bergararrok izan ditzagun Mankomunitateko beste herrietako biztanleek dituzten eskubide berak, hau da, Mankomunitateko beste herrikoek txartela prezio baten badute, gurea %100 baino garestiagoa ez izatea.

Autofinantzaketa aipatzen duzue behin eta berrero. Ez dakit, egia esan, derrigorrezkoa den ala ez, baina zergatik Bergaran bai eta inguruko herrietan ez? Tontoagoak izango ote gara!

Beraz, bukatzeko honako galdera: zergatik Bergarako kirol instalazioak Mankomunitate barruan egonik beste herriengandik hain desberdin jokatu behar duzue, gehiegizko tarifak ezarri?

Indarkeriaren zapore mingotsa

Julia Monge Sarabia eta Pilar Etxaniz Kortabarría (Zutik)
> Debagoiena

Ezin esan 2006. urtearen amaierak zapore ona utzi digunik. Barajaseko atentatuarekin, itxaropenaren lekua nahigabeak, kezak, tristurak hartu dute. Erantzunik gabeko galdera zurrumbilo baten murgilduta, amorratuta eta aurrerapenik gabeko politikaz nekatuta amaitu dugu urtea.

Eta, horrela hasi dugu urte berria ere. Abenduaren 5ean, goizaldera, Arrasaten gertatutakoa justifika ezina da, guretzat; ze helburu defenda daiteke, bada, 50 arrasatear inguru kaltetuta eta izututa?

Egia da PSOEko gobernuak ez dituela etxeko lanak ondo egin, PPri begira egon da etorkizunera begiratu beharrean, ez da gauza izan espetxe-politika leuntzeko, Batasunaren partaidetza instituzionala bermatuko lukeen zirrikitu bat ere ez du ireki. Nahi den balorazioa egin daiteke gobernuaren portaeraz. Hala ere, horrek ez luke ETArekin ekintza zuritu behar, ezta justifikatu ere. Gobernuak egiten duena egiten duela, ez diogu erakunde armatuari inongo zilegitasunik ematen egin duena egiteko, ez eta guztion ginetik pasatuz bere estrategia inposatzeko, are gutxiago herriaren izena horretarako erabiltzeko. Zerbait argi badago, herritarrek beste bide batetik joan nahi dutela da, baina ETAk entzungor darraie.

Gure ustez, egintza politikoak oinarri etiko sendo bat eduki behar du, proiektu politiko ezberdina dutenen askatasuna gutxiengo baldintza da eta, zer esanik ez, bizitzeko eskubidearen berme osoa. Ez du balio norberarendako aldarrikatzen diren eskubide eta aukerak besteei ez onartzeak eta, are gutxiago, indarrez zapuzteak.

Gainera, hainbeste urteren bueltan zerbait ikasi badugu da ETAk aukeratu duen bideak ez diola herri honi askatasun handiagorik ekarriko. Estatuaren indarkeria eta gehiegikeria ez dira indarkeriaz eta gehiegikeriaz konbatitzen, sufrimendua sufrimendu gehiagorekin sendatu ezin den bezala.

Indarkeriaren gupilean bueltaka-bueltaka gabiltza, inertzia buru gabe honetatik nola irten asmatu gabe. Armen zaraten artean ezin da herriaren hitza entzun, isildu daitezela betiko.

Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacioren izenak ez ditugu ahaztu nahi. Senide eta lagunei gure elkartasuna eta besarkada bero bat helarazi nahi diegu, euren negar samina azkena izan dadila!

Olentzeroren izenean, eskerrik asko, guztioi!

Jaione Arregi
(Arrasateko Olentzeroren izenean)
Arrasate

Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu aurtengo Arrasateko Olentzero prestatzen eta gauzatzen ibili diren guztiei, beraien esku-hartze gabe ezingo bailitzateke aurrera eraman ekimen hau.

Esker mila, batez ere, herritarren parte-hartze zabalari; gaiten eta txistuen soinuekin eguna alaitu zuten Arrasateko Gaitari eta Txistulariei; kantuez gozatzeko parada eskaini ziguten Goikobalu nagusi eta txikiei; Rakel, Iban eta Montseri, karrozan eginiko lanagatik eta SUDCi berau osotu izanagatik; gaztaina erre ederrak egi zituzten Zorion eta Joxeri;

Ataunetik Olentzeroren adarra utzi digunari; Patxiri, gure traktore gidari trebeena; plazan dantza egin zuten guztiei; eta, jakina, modu anonimoan ibili zineten guztioi; mila esker, eta Olentzeroren etorrera berri bat arte!

Agorrosin kiroldegiko tarifak

Arantxa Iturbe
Bergara

Ez dut gustuz idazten, baizik eta publikoki zerbait agertu beharra sentitzen dudalako. Azkeneko 15 urteetan, urtero-urtero familia-abonua hartu dut, eta dagoenetik abonua hau Debagoienekoa izan da. 2006ko kuota 175,00 euro ingurukoa izan zen, eta 2007rako kuota hau Oñati eta Arrasaten 180,60 eurokoa da.

Bergaran 2007rako nire familiarendako kuota minimoa (16 urtetik beherako 3 ume ditut) 534,50 euro kostatzen zait.

Esku artean dudak informazio orriak 2006ko urriaren 30eko plenoan onartutako tarifak direla esaten du, ez dakit zerk eragin duen Bergarako Udala abonua sistema guztia aldatzera, baina garbi dago aldaketa honek familiondako ez dakarrela inongo onurarik, baina bai izugarriko garestitasuna. Zer sentsibilitatek mugitzen ditu gure zinegotziak erabaki hauek hartzera.

Nire iritzian, igerilekua zerbitzu basiko bat da herritarrentzat eta ezin da hain garesti eskaini.

Zer eskatzen dut? Bergaran betidanik egon den bezala eta Oñati, Arrasate eta bailarako beste herriek eskaintzen duten bezala, zerbitzu minimo batzuk barne dituen eta familien presupuestora egokitzen den urteko kuota bat.

Keñua eiñ

Iñaki Mujika
Bergara

Joan da urtea, bere gauza on eta txarrekin. Momentu honetan ez zait bereziki ezer onik bururatzen, txarrak bai, barra-barra.

Hala ere, eta sarritan munduko arazo handien aurrean eragiterik ez dugula pentsatzen dugun arren, eguneroko keinu txikiekin gertukoan sufrimendua arintzea gure esku dago. Presoak bisitatzeko milaka kilometro egin behar dituzten lagunei ere zure elkartasuna agertzeko adibidez, Bergarako tabernetan aurkituko duzun zozketatxoan parte hartzea besterik ez duzu. Eiñ keñua!

Horra, horra, gure Olentzero!

Iñaki Barrena (Txistularia)
Arrasate

Olentzero etorri da gaur Arrasatera. Eta aurreko bi urteetan ez bezala lagun mordo batek lagunduta. Txundituta gelditu naiz; hainbeste laguntzaile izan zitzakeenik...

20 urtetan lehenengo aldia da Olentzero hesiaren beste aldetik ikusten dudana (aurreko bietan ez naiz Arrasaten egon) eta aitortu behar dut gaur ikusi dudana asko gustatu zaidala. Antolatzailerik lan txukuna egin dute eta gogoeta hau aprobetxatu

nahi dut guztiei zorionak emateko.

Gauza berriak ikusi ditut: kriseilu eta arranak makiletan zintzilik, haurrak –protagonistak azken finean– piztuko den suaren zain, gaztainagileak, aurkezle bat Olentzerorekin berbetan... Hala ere, nire iritziz garrantzitsuena parte hartu duen guraso mordo izan da.

Baina zer dela eta berpizkunde hau? Gogoratu nahi duenak badaki aurreko urteetan Olentzerok emandako itxura negargarria Udalarior zori zaiola. Legegintzaldi honetan orain gutxi arte Kultur zinegotzia izan denak erakutsitako jarrera inposatzaile eta iraingarriak herriko hainbat kultur talde Santamas eta Olentzeroren jaien antolatetarik baztertu zituen. Eta, Olentzerorena edozein baino jai herrikoia izanik, Udalak ezin izan du herritarren laguntzarik gabe ganorazko ezer antolatu. Ezta, iaz bezala, Kantabriatik 6 antortxero ekarrita ere.

Jarrera hau salatzen, hainbat taldek 2004tik uko egin diogu Udalarekin batera Santamas eta Olentzero jaiak antolatzeari. Hori bai, 22an eta 24an kalean izan gara beti, jakina!

Alkateak zinegotzi honen ardurak hartu dituenean ere, ez du egoerari itzulia emateko inolako ahaleginik egin eta bi aldean jarrerak zeudenetan mantendu dira. Azkenean, mugiezintasun honen aurrean, guraso talde horrek agertu eta hurrei merezitako jai ederra antolatuz erantzun du. Gaurkoan ere jai parte-hartzaileen garrantzia nabarmen gelditu da.

Datozen Gabonetan ez dira egongo ez alkatea –dagoeneko hauteskundeetan ez dela aurkeztuko esan du– eta ezta Kultur zinegotzia izan dena ere –edukitako hika-mika guztien ondoren ez dut uste behintzat–. Hau berri oso pozgarria da kultur talde gehientzako, datozenak datozela ere, aurpegi eta asmo berriak egongo baitira Udalean eta kultur taldeon iritzia eta lana aintzat hartuko duen taldea sartuko den esperantza pizten delako. Berriz ere, adostutako elkarlanerako garaia zabalduko ote da.

Gaurkoa ikusita, beste gauza bat gehituko dut Olentzeroren zerrendan: datorren urteetan ere aurtengo antolatzailerik erakutsi duten indarra eta borondatea izan dezatela. Eta, hauekin batera, azken hiru urteetan egon ez garenak ere hesiaren barruan egon gaitzela. Jai herrikoia eta parte-hartzaileak behar ditugulako.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Nolako gidaria, halako emaitza.

Gehien komeni zaizun inbertsioa aukeratzeko, gidari ona behar duzu. Ezagutzen zaituen eta zure premiak zeintzuk diren badakien norbaiten laguntza behar duzu. **kutxa**n, zure neurri-neurrirako irtenbidea aurkitzen lagunduko dizuten analistak eta aholkulariak ditugu. Zuretzako inbertsiorik aproposena aurkitzen lagunduko dizugu. Zatoz, eta elkarrekin egingo dugu bidea.

KUTXA INBERTSIO-IRTENBIDEAK. Erraza duzu asmatzen.



Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako Etengabeko Formazio Ikastaroak
LANEAN ARI DIREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK (%100-a subentzionatua)
URTARRILA - MARTXOA DENBORALDIA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

| Ikastaroak | Orduak | Hasiera | Bukaera | Ordutegia | |
|--|--------|------------|------------|-----------|-------|
| FABRIKAZIO ELEKTROMEKANIKOA (2. maila) | | | | | |
| Modulua : Fabrikazio mekanikoko makinaren prestaketa eta programazioa (275 ordu) | | | | | |
| CNC fresatzeko makinaren programazioa | 46 | 07-otsa-05 | 07-mart-06 | 17:00 | 20:30 |
| CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa | 46 | 07-mart-07 | 07-mart-29 | 17:00 | 20:30 |
| Modulua : Fabrikazio mekanikoko sistema osagarriak (110 ordu) | | | | | |
| Roboten programazioa | 20 | 07-mart-12 | 07-mart-21 | 17:00 | 20:00 |
| Modulua : Txirbil-harroketa bidezko fabrikazioa (300 ordu) | | | | | |
| CNC tornoko mekanizazioa | 50 | 07-urta-8 | 07-otsa-01 | 15:30 | 18:30 |
| METAL - ERAIKUNTZAK (2. maila) | | | | | |
| Modulua : Giro naturaleko soldadura (310 ordu) | | | | | |
| Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura | 80 | 07-urta-29 | 07-mart-05 | 17:00 | 21:00 |
| Modulua : Giro babestuko soldadura (215 ordu) | | | | | |
| Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura | 50 | 07-mart-12 | 07-mart-28 | 17:00 | 21:00 |
| TRESNERIA ELEKTRONIKOAK (2. maila) | | | | | |
| Modulua: Elektronika digitala eta mikroprogramagarria (200 ordu) | | | | | |
| Sistema digital sekuentzialak | 45 | 07-otsa-12 | 07-mart-28 | 18:30 | 20:30 |
| Sistema digital konbinazionalak | 45 | 07-urta-15 | 07-otsa-07 | 17:30 | 20:30 |
| Modulua : Telebista tresneria (170 ordu) | | | | | |
| Telebista-seinaleak banatzeko sistemak muntatzea eta mantentzea (sist. TDT eta sateliteak) | 80 | 07-otsa-05 | 07-mart-21 | 17:00 | 20:30 |
| SISTEMA ETA TRESNERIA ELEKTROTEKNIKOAK (2. maila) | | | | | |
| Modulua: Elektroteknia (150 ordu) | | | | | |
| KZ eta Kako zirkuituak | 45 | 07-otsa-05 | 07-mart-07 | 15:30 | 18:30 |
| Oinarrizko elektronika analogikoa | 50 | 07-mart-08 | 07-mart-30 | 15:30 | 18:30 |
| AUTOMOZIOA (2. maila) | | | | | |
| Modulua : Motorrak (160 ordu) | | | | | |
| Aldiko diesel motorrak. Mantentzea, egiaztapena eta konponketa | 40 | 07-urt-22 | 07-otsa-13 | 17:30 | 20:30 |
| Modulua : Motorraren sistema osagarriak (270 ordu) | | | | | |
| Gasolina-motorren elikadura- eta pizte-sistema elektronikoak. Mantentzea, egiaztapena eta konponketa | 60 | 07-otsa-26 | 07-mart-29 | 17:30 | 20:30 |

Kurtso horiei eta ondorengo hiruhilabetekoei buruzko informazio gehiago eta inskripzioak IEFPS Aretxabaleta GLHBI, Etexbarri auzoa, z/g Tfn.: 943-79 79 00. www.iaretxabaleta.com, ia@iaretxabaleta.com.

Etexbarri auzoa, z/g - 22 • Postakutxa 20550 ARETXABALETA (G)
Tels.: 943 79 79 00 / 943 77 09 55 • E-mail: ia@iaretxabaleta.com
Web orria: www.iaretxabaleta.com



Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

DORLETA EGUIARA FDEZ-RIVERA
ARRASATE / Arrasate Pasealekua 16 - 1D
T: 636 38 69 87 / 943 79 58 80
deguiara@yahoo.es

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ASEGURUAK
GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA
ARRASATE / Antso Abarca 6
T: 943 79 59 81
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK

EGUREN
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Haurdun daudenendako segurtasun uhalen mailegua > 18



> **BERGARA**
Bi lokal zozkatuko dituzte etxebizitza moduan erabiltzeko > 25



> **ANTZUOLA**
Zabalo alkateak udal egitasmoen berri eman zuen *Debarri* saioan > 36



> **ARAMAIO**
Udal aurrekontuko partidarik handiena Eguzkierripa auzorako > 38

ARRASATE > KALE ERASOA LA CAIXA-REN AURKA

Apurka-apurka egunerokotasunera bueltatzen dabilta arrasatearrak

BIZILAGUNAK

Atzo, eguena, bueltatu ziren azken bizilagunak etxera

ZAURITUA, HOBETO

Ambrosio Fernandez ospitalean dago, baina hasi da tratamenduari erantzuten

DENDAK

Loramendik beste lokal baten likidazioa egingo du; Ume gaur ireki dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Atzo, eguena, bueltatu ziren etxera La Caixaren kontrako kale erasoaren ondorioz kaltetutako azken bizilagunak, Maite eta Jaione Urrutia. Guztira, 47 lagun iritsi ziren Hotel Mondragonera zapatu goizaldean; izan ere, ezezagun batzuek Garibaiko La Caixako bulegoari eraso egin eta hark su hartu zuenean, etxetik atera egin behar izan zituzten.

Txagorritxun arnas arazoengatik ospitaleratu zuten Ambrosio Fernandez arrasatearraren egoera, berriz, hobetzen doala jakinarazi du Inazio Lakuntza alkateak, nahiz eta oraindik ZIUn (Zainketa Intentsiboetako Unitatea) egon: "Haren emaztea nahiko lasai ikusi genuen eta adierazi ziguten hasi dela tratamenduari erantzun ona ematen eta nahiko egonkor zegoela. Alde horretatik, lasaiago gaude. Dena den, 79 urte ditu, gaixotasun larriak izan ditu eta laugarren solairutik jaitsaraztea, kea arnastea eta kalean ez dakit zenbat denbora egoteak ez zion batere onik egingo."

LA CAIXA: 3 HILABETE ZABALTZEKO
Suak eta keak kaltetutako Roneoko etxeen konponketak ere bide onetik doazela jakinarazi du Inazio Lakuntzak: "Gas-instalazioa konponduta dago. Baina, besteak



ETXEAN Arantza eta Fermin pozik bueltatu ziren etxera hainbat egun Mondragon Hotelean egin eta gero.

XABIER URTZELAI

beste, etxearen aurreko aldea margotu egin beharko dugu. Bestalde, La Caixakoek bulegoa zabaldu dute; Portalioian lokala hartu eta harritzekoa da zein bizkor egokitu duten". Dena den, bulego hori behin-behinerakoa izango da. Deba-Urolako La Caixako ardura-dun Ane Carracedok esandakoaren arabera, Garibai etorbidean zuten bulegoa goitik behera berri-tu beharko dute, bulego berria egingo balute bezala, eta horretara

rako hiru hilabete behar izaten dituztela adierazi zuen.

32 SALAKETA ERTZAIANTZAN

Salaketei dagokienez, GOIENKARIAK batutako azken datuen arabera, 32 salaketa aurkeztu dituzte orain arte Ertzaintzan eta ez dituzte askoz gehiago espero. Kalte gehienak keak eragindakoak izan direla ere esan dute Bergarako komisariatik, "etxebizitzetan kea, dendetan kea eta kedarra

(hauts beltza) eta urak kaltetutako garajeen gaineko salaketak ere aurkeztu dituzte".

Salaketak Auzitegi Nazionalera bideratuko dituzte: "Ez dakigu zenbat denbora beharko duten erantzuteko". Dena den, kaltetuek kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dute: "Salaketa aurkezten dutenean informazioa ematen zaie, terrorismoaren biktimendako Jaurilaritzako arreta bulegoaren bitartez erreklamazioak zela egin

Alderdi politikoek gaitzespen eta elkartasun mezuak bidali dituzte

Batasunak izan ezik, gainerako alderdiek eraso gaitzetsi dute. Bestalde, gainerako alderdiek moduan, Batasunak ere elkartasuna adierazi die kaltetuei. EAJren ustez, "inoiz baino garrantzitsuagoa da itxaropena mantentzea eta gatazken konponbiderako tresna bezala elkarrizketaren aldeko apustua egitea". PSE-EEren ustez, "indarkeriaren aurrean batasun demokratikoa bultzatu behar da eta ETaren aurrean, sendotasuna"; bakearekiko konpromisoa berretsi du, besteak beste. Bestalde, EAK ez du onartzen "halako ekintzarik"; "uste dugu beste modu batean konpon daitezkeela gauzak. Elkarrizketaren aldeko apustua egiten dugu".

PPk dio eraso "ekintza terrorista" izan dela eta salatu du berba hori Udalak erabili ez izana. EBren ustez, eraso hau "askatasunaren eta bakearen kontrakoa" izan da; eskatu dute halakoak geratzeko "euskal gizartearen gehiengoak eskatzen duelako". Aralarrek, berriz, dio "bakerako eta bizikidetzarako traba baino ez direla" halakoak. Bukatzeko, Batasunak dio "gertatutakoak erakusten duela gatazkaren konponbidean aurrera egin behar dugula, euskaldunok jasaten ditugun eskubide urraketak ebitatzeko"; gatazka gainditzeko eta indarkeria mota guztiak desagertzeko lanean segitzeko konpromisoa ere erakutsi du.

DATUA

32

Salaketa jaso ditu Ertzaintzak orain arte eta ez dituzte askoz gehiago espero. Etxebizitzetan izandako kalte gehienak keak eragindakoak izan dira; garaje batzuetan, berriz, ura ere sartu zaie eta dendetan, kedarra.

behar dituzten jakin dezaten; baita aseguruekin egin beharreko tramiteen gainekoa ere".

UME DENDA GAUR ZABALDU DUTE

Garibai etorbidean dauden Ume eta Loramendi Kirolak dendak ere badabilta normaltasunera bueltatzeko ahaleginetan.

Umek, adibidez, gaur zabaldu ditu ateak, eta dendako genero guztia ipini du salgai %60-70eko behe-rapenekin: "Usaina eta kedar apurtxo bat bakarrik dute eta garbigailuan garbituta nahikoa dela pentsatzen dugu. Horregatik salduko ditugu beherapen handiarenkin". Denda bere onera ekarri dute dagoeneko; baina GOIENKARIARI esandakoaren arabera, peritua kalteen balorazioa egiten dabil oraindik.

LORAMENDIK, KALTE HANDIAK

Loramendi Kirolak denda, berriz, Caixako bulegoaren ondoan dago eta kalte handiak izan dituzte, Itziar Uriarte ugazabaren esanetan. Aurreikusten dute hilabete-edo beharko dutela Garibaiko denda bere onera bueltatzeko: "Obra handia dugu egiteko. Orain sabaia botatzen dabilta, berri-berria zen aire egokituaren sistema guztiz kiskali zaigu; denda margotu egin beharko dugu...".

Bitartean, keak eta kedarrak kaltetutako generoa likidatu egin gura dute eta Erdiko kaleko lokal bat egokitzen dabilta, lehen Nerea denda zegoen lekuan. Dena den, ez dakite noiz zabalduko duten: "Peritua oraindik ez zaigu etorri eta haren zain egon behar dugu ezer egin aurretik. Dena den, ahal badugu zapatuan zabalduko dugu, eta bestela hurrengo astean".

kale inkesta

Beherapenak aprobetxatzeko ohiturarik baduzu?



Clotilde Romero
Etxeoandrea
Arrasate

Jeneralean ez naiz beharapenetara joaten; behar dudana denboraldiaren barruan erosten dut, eta kito. Noiz edo noiz joan izan naiz beharapenetara, baina behar dudana bakarrik erosten dut.



Maria Antonia Galdos
Langilea
Arrasate

Zerbaiten beharra baldin baduzu, ondo iruditzen zait beharapenetan erostea, baina ni neu ez naiz joaten beste barik gastatzera, joaten naiz zerbait erosteko asmoa baldin badaukat.



Amaia Lazkano
Langilea
Arrasate

Larregi gastatzen dugula pentsatzen dut; ni joaten naiz eta beti *pikatzen* dut zerbait. Bestalde, zerbait behar badut, batzuetan itxaron egiten dut beharapenak iritsi arte.



Justo Altzua
Langilea
Arrasate

Aprobetxatzen ditut. Are gehiago, pentsatzen dut sasoi hau itxaron egiten dugula. Eta ez guk bakarrik, baita dendariak ere. Nire kezka da ea ez duten lehenago prezio altuak ipiniko gero jaisteko.



Iñaki Egizabal
Langilea
Tolosa

Ez, ez naiz sarri joaten; opariak aurreko egunetan erosi behar dira, eta hor sartuta ibiltzen naiz. Tokatu izan zaizkidanean beharapenak nik jakin barik, ikaratu egin nau pilatzen den jendetzak.

5 galdera...

Amaia D. de Monasterioguren

Dietista
Oñati

1. Gabonetan egin dugu jan eta edan, lehertu arte. Orain, zer?

Orain egin behar duguna da porru-patatetara, arraina plantxara eta halakoetara jo, soberakinak alde batera utzita.

2. Hortaz, orain eguneroko jakietara itzultzea komeni da...

Beti esaten da Gabonetarako prestatu egin behar dugula. Hala, Santa Luzia egun inguruan, egun pare batean-edo, komeni da gorputza garbitzea. Orain, berriz, barazki egosiak, pureak, saldak... lehenengo plateretan sartzea komeni da eta bigarreneko ahal den jaki garbienak: arraina, oilaskoa, haragia plantxan... Frijituak eta alde batera utzi behar ditugu.

3. Baina ez dugu zertan jakiren bat kendu menutik?

Ez, antsietatea sortuko genukeelako. Asko jan dugu egun hauean eta bat-batean egiten badugu baraualdia edo saldarekin bakarrik ibiltzen bagara, hurrengo jatorduan gose handiagoa dugu.

4. Egiguzu, bada, menu bat egun hauetarako egokia dena.

Gomendatzen da ondo gosaltzea, betiko moduan: hasiko gara limoi-urarekin, zitriko horrek egiten du diuretiko lana; gero esneki bat hartuko dugu eta zereal bat, ogi pusketa bat edo gailleta simple batzuk; goiz erdirako eta meriendarako fruta; bazkaltzeko, berriz, salda diuretiko: litro bat ur, kipula, perrexil eta porruakin; lehenengo platererako barazkiak eta bigarren platera ahal den koipe gutxiarekin. Afariak, berriz, urte osoan izan behar dute arinak, berandu afaltzen dugulako eta laster ohera goazelako. Sartuko genuke tortilla, edo arraina plantxan, egosita edo oso olio gutxiarekin. Frutarekin ere egin dezakegu.

5. Likidoak gehitzea ere komeni izaten da hala-koetan, ezta?

Bai. 6-8 baso ur edan behar da (infusioa edo salda gauza bera da), gatz gehiago jan dugu, tentsioa desorekatu zaigu pittintxo bat...



txaloak eta txistuak



LARRAITZ ZEBERIO

Oinezkoendako bidea, pasabide barik



Elgetako industrialdean oinezkoendako pasealekua dute. Bada, irakurle batek kexua helarazi digu esanez puntu batean errepidea gurutzatu egin behar dela pasealekuan jarraitzeko, baina ez dutela ez zerbait ezta beste segurtasun neurriarik ipini.

ustek uste

Iker Barandiaran

Ulertezinak dira gauza asko

Ez dut ulertzen ETak pasa den urte bukarran hartutako erabakia. Ez dut ulertzen, ezta ere, Arrasateko La Caixako eraikinean egindakoa. Ez behintzat bake prozesu eta normalizazio politikoaren ahaleginetan. Herritarrei zuzenean kalte egiten dieten ekintzak helburuaren kalterako bihurtu dira, eta kapitalismoaren kontrako baloreak zeharo galduta daudela uste dut.

Ez dut ulertzen, ezta ere, gobernuan dagoen PSOEek konponbidearen bidean egindako ahalegin hutsala. Horra hor, Iñaki de Juana-ren kasu larria, ni neu herritar moduan eta are gehiago kazetari izanda onartu ezin dudana; adierazpen askatasuna zeharo anulatu du. Epaitegietan eta espetxeetan ere su etena jakinarazi zutenetik ez da *talante* izpirik sartu.

Zaila bada ere, Irlandako gertuko adibidera begiratu beharko dugu, han ere oztopo ugari egon zirelako eta daudelako.

Eta pentsatu beharko dugu hemen ere prozesua luzea eta oztopoz bete izango dela, baina ahalegin-uz gero bidea dagoela. Elkarrizketak berrartzea da dagoen bide bakarra. Ez dago besterik. Hobe dute guztiek lanean jarraitzea edo hastea.

asteko datua

9

Oraingo astean bukatu da EAEko epaitegietako greba. Joan den urrian hasi zuten. Greba horren ondorioetako bat da epaitegietako lana atzeratu egin dela; hain justu, zortzi edo bederatzita hilabete beharko dute eguneratzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

ARRASATE > BIDE HEZKUNTZA

50 haurduni mailegatu egin dizkie Udalak autorako segurtasun uhalak

BIDE HEZKUNTZA

Bide hezkuntza lantzen du Udalak; horren barruan mailegatu ditu segurtasun uhalak

18 GERRIKO

Joan den astean erositako gerrikoekin, orain 18 uhal ditu

IMI-N

Arrasate pasealekuko IMI-ko bulegoetan mailegatu dituzte

UBANE MADERA > ARRASATE

Orain dela hiru urte hartu zuen Udalak bere gain bide hezkuntza lantzea. Eta bide hezkuntzaren barruan, iaz abiarazi zuen ibarrea: haurdunegi segurtasun uhal bereziak mailegatu, autoan ibiltzeko. "Izaten da mailegu mota bat doakoa, nahiz eta 40 euroko fidantza ipini behar duten apurtzen edo galtzen bada, berria erosteko. Uzten zaio emakumeari bere haurdunaldiak iraun bitartean, eta uhala bueltatzen duenean, fidantza bueltatzen diogu", argitu du bide hezkuntza-



AZPIAN Haurdunendako segurtasun uhalak lotu behar dira triparen azpian; argazkian, haurdun dagoen emakume bat gerriko berezia ipintzen.

GOIATZ ARANA

ren arduradun Zigor Andino udaltzainak. Haurdun egoteaz gainera, uhal hori eskatzeko baldintza bakarra Arrasaten erroldatuta egotea dela ere esan du.

FETUA BABESTEKO

Segurtasun uhal hori berezia da, fetua babesten duena: "Segurtasun

uhalaren azpiko aldekoa ipiniz gero triparen gainean (eta hori egiten dugu gehienetan), istripu bat izanez gero, gerta daiteke fetuaren bizkar hezurra apurtzea. Segurtasun gerriko hauek egiten dutena da azpiko banda hori behera eraman eta segurtasun gerrikoa ez da triparen gainean geratzen; hala fetua salbu dago", dio Andinok.

Dena den, legeak ez du derrigortzen uhal horiek erabiltzea: "Ez daude behartuta honako hau eramatera, baina betiko uhala eramatera bai. Hortaz, bestea erabiliz gero, arazoak gerta daitezke. Hala, guk gomendatzen dugu edo guregana etor daitezela uhalaren bila edo eros dezatela". Merkatuan 35-40 euroren artean balio dute halako uhalek.

18 UHAL, 50 EMAKUME

Iaz hasi ziren Arrasateko Udalean segurtasun uhalak mailega-

tzen: "Martxoan hasi ginen. Joan den astera arte 10 uhal bakarrak genituen eta guztiak izan ditugu mailegatuta. Orain, berriz, beste zortzi uhal erosi ditu Udalak, beraz, 18 ditugu", kontatu du udaltzainak.

Hark esan duenez, berriz, izandako mailegu kopurua oso

altua izan da. "50 bat emakumek hartu dute parte".

Uhal bat behar duenak zera egin behar du: "13:00etatik 14:00etara IMIra etorri eta utziko diogu. Guztiak mailegatuta baditugu, itxaron zerrendan apuntatuko dugu eta libre dagoenean telefonoz abisatuko diogu".

BIDE HEZKUNTZA

Gaur egun gertatzen diren istripuen %70-90 giza faktoreek eragindakoak dira

Bide hezkuntzarako plana egin zutenean, Udalean ikusi zuten daudela hiru arrisku talde: umeak, hirugarren adinekoak eta haurdunak. Hori abiapuntu moduan hartuta lantzen dute bide hezkuntza: "Ikastetxeetan eskolak ematen ditugu; erretiratutakoei ere bai, lau egoitzetan, eta hirugarrenik, haurdun zeuden emakumeei ospitalean bertan hilean behin hitzaldiak emateaz gainera pentsatu genuen halako laguntzak ere ematea".

Orain dela hiru urte hasi zen Udala bide hezkuntza lantzen. Ordura arte, Ertzaintza etortzen zen, ikastetxeetara, adibidez.

Bide hezkuntza lantzen hasteko arrazoiak, berriz, istripu kopuru altua da: "Istripuen %70-90 giza faktoreek eragindakoak dira".

GIDARI TXARRAK

Zigor Andino: "Gidatzen dugu etxeko sofán eserita egongo bagina bezala"

Udaltzainak egiten duen kritika nagusia hori da: "Autoan esertzen gara sofán eserita egongo bagina bezala. Ez dugu kontuan hartzen autoa makina indartsu bat dela, bere arriskuak dituela... Horrenbeste ohitu gara autoetara beldurra eta errespetua galdu egin ditugula". Oinezkoekin ere gauza bera gertatzen dela pentsatzen du Andinok: "Ohitu egin gara inguruan autoak izaten eta ez dugu begiratzen ea badatozen, ez datozen, zer egiten dugun... Ohituta gaude zirkulazio bako lekuetan moduan ibiltzen". Bestelakoan artean, Andinok gogorarazi du iaz hiru hildako izan zirela Arrasaten, autoak harrapatuta. Oro har, oso gidari txarrak garela dio udaltzainak, eta gogorazi du gidatzerakoan garrantzitsuenak arreta ez galtzea dela.



BEDONABE HAURRESKOLA

Alfonso VIII kalea, (San Andres auzoa) ARRASATE

(2005ean jaiotako umeendako)
Matrikulazio epea zabalik

Noizko: martxoan sartzeko
Noiz: urtarrilaren 15etik 24ra
Non: Arrasateko Bedonabe Haurreskolan
Tel: 943 79 76 86





LIBURUTEGIA Kultura etxe berrian hasi dira zenbait altzari sartzek; argazkian, liburutegirako altzari batzuk. JONE INUNTZIAGA

UDALA > ALKATEAREKIN ELKARRIZKETA ARRASATE IRRATIAN

Lehenengo langileak badoaz kultura etxera

Zabaletan merkataritza-gunea sortzeko herriko merkataritzan izango duen eragina aztertzeko txostena bideratuko duela esan du alkateak irratian

UBANE MADERA > ARRASATE

Kultura etxea laster inauguratu dute. Hango lehenengo langileek, Kultura, Euskara eta Hezkuntza Saileko udal teknikariek, datorren astean egingo dute lekualdaketa. Hala jakinarazi du Inazio Lakuntza alkateak Arrasate Irratian oraingo astean.

Horren harira, Kultura teknikari Jon Garaik aurreratu du Monterron 22an itxiko dutela, bizpahiru astean, liburutegiko materiala eraikin berrira eramateko.

"UNERIK TXARRENAK"

Bestalde, bere jardunaren gaineko hausnarketa ere egin zuen Lakuntzak irratian. Bestelakoan artean, adierazi zuen bere buruarekin "nahiko lasai" dagoela; baina Gelmaren gaineko auzia "oso itsusia" izan dela, eta hori dela-eta

sufritu duena "oso gogorra" izan dela: "Nire bizitzako unerik txarrena, duda barik", gaineratu zuen.

ZABALETA, MOTEL

Zabaletako merkataritza-gunearen gainean ere jardun zuen. Esan zuen haren prozedura administratiboa abiarazita dagoela. Gogorarazi zuen Egitamu Orokorrean Zabaletako gunearen gainean jasota dagoen definizioa lehenagoko agintalditik datorrela: "Guk ez dugu ezer aldatu". Hori horrela, Egitamuak dio Zabaletaren jabeek "eskubide osoa dutela gune hori garatzeko; eta aurkeztu dute PERIa (plan bat) horretarako". Jakinarazi zuen orain udal teknikariak dabilzala aztertzen ea eskaerak beharrezko arau guztiak betetzen dituen, eta, horrez gainera, Udalak bideratuko due-

la txosten bat aztertzeko zein eragin izango duen merkataritza-gune horrek herriko merkataritzan. Hori guztia esku artean dutenean emango du Udalak Zabaletako proposamenaren gaineko erantzuna. "Erabakia oraindik ez dago hartua, baina dena betetzen badute, gure aldetik aurrera egin behar dugu. Gero, jendaurrean ipini beharko da eta osoko bilkurak onartu beharko du, gehiengo osoarekin. Hortaz, gauzak ez daude oso garbi".

Abenduko osoko bilkuran Egitamua aldatzeko onartu zen mozioaren gainean, berriz, esan zuen gehiengo sinplearekin onartu zela, eta Egitamua aldatzeko gehiengo osoa behar dela. Bestetik, gogorarazi zuen Egitamua aldatzeko prozedurak luze joko lukeela, "gutxienez, urte bat behar duzu, eta agintaldi honetan ez dago horretarako astirik".

Halaber, gogorarazi zuen Udalak ez ezik Aldundiak eta Jaur-laritzak ere badutela Zabaletaren gainean zer esana.

UDALA > SEGURTASUN NEURRIAK

Udaletxera sartzeko udaltzainek identifikazioa eskatuko digute bisitariei

Hiru ate daude udaletxera sartzeko; herritarrak bakarrik sartu ahalko gara Udaltzaingora joateko atetik, eskumakotik

atea, Udaltzaingora joateko erabiltzen duguna. Gero, Udaltzaingoa nortasun agiriren bat erakutsi beharko dugu. Eta hori egin eta gero, udaletxerako sarrera mugatzeko ipini duten hesia, Udaltzaingoa eta sarrera nagusiaren arteko gurutzatu beharko dugu. "Orain arte hori egitea oso deserosoa zen, jende asko etortzen zelako udaletxera, baina orain, BAZi esker bisitari kopurua nabarmen jaitsi denez, egin dezakegu. Kontua da orain arte etxe honetara sartzeko libre samar egon dela", esplikatu du Udaleko pertsonal-buru Jose Mari Erañak.

U.M. > ARRASATE

Biztanleen Arreta Zerbitzuak (BAZ) aldaketa dezente eragin ditu udaletxean. Bestelakoan artean, orain askoz ere herritar gutxiagok joan behar dute eraikin nagusira, BAZen bideratzen dituzte-eta Udalarekin egin beharrekoak.

Hori horrela, aurrerantzean udaletxeko segurtasun neurriak indartu egingo dituzte. Hiru neurri ezarriko dituzte: udaletxera sartzeko, bisitariak bakarrik erabili ahal izango dugu eskumako aldean dagoen

Udaletxeko langileak, berriz, ezkerreko atetik sartuko dira; orain arte artxibora joateko erabiltzen genuen atetik.

Eta hirugarren atea, ate nagusia bakarrik zabalduko dute ekitaldi berezietarako, orain arte egin duten moduan.

ORDUTEGI BERRIA

Lan-jardun intentsiboa egiten dabilza udal langileak: 08:00etatik 15:00ak arte

Biztanleen Arreta Zerbitzuak ekarri duen beste aldaketetako bat da udaletxearen ordutegia: intentsiboa da orain, 08:30etik 15:00ak arte, egunero (lehen egubakoitzetan zuten ordutegi hori). Gabonetan ezarri zuten: "Langileen aspaldiko eskaera da lan jardun intentsiboa egitea, baina herritarrendako arreta bulegoa zabaldu arte beti ezezko erantzuna eman zaie, zerbitzu publikoa izanda herritarrei arreta zerbitzua eskaini behar genielako. Orain, berriz, BAZek egiten du lan hori. Beraz, gure ordutegi berriak ez du ia eragingo herritarrengan; bakarrik udal teknikariren batekin berba egin behar dutenean", dio Erañak. "Dena den, zenbait langilek betebeharrak bereziak ditugu eta ordu gehiagoan egon behar dugu; zinegotziak ere askotan arratsaldean etortzen dira eta batzar batzuek ere arratsaldean egiten segituko dugu", gaineratu digu Udaleko pertsonal buruak.

> EMAKUME TXOKOA

Ahotsak bilgunea gonbidatu du Emakume Txokoak urtarrilaren 25ean hitzaldia egiteko

Emakumeak batzen gaituenetik izenburua duen hitzaldia egingo dute emakumez osatutako Ahotsak bilguneko ordezkariak Arrasaten. Urtarrilaren 25erako, eguna, egin dute hitzordua, 18:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Emakume Txokoak datozen hiru hilabeteotarako aurkeztutako egitarauaren barruan iragarri dute hitzaldia.

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

% 60-70

UNE

Umeen moda

Garibai etorbidea 6. Tel: 943 79 97 86

ANTZERKIA > GORAKADA TALDEAREN 'ROBIN ETA HOOD' ANTZEZLANA

Robin Hood-en abenturak antzeztuko dituzte familia guztiarendako

Familia osoari zuzendutako abenturazko antzezlana, zapatuan Amaia Udal Antzokian

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Aspaldiko partez, ume eta gaztetxoendako moduko antzezlana eramango dute Amaia Udal Antzokira. Bihar, zapatua, Gorakada taldeak *Robin eta Hood* antzezlana egingo du, euskaraz. Emanaldi hori 17:00etan izango da, eta jakinarazi digute ikuskizuna 5 urtetik gorako guztiendako dela.

Gorakada taldeak Sherwoodeko heroiaren istorioan oinarritutako antzezlana asmatu du. Jokin Oregik idatzi du gidoia eta hura da zuzendaria. Aktoreak, berriz, Izaskun Asua, Susana Soletto eta Jose Cruz Gurrutxaga dira, hain zuzen ere.

AKTOREAK ETA TXOTXONGILOAK

Ikuskizun horretan Gorakada taldekoek aktoreen interpretazioa eta txotxongiloak batuko dituzte. Azken horiek, txotxongiloak, hainbat teknikaren bidez mugituko dituzte.

Protagonista nagusia Robin izeneko XII. mendeko nekazari gaztetxoa da. Oso pobrea da eta amarekin bizi da, baina aitak, hil

aurretik, irakurtzen eta idazten irakatsi zion. Robinek berak asmatutako heroi baten abenturak idazten arituko da, eta idatzi horiek erresuma guztian zabalduko dira.

Juan Sin Tierra errege krudelak istorio horren idazlea espetxeratu egin gurako du. Hala, Robin gaztetxoa basoan ezkutatuko da, eta beste lagun batzuekin kontra egingo dio erregeari.

ESKARMENTUA DAUKAN TALDEA

Iaz Gorakada taldeak *Jim, en la isla del tesoro* ikuskizuna egin zuen, gaztetxoenei zuzenduta. Europako Feten jaialdian hiru sari eskuratu zituen, eta oso harrera ona izan zuen.



MOLDATUTAKO KONTAKIZUNA Gorakada taldea Robin Hooden kondairan oinarritu da antzezlana idazteko.

GORAKADA



GOIKOBALU

Goikobaluko gaztetxoek, bi sari

Goikobalu abesbatzak hainbat sari eskuratzen dihardu. Nagusienek izen handia dute, baina harrobia ere gogor dator. Horren erakusle dira abesbatzako talde txikiek Errenteriako Gabon Kantuen Txapelketa lortutako garaipenak. Umeen sailean, Goikobalu B taldeak urrezko saria lortu zuen; eta Goikobalu Ak brontzekoa. Talde horien zuzendariak Amaia Aboitiz eta Rakel Murgiondo dira.

> MUSIKA

Gose eta Raul Lasak kontzertua egingo dute elkarrekin bihar, zapatua, 3.60 aretoan


Arrasaten sortutako Gose taldeak harrera beroa izan du hainbat lekutan. Bada, trikitia eta elektronika batzeko proiektua Arrasatera itzuliko da zapatuan. 3.60 aretoan arituko dira Ines, Iñaki eta Tadeos, 23:00etan. Horren aurretik, baina, Arrasatek berak eman duen bakarlarri berezi bat arituko da: Raul Lasa Ugartondo.

> EUSKARA

Ipuin kontaketa egingo dute eguenean AEDko txokoan, Zahar Berri elkartearen eskutik

Euskaldun berriei euskaraz berba egiteko baliabideak ematen dizkien Zahar Berri elkarteak ipuin kontaketa egingo du eguenean AEDko txokoan. Olatz Pagaldai izango da horren arduraduna eta bi saio egingo ditu: bata, 10:00etan; eta bestea, 18:00etan.

Bestalde, jakinarazi digute euskaldun berri eta euskaldun zahar gehiagoren premian daudela. Interesatuok, jo AEDra.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Laster GIDA 2007 zure etxean!

Gida osatuena
erabilgarriena eta berriena.

Zure herriko
denda eta enpresen
telefonoen gida.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



GRINA Zuzendaritza taldeak duela urte batzuk saskibaloiarekiko zegoen grina berreskuratu nahi du.

JOKIN ETXEBARRIA

SASKIBALOI> ASPALDIKO PARTEZ 100 HAUR BAINO GEHIAGO DAUDE KLUBEAN JOKATZEN

Proiektua sendotzeko nahiarekin estreinatu dute lokala Ointzekoek

Historian lehen aldiz, junior eta kadete mailako taldeek Gipuzkoako txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte, oraingo zapatuan hasita

JOKIN ETXEBARRIA> ARRASATE
Gustura daude Ointxe Arrasate Saskibaloitako taldekoak lan egiteko leku egokia lortu dutelako Musakolan. Lehenengo zaharren egoitza kiroldegitik gertu egoteak abantaila handiak ditu lan egiteko orduan, eta zuzendaritzakoak gustura zeuden lortutakoarekin. Udalarekin ekain aldera hasi ziren negoziatzen, eta azkenean akordio batera heldu dira. Eskubaloitako taldeei lokal berria jarriko die Iturripen Udalak, baina, bitartean, Musakolako zaharren egoitza ohian lan egin ahal izango dute Ointzekoek. Saskibaloitako taldekoek, gainera, ez dute lokal berria estreintzeko presa handirik, Jon Basurko presidentek adierazi zuenez: "Daukagun egoitza hau bikaina da lan egiteko, eta, talde gehie-

nek Musakolan jokatzen dute, errazagoa da guretzako bertan lan egitea".

PROIEKTUA SENDOTU

Zuzendaritza berria sartu zenez, Arrasaten saskibaloitako berriz ere gorakada edukitzeko nahiarekin ibili dira lanean klubean. Orain, beste aurrerapauso bat eman dute. Jabi Zurbano, urteak kanpoan eman eta gero, klubera itzuli da kirol zuzendari lanak egitera. Zurbanoren hitzetan, duela 15 urte lortzen ez zen gauza bat lortu dute aurten: klubean 100 mutikotik gora saskibaloian jokatzen ibiltzea. "Horrek esan nahi du saskibaloiarekiko zaletasuna badagoela Arrasaten, eta mutil horiek lan egin beharra dago". Harrobiarekin egin nahi dute lan zuzendaritzakoek,

euren proiektuaren oinarriak horrek izan behar duela uste dute-eta.

HITZORDU HISTORIKOA

Bide batez, zuzendaritzakoek janarazi nahi izan zuten hitzordu historikoa gertatuko dela oraingo aste bukaeran. Klubaren historian lehen aldiz, junior eta kadete mailako taldeek Gipuzkoako txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte. Eta, haiek irabaziz gero, Euskadiko txapelketa jokatuko aukera izango dute bi taldeek. Junior mailakoek finalerdietako lehen partidua Azpeitian jokatuko dute Iraurgiren aurka, zapatuan, 11:30ean. Kadeteek, berriz, etxean jokatuko dute lehen partidua: Iturripen izango da, Easoren aurka, zapatuan, arratsaldeko lauretan hasita.

ATLETISMOA

Anoetan itxura polita eman zuten gure atletek

Hainbat hitzordu aste honetarako; Mugertza Memoriala, besteak beste

J.E.> ARRASATE

Aurreko astean, Gabonetako ajeak kentzeko asmotan, hainbat proba libretan parte hartu zuten Arrasate Atletismo Taldekoek Anoetan. Gehienak euren markak hobetzeko asmoarekin joan ziren; batzuk, baina, Espainiako txapelketan parte hartu ahal izateko marka bila.

Hala, Lander Errastik Sevillan jokatuko den txapelketarako minimoa lortu du dagoeneko, 4,30 metroko markarekin. Jonathan Perezek, berriz, bost metro salto egitea beharrezkoa du eta denboraldiko lehen saiakeran, 4,90 egin zuen salto Anoetan. Iñaki Etxagibelek bere marka hobetu zuen 60 metrokoan: 7,29tik 7,25era jaitsi du.

HITZORDUAK ASTE BUKAERAN

Oraingo aste bukaeran, Elgoibarren hitzordu garrantzitsua egongo da, krolean: Mugertza Memoriala. Bertan, Martin Berrizbeitia eta Markel Blanco arrasatearrek hartuko dute parte.

Baina ez da hori hitzordu garrantzitsu bakarra izango. Izan ere, Anoetan, pista estaliko Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute asteburuan, eta Arrasate Atletismo taldekoak ere bertan egongo dira. Pertikan, Lander Errasti eta Jonathan Perez arituko dira. Luzera saltoan, Oihana Urtzelai Arrasateko errekorrean bila joango da eta Remi Diosdado, Iñaki Etxagibel, Jon Ander Amado eta Imanol Esperesatek askotariko probatan hartuko dute parte.

Bestalde, beteranoak Muskizen izango dira; izan ere, Euskadiko txapelketa jokatuko dute.

futbitoazaldibar

EMAITZAK (KOPA)

| | |
|-------------------------------------|------|
| McAwan Dauen - Iluntz | 4-5 |
| Lasagabaster - Equis | 5-3 |
| Abokajarro - Omu Dribling | 3-5 |
| Man. Pippol - Iturriotz Taberna | 6-9 |
| Saukelu Abian - Billy & The Cowboys | 9-6 |
| THC - HLB 108 | 8-4 |
| Cicatrús - Betraye | 2-10 |
| Iriztu Taberna - AT Celaya | 1-8 |

PARTIDUAK

| | |
|---------------------------------|----------------|
| Urtarrilak 13, zapatua | Epaipeak |
| 09:50 Betraye - Cicatrús | Iturriotz Tab. |
| 11:00 Iturriotz - McAwan Dauen | Cicatrús |
| 12:00 Lasagabaster - Iluntz | McAwan D. |
| 13:00 AT Celaya - HLB 108 | Lasagabaster |
| 15:50 Saukelu Abian - Equis | Dublin |
| 17:00 Dublin Irish Pub - Cipris | Saukelu |

| | |
|-----------------------------------|------------|
| Urtarrilak 14, domeka. | Epaipeak |
| 10:50 Iriztu Tab. - TCH | Abokajarro |
| 12:00 Abokajarro - Man. Pippol | Iriztu |
| 13:00 Billy & The Cow. - Dribling | Pippol |

SAILKAPENA

| | P | J |
|-------------------------|----|---|
| 1. Saukelu Abian | 16 | 6 |
| 2. Iluntz | 16 | 6 |
| 3. HLB 108 | 15 | 6 |
| 4. Betraye | 13 | 6 |
| 5. Omu Dribling | 12 | 6 |
| 6. AT Celaya | 11 | 6 |
| 7. Man. Pippol | 10 | 6 |
| 8. Cipris | 10 | 6 |
| 9. Lasagabaster | 9 | 6 |
| 10. Abokajarro | 9 | 6 |
| 11. McAwan Dauen | 8 | 6 |
| 12. Billy & The Cowboys | 7 | 6 |
| 13. Dublin Irish Pub | 6 | 6 |
| 14. Iriztu Taberna | 5 | 6 |
| 15. Iturriotz Taberna | 4 | 6 |
| 16. Equis | 3 | 6 |
| 17. THC | 1 | 6 |
| 18. Cicatrús | 0 | 6 |

Gabonetatik bueltan berriz ere liga jardunaldiak

Gabonak izan direla eta, Zaldibarko Txapelketak etenaldia izan du. Oporrak igaro ondoren, baina, berriro ere lehiaketa hasiko da aste bukaeran. Ligako partidak jokatuko dira, gainera, azken jardunaldian kopako final-zortzirenak jokatuko osten.

Jardunaldi haren harira, jokalariek jarrera desegokiak izan zituztela adierazi dute antolakuntzakoek. Aurrez, jarrera horien aurka neurriak hartuko zutela esan zuten, eta horrela egin dute. Equis taldeko bi jokalarik, adibidez, hurrengo bi jardunaldietan ezingo dute jokatu.

Astehenetik ostiralera eguneko menua



Belun

Garagartza auzoa Tel.: 943 79 61 14

arrasatearrak kanpoan

David Caballero > Ingeniaria
Nantes

"Bizitzarako beharrezko gauzak han baino merkeago daude"

JOKIN ETXEBARRIA > ARRASATE
Ingeniaritzako goi mailako ikasketak egitera joan zen David Caballero 27 urteko arrasatearra Nantesera. Han, gaur egun bere neskalaguna dena ezagutu eta Frantzia bizi izaten gelditu zen. Hala ere, sarritan etortzen da etxera lagunekin parrandatxoak egitera.

Lan bila dabil momentu honetan David Caballero. Ingeniaritzako ikasketak irailean amaitu zituen eta Nantesen bizi nahi badu, badaki lanik gabe ezin izango duela: "Hemen dena oso zentralizaturik dago. Parisera joanez gero ez dago lana bila-

tzeko arazorik, baina Nantesen ikusi egin beharko...".

Duela bi urte joan zen Arrasateetik Frantziara ikastera. Nantesen, baina, gaur egun bere neskalaguna dena ezagutu zuen, eta, duda handirik eduki gabe, bertan bizi izaten jartzea erabaki zuen. Hala ere, herrimina han-

"Hemen ez dago ohiturarik tabernaz taberna joateko; Arrasateko parranda askoz politagoa da"



David Caballero.

dia izaten da eta askotan etortzen da etxera: "Nantesen daramadan denboran, hilabeteetan behin joaten naiz Arrasatera gutxi gorabehera". Izan ere, etxeokak eta lagunak asko igartzen ditu faltan: "Eta parrandak. Hemen ez dago ohiturarik tabernaz taberna joateko. Batetik bestera, gainera, sekulako ibilbideak egin behar dituzu. Hemen taberna bakarera irteten gara eta bertan egiten da parranda. Hangoa askoz politagoa da: jende gehiagorekin elkartzeko aukera dago eta hizketan gehiago egiten da".

Era berean, mendien falta ere igartzen du: "Hemen dena oso laua da, apenas daude mendi txiki batzuk, eta uste dut aurten eskiatu nahi badut kilometro mordoxka egin beharko dudala".

HARRERA ONA

Hala ere, Arrasate eta inguruak faltan igartzen baditu ere, oso pozik bizi da Nantesen. Oraindik ondo gogoratzen ditu bertan eman zituen lehen egunak: "Klaseko

kideek momenturo lagundu ziguten eta bertako bizitzara moldatzeko ez genuen arazo handirik eduki". Hala ere, ez ditu bertako ohitura batzuk oraindik barnerratu: "Oraindik txundituta gelditzen naiz mutil bat agurtzeko eskua ematen zaiola ikusten dudanean, edo neska bat agurtzeko bi, hiru edo lau muxu ematen zaizkionean, nahiz eta aurreko egunean haiekin egonda zauden".

Nantes hiri handia izanda, jarduera ezberdin gehiago egiteko aukera dago. Bizitza zertxobait garestiagoa da, baina "etxebizitza, ogia eta halako beharrezko gauzetan, prezioak Arrasaten baino merkeagoak dira, eta eskerak horri... Izan ere, tabakoa, alkohola eta halako kapritxoak garestiegiak dira".

Turismoa egiteko leku aproposa da Nantes. Gauza asko daude ikusteko: "Edozelan ere, nik neuk gune historikoko kaleetan paseoa ematera eramango zaituztet hona etorritz gero. Benetan merezi du".

foto-albistea

Almenen, etxeokak irabazle emakumeen zortziko futbol txapelketan

Gabonetako oporretan kirola egin barik ezin egon, eta Almenen emakumezkoen zortziko futbol txapelketa antolatu zuten. Bertan, bost taldek hartu zuten parte. Etxeko bik, Arizmendi A eta Arizmendi B-k, eta kanpotik etorritako beste hiruk: Durangoko Jesuitak, Lazkaoko Futbol 8 taldea eta Gasteiz Cup-ek.

Finalerako Gasteiz Cup eta Arizmendi B taldeak sailkatu ziren eta penaltietan erabaki bazen ere, azkenean etxeokak izan ziren garaile.

Irabazleek, gainera, erdieitsitako garaikurra erakutsi nahi zutelana, argazkia atera zuten. Argazkian, goiko ilaran, hauek agertzen dira: Ana, Elena, Maddi, Zangitu (entrenatzailea), Lore, Elene eta Leire. Beheko ilaran, berriz, Oihana, Maite, Ariane eta Ane.



GOIENKARIA

BASATI TABERNA

943 711768

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

ELKARTASUNA > URTARRILEKOAK BETIKO LEKUAN EGINGO DITUZTE

Erabakitzeke dute aurrerantzean odol ateratzeak non egingo dituzten

Lokal berriak ere erdigunean egon behar du, eta horren bila dihardu Udalak

Seminarioan elkartzeko ziren alargunek ere beste leku bat bilatu beharko dute

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Odol Emaileen Elkarteak betiko lekuan eta orduan egingo ditu urtarrileko odol ateratzeak, baina oraindik erabakitzeke dute otsailetik aurrera non egingo dituzten. Errege Seminarioa patronatuaren esku gelditu zenez, Uned, Aranzadi eta Udalaren artean banatu zuten erakinaren erabilera eta horrek esan nahi du kanpora joan behar dutela erakina erabiltzen duten beste elkarteek; odol emaleena eta alargunena, hain zuzen ere.



ATERATZEA Eguaztenez egin zuten urteko lehen odol ateratzea; hurrengo hilaren 24an da.

O.E.

EGOITZA BERRIAREN BILA

Odol Emaileen Elkarteko delegatu Fernando Idigorasen esanetan, "leku berria ere herri erdian

egotea nahi dugu eta orain beste-ko handia, behintzat, izan behar du. Udalarekin harremanetan gaude eta oraindik ez dugu erai-

kin aproposik aurkitu, baina topatu bezain pronto jakinaraziko diegu herriko emaleei". Victoriano Gallastegi alkateak argitu du ez

DATUA

70

EMAILE ALDIRO

Urtean 24 odol ateratze egingo dituzte Bergaran, hilabete bakoitzean bi, eta 70 emale inguru joaten dira aldiro. Hitzordura zazpi bat lagun joaten dira Donostiatik, tartean bi mediku.

direla lokal barik geldituko. "Odol emaleek hilean pare bat aldiz baino ez dute lokal hori behar eta agian beste elkarteren batekin konpartitu beharko dute egoitza berria. Hala ere, erdiguneko erakina bat bilatu behar dugu, bai". Fernando Idigorasi ez zaio gaizki iruditzen lokala konpartitu beharra, baina ahalik eta azkarren bilatzea nahi du hark: "Gu, bada, ezpada, hasi gara hor ditugun paperak eta kentzen", dio. Eraikin berean elkartzeko ziren alargun koadrilek ere beste leku bat aurkitu beharko dute egoteko.

> 2007KO EGUTEGIA

Gazte informazio bulegoak eskoletan banatuko du egutegia

2007ko egutegia kaleratu du gazte informazio bulegoak ere, eta herriko ikastetxeetan banatuko du datozen egunetan. Diptiko itxura du egutegiak eta telefono eta webgune interesgarriak ere baditu. Herriko hainbat gunetan ere banatu dituzte eta www.bergara.net helbidean bertan ikus daiteke. Bestalde, Udalak etxez etxe banatu ditu aurtengo egutegiak Gabonetako egunetan, baina norbait barik gelditu bada, udaletxean eska dezake.

Kilometroen dendan ere beherapenak jarri dituzte

Kilometroak 07 dendan ere beherapenak jarri dituzte aste honetan. %30eko eta kasu batzuetan %50eko beherapena dute udazken eta neguko arropak, sasoiako jantziak amaitu arte. Aste barruan arratsaldez dago zabalik eta zapatuetan goizez ere bai.



O.E.

ETXE BERRIA


ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

ETXEBIZITZA > BABESTUTAKO PREZIOA DUTE LOKALEK

Etxebizitza erabilerarako bi lokal zozketatuko dituzte hil bukaeran

Udalak deialdia zabaldu du interesa duenak izena eman dezan, udaletxeko bulego teknikoan

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Etxebizitza erabilera izango duten herriko bi lokal zozketatuko ditu Udalak urtarrila bukatu orduko. Horretarako interesa duten herritarrendako izango dira lokalak eta nahi duenak oraindik izena eman dezakeela gogoratu nahi die Udalak herritarrei. Dagoeneko 20 lagunek eman dute izena, baina Udalaren

asmoa da zerrenda luzatzea: "Lokalak eskuratu ahala egingo ditugu zozketak eta zerrendan daudenen artean egingo ditugu", azaldu du Victoriano Gallastegi alkateak.

Izena emateko, bi baldintza bete behar dira: gutxienez azken urtean erroldatuta egotea Bergaran eta etxebizitza propiorik ez izatea.

BABESTUTAKO PREZIOAK

"Lokalaren jabea Udalarekin jartzten da harremanetan lehenengo. Guk zerrendakoen artean egingo dugu zozketa eta interesatua bera jartzten da gero harremanetan lokalaren jabearekin. Araututa dago prozesu guztia eta

babestutako etxebizitzaren prezioetan saltzen dira lokal horiek", azaldu du alkateak.

Datozen egunetan lotuko du hitzarmena Udalak lokalak jabeekin eta zozketarekin batera jakinaraziko zaie herritarrei lokal horiek herriko zein kaletan dauden ere.

LAU LOKAL, ORAINGOZ

Zozketatuko dituzten bi lokalekin, herrian lau lokalek izango dute etxebizitza erabilera. Bat Bolun dago, Aranerreka 27an, eta orain obrak egiten dihardute. Beste bat Zubiaurre auzoko 14. zenbakian dago, lehen estankoa egon zen lokala; baina, oraingoz, inork ez du erosi izan nahi.



LOKALA Boluko azken etxebizitzan dagoen lokala etxebizitza izateko erosi du herritar batek.

O.E.

EUSKARA > EGUBAKOITZETAN IZANGO DIRA PROBAK

Gaztetxoaren koadrilen arteko lehiaketa antolatu du Jardunek otsailerako

Sukaldaritzan, argazki rallyan, hizkuntzan eta grafitian lehiatuko dira 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoak

O.E. > BERGARA

Gaztetxoaren koadrilen arteko lehiaketa antolatu nahi du Jardun elkarteak haur eta gazte sailak. 12 eta 18 urte bitarteko gazte koadrilen arteko lehiaketa izango da eta otsailean jokatuko dute, otsaileko egubakoitze-tako arratsaldeetan.

ARGAZKI RALLYA ETA GRAFITIA

Lehiaketa horretan hainbat proba gainditu beharko dituz-

te gaztetxoek: sukaldaritzan, argazki rallya, hizkuntza proba eta grafitia.

Sei eta hamar lagun arteko taldeek hartuko dute parte eta lehiaketa otsaileko egubakoitz arratsaldeetan egingo dute, 17:30ean hasita. Izena emateko nahikoa da Jarduneko bulegora joatea edo helbide honetara mezu bat idaztea: *gaztejardun@topagunea.com*. Talde irabazleak saria jasoko du.

BEGIRALEA BEHAR DU JARDUNEK

Bestalde, Jardun elkarteak begiraleen lan poltsa osatu nahi du 06/07 ikasturtean asteburuetan lan egiteko. Izena emateko, beharrezkoa da euskaraz ondo jakitea eta begirale titulua edukitzea. Ikasketa eta esperientzia baloratuko dituzte. Izena Jardunen eman daiteke.

ZERBITZUAK > PILOTALEKUKO TABERNA ALOKAGAI

Pilotalekuko taberna alokairuan hartu nahi duenak izena eman dezake

Hilean 400 euroko alokairua izango du eta sei urtez luza daiteke kontratua, alde biak ados egonez gero

O.E. > BERGARA

Udal Pilotalekuko tabernaren alokairua adjudikatu nahi du Bergarako Udalak, eta horretarako deialdia egin du. Taberna hartzen duenak 400 euroko alokairua ordaindu beharko du hileroko. Lehenengo kontratua urtebetekoa izango da, baina beste bost urtez luzatu ahal izango dute, alde biak ados egonez gero; Udalak eta errentan hartu duena, alegia. Interesatuok urta-

rrilaren 18a arte eman dezakete izena, Kirol Zerbitzuan.

Dagoeneko bost lagunek eman dute izena taberna alokairuan hartzeko. "Epea pasatzen denean ez dugu zozketarik egingo, proposamen ekonomiko onena aurkezten duenari alokatuko diogu", azaldu du Unai Asurmendik, Kirol teknikariak. "Taberna horretarako ez dugu eskatuko urtean zehar ekitaldiak antolatzea, Agorrosingorako eskatu genuen bezala, baina galdetuko diegu nola kudeatu nahi duten taberna edo zein asmo duten", jarraitu du Unai Asurmendik.

AZAROA EZKERO ITXITA

Azaro erdi ingurua ezkeroko dago itxita pilotalekuko taberna, eta ahalik eta azkarren zabaldu nahi du Udalak.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



SARI BANAKETA Ohi denez, otsailaren 14an banatuko dituzte sariak. Goiko irudian Oier Bolibar, iazko ekitaldian. GOIENKARIA

JARDUN > AMODIOZKO GUTUNAK

Amodiozko gutunen lehiaketa: 36 lan jaso ditu Jardunek

SMS bidezko mezuen lehiaketan parte hartzeko epea astelehenera arte dago zabalik

EDU MENDIBIL > BERGARA

Amodiozko gutunen lehiaketan 36 lan izango dira lehian aurten. Astelehenean bukatu zen lanak jasotzeko epea, eta azken urteotako partaidetzarik baxuena izango da lehiaketaren 15. ekitaldian. 1993. urtean izan zen partaidetzarik handiena: 245 gutun jaso zituen orduan Jardunek, horietatik 68 bergararrek bidalitakoak. Aurten herriko bi partaide baino ez dira izango.

Edozein modutan, antolatzaileek kantitateari baino gehiago kalitateari ematen diote garran-

tzia, eta, azken urteotan gertatu izan den moduan, aurten ere epaimahaiko kideek lan nekeza izatea espero dute.

Epaimahaia Uxue Alberdi idazle elgoibartarrak, Karlos Aizpurua iazko irabazleak, Garbiñe Insausti abeslari eta aktoreak eta Miren Agur Meabe idazleak osatuko dute. Irabazlearendako 450 euroko saria izango da; bigarren saria 240 eurokoa da eta Bergarako onenak 150 euro jasoko ditu. Era berean, gazte epaimahaia emandako saria izango da: 26 urtetik beherakoen arteko

lanik onenak 100 euroko saria eramango du.

SMS BIDEZKO MEZUAK

Bestalde, SMS bidezko lehiaketan parte hartzeko aukera dago oraindik. Mezuak jasotzeko azken eguna astelehena, urtarrilak 15, izango da. Mezuak 605 71 24 69 telefono zenbakira edo kulturajardun@topagunea.com posta elektronikora bidal ditzaitezue. Mezurik onenak 90 euro eskuratuko ditu.

SARI BANAKETA OTSAILAREN 14AN

Ohikoa den moduan, sari banaketa ekitaldia otsailaren 14an, San Valentín egunean, egingo dute, kultura etxean.

ARATUSTEAK > LEHIAKETA

Aratusteetarako kartel lehiaketa deitu du Udaleko Kultura Zerbitzuak

Irabazlearendako 300 euroko saria izango da; lanak aurkezteko epea urtarrilaren 29ra arte izango da zabalik

E.M. > BERGARA

Udaleko Kultura Zerbitzuak Aratusteetako kartel lehiaketa deitu du. Bergaran bizi edo erroldatutako edozeinek har dezake parte lehiaketan. Kolore eta teknika librez, 40x60 zentimetroko kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu behar dira lanak, formatu bertikalean. Derrigorrezko testua honako hau izango da: *Aratusteak 2007, Bergara*. Horrez gain, disquete batean ere aurkeztu behar-

ko da diseinua. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 29an amaituko da eta irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Saria eman gabe ere geldi daiteke, epaimahaia gutxieneko kalitatez ez dagoela uste badu. Argibideak kultura etxean, 943 77 91 58 telefonoan.

ELKARTEENDAKO LAGUNTZAK

Bestalde, Kultura Zerbitzuak aditza eman duenez, 2006an Udalaren dirulaguntza jaso duten kultura elkarte edo taldeek jasotzeko dute 2006ko dirulaguntzaren bigarren zatia. Horretarako hainbat agiri (jardueren zerrenda, gastuen fakturak eta emaitza ekonomikoen memoria) aurkeztu behar dituzte urtarrilaren 15eko 13:00ak baino lehen, Udaleko sarrera erregistro orokorrean.

> ERAKUSKETA

BEKEk antolatutako eskulan erakusketa zabalduko dute gaur Aroztegi aretoan

Bergarako Emakumeen Kultur Elkartek (BEKE) antolatutako eskulan erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegin. Urtarrilaren 21era arte izango da zabalik. BEKEko dozena bat lagunek jarriko dituzte eskulanak ikusgai.

Aroztegi aretoaren ordutegia honako hau da: martitzetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.



Eskulanak ikusgai Aroztegin.

'Kutsidazu bidea, Ixabel' filma Agorrosinen

Zine emanaldiak izango dira oraingo eta hurrengo aste bukaeran Agorrosinen: bihar, zapatua, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* eskainiko dute 17:00etan, 19:00etan eta 22:00etan eta domekan beste bi emanaldi izango dira, 17:00etan eta 19:00etan. Eta hurrengo aste bukaeran, ordutegi berarekin, *Nomadak TX* filma ikusteko aukera izango da. Hain zuzen ere, Donostiako Zinemaldian aurkeztu zituzten bi film horiek. Sarrerak Agorrosinen bertan eskuratu ahal izango dira, euro baten truke.



Mireia Alberdi DIETISTA



- PISUA GALTZEKO DIETAK
- HEZIKETA NUTRIZIONALA
- HAURDUNALDIRAKO ELIKADURA
- KIROLARIENTZAKO DIETAK
- OSASUN ARAZOETARAKO AHOLKULARITZA:
(KOLESTEROL, DIABETES, HIPERTENTSIOA, AZIDO URIKOA)
- JARRAIPIEN PERTSONALIZATUA
- IKASTAROAK...

(...) mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943 763 399
(m) 646 433 458
(e) mireialber@euskalnet.net

Masterreka 11 behe • BERGARA



ITURRIETA

sagardotegia



Arraga auzoa - ARAMAIO - Tel.: 945 44 53 85 • 605-70 64 51
Eguketik domekara zabalik
(beste eguketan enkarguz)



Urtarrilaren 19an 19:30ean
sagardo denboraldiaren inaugurazioa
Aramaioko sagardogile elkartearen eskutik
21:00etatik aurrera afariak

Gonbidatuta zaude!

Sagardotegi menuak • Menu bereziak • Karta espezialitateak: Arraina eta okela txingarretan erreta

KIROLA > ZIKLOKROSSA

Xabi Arantzeta hirugarren Itsasondon

Lokatza taldekoak Itsasondon egindako lan onarekin ia ziurtatuta dauka Gipuzkoako Challengearen hirugarren postua

X.U. > BERGARA

Xabi Arantzeta hirugarren sailkatu zen Itsasondon, eta, horri esker, lasaiago lehiatu ahal izango da urtarrilaren 20an Iraetan egingo duten azken lasterketan. Ez zen, baina, kadete mailan lehiatu zen bergarar bakarra izan, 12. sailkatu zen-eta Xabier Laskurain.

HIRU TXIRRINDULARI AURREAN

Aurtengo denboraldiak hiru txirrindulari izan ditu kadete mailako kategorian agintzen: Mikel Elortza azpeitiarra, Ander Altube oñatiarra eta Xabi Arantzeta

bergararra. Itsasondon hiru lagun horiek igo ziren podiumera, eta txapelketa amaieran ere, ezusteko handirik ez bada, hiru horiek jasoko dituzte sariak. Itsasondoko lasterketari dagokionez, Lokatza entrenatzaile lanean dabilen Iñigo Larrañagak azaldutakoaren arabera, lasterketa hasieratik hautsi zen eta Elortzak eta Altubek aurrea hartuta, Arantzeta hirugarren postua mantentzeko egin zuen lan: "Denboraldiko proba motzena izan zen, eta hasieran abantaila hartuta, aurrekoek nahikoa izan zuten erritmoari eustearekin".



LASKURAIN 12. gelditu zen Itsasondoko proban.

LOKATZA

labegaraieta

EMAITZAK

| | |
|------------------------------|---------------------|
| Errotagain-Tornilleria Deba | 16-2 |
| Belengua-Teatekh | 0-7 |
| Altospornos-Komando Piperrak | 5-3 |
| Altospornos-Belengua | 2-1 |
| Irish Pub | Atsedena izan zuten |
| Niu Tim | Atsedena izan zuten |

PARTIDUAK

| | |
|--------------------------------|------------|
| Urtarrilak 14, domeka, barruan | Epaileak |
| 10:00 Errotagain-Niu Tim | Irubide |
| 11:00 Belengua-Irubide | Niu Tim |
| 12:00 Irubide-Tornilleria Deba | Belengua |
| 17:00 Teatekh-Komando Piperrak | Irish Pub |
| 18:00 Altos Pornos-Irish Pub | K.Piperrak |

SAILKAPENA

| | P | J |
|----------------------|----|---|
| 1. Errotagain | 21 | 7 |
| 2. Niu Tim | 21 | 7 |
| 3. Altospornos | 18 | 8 |
| 4. Irish Pub | 15 | 7 |
| 5. Teatekh | 12 | 7 |
| 6. Tiki Taka | 9 | 8 |
| 7. Belengua | 6 | 7 |
| 8. Komando Piperrak | 3 | 7 |
| 9. Irubide | 3 | 6 |
| 10. Tornilleria Deba | 0 | 8 |
| 11. Azkenak | 0 | 0 |

Lehenengo postua jokoan egongo da asteburuan

Labegaraietako txapelketan, urte berriak norgehiagoka ezin interesgarriagoak ekarri ditu, domeka goizean jokatu dute-eta (10:00) Errotagain eta Niu Tim taldeek. Jardunaldi erakargarria, baina, ez da partidu horrekin amaituko, Altospornos eta Irish Pub dabilta-eta hirugarren postuagatik lehiatzen. Bi talde horien artean hiru puntuko aldea baino ez dago, eta asteburuan gerta liteke sailkapenean pare-parean geratzea.


Horrekin batera, joan den urtean etxeko lanen bat geratu zitzaigun egiteko, eta orain aprobetxatuko dugu: antolatzaileek barkamena eskatu gura diote Komando Piperrak taldeari, abenduko azken jardunaldian ordutegia gaizki jarri eta talde horrek bi ordu egin behar izan zituelako kiroldegian partidua jokatzeko zain. Hala, seguru horrelakorik ez errepikatzeke ahalegina egingo dutela.

Lokatza zozketatutako bizikleta, Asier Lakuntza gaztetxoarentzat

Lokatza Ziklismo Eskolak Gabonetan egindako zozketan Asier Lakuntza gaztetxoak bizikleta irabazi du. Lehen saria 297 zenbakiarentzat izan da, eta Igartua dendak emandako bizikleta eraman du Lakuntzak. Bigarren sariduna ez da agertu oraindik: 7.368 zenbakiaren jabeak Zumelaga jatetxean bi lagunendako afaria eskuratuko du. Argazkian, Peio Garitano Lokatzako ordezkaria, Asier Lakuntza aitarekin eta Iñigo Igartua.



LOKATZA



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

nire bidaia hura

Nerea Lete

Zeelanda Berria > 2006ko maiatza

"Bi uharteetan naturak berak eskaintzen duen dibertsitateak harritu nau gehien"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Kanada eta Zeelanda berria zizutzen aukeran ezkon bidaian joateko, eta bigarrena aukeratu zuten. Autokarabana alokatu eta euren kontura bisitatu dituzte bazter guztiak.

Zeelanda Berrira joateko ingurumena gustuko izan behar dela esan digu Nerea Letek: "Bi uharte dira Zeelanda Berria, eta hegoaldekoan naturak leku handia hartzen du. Mendilerro ikusgarri bat ere badauka, non Cook mendia dagoen, eta oso polita da. Iparraldean ere polita da, baina zibilizatuagoa beharbada. Hiriburua, Wellington, bertan dago, baita Auckland hiri ekonomiko eta finantzario garrantzitsua ere".

INGURUAREKIN TXUNDITUTA

Naturak berak eskaintzen duen dibertsitateak harritu du batez ere Lete: "Hemen sekula ikusiko ez genituzkeen animaliak euren habitataz naturalen ikusi ditugu. Hegoaldean mendiak dira oso ikusgarriak; eta iparraldean plaken higaduratik sortutako sumendi modukoak, uraren koloreak...".

Jendearekin izan dute tratua, baina kalean, eguzki-orduetan bakarrik egoten direla esan digu: "Hemen udaberria zenean joan ginen eta han udazkenaren amaiera zen. Arratsaldeko bostetan iluntzen zuen eta ordu hartatik aurrera ez zegoen inor ere kalean. Iparraldean, berriz, jende gehiago ibiltzen da. Bestalde, iparraldean maoriak ezagutzeko aukera izan genuen. Afari bat egin genuen eurekin, eta nola bizi ziren erakutsi ziguten".

Zeelanda Berrian abeltzaintzatik bizi dira batik bat, baina turismorako gauzak oso ondo antolatuta daudela esan digu Nerea Letek: "Guztia oso ondo seinaleztatuta dago eta herri bakoitzeko turismo bulegoetan azalpen guztiak ematen dituzte".

Turismorako gertu ez daudenak bideak dira, haren esanetan: "Aurrez esan ziguten kalkuluak



Nerea Lete.

"Bideak ez dira batere onak; hala ere, hirietatik gertu dauden egoera hobea da"

"Cook mendia bisitatzeko gomendatuko nuke; fiordoak ere oso ikusgarriak dira"

egiteko, kontuan hartuta bideak ez direla hemen bezain onak, baina hain txarrak izatea ere ez genuen espero. Leku batzuetan hartxintxarra dago, esaterako. Hala ere, hirietatik gertu dauden bideen egoera hobea da".

Janaria, ordea, ez zaie askorik gustatu: "Kolonian ingelesa izanik ohiturak oso sartuta daude. Espezia asko erabiltzen dituzte, eta nik neuk ez dut gustuko. Arkumea erosi eta gure kabuz prestatu genuenez, oso goxoa zegoen".

GASOLINA, MERKEAGOA

Autokarabanan egin dute bidaia, eta batzuetan kanpinetara ere joan dira: "Noizean behin garbiketarako kanpinetara joan behar da. Kanpin asko daude eta oso ondo gertatuta, gainera", esan digu. Autokarabanan ibili direnez, sumatu dute gasolina askoz ere merkeagoa dela: "Gainontzean prezioak hemengoan antzerakoak dira".

Askotariko tokiak bisitatu dituzte eta Nerea Letek berari gehien gustatu zaizkionak aipatu dizkigu: "Cook mendira helikopteroan joan ginen. Airetik glaziarak eta mendilerroa bera ikusi genituen. Fiordoak ere asko gustatu zaizkit, ikusgarriak dira oso".

Oroigarri moduan kiwi txoriarren irudia ekarri dute, eta, hango egurra hain preziatua izanik, baita egurrezko gauza batzuk ere.

Bestalde, Letek ohar bat eman nahi die Zeelanda Berrira joateko asmoa dutenei: "Aireportuan kontrol zorrotzak egiten dituzte, zer sartzen duzun jakiteko. Euren babesteko hartzen dituzte neurri horiek, eta janariak, esaterako, ez dituzte sartzen lagatzen".

Berriz itzultzeko moduko lekua dela esan digu, askatasun sentazioa izan duelako han: "Leku batzuk ikusi gabe laga ditugu; hondartza batzuk, esaterako. Buelatzekotan, urte batzuk pasa ondoren egingo nuke".



Nerea Lete eta Javi Gonzalez, maoriek bilerak egiteko eta elkartzeko marae batean.

bere ustez



Aitziber Azkondo

Juramentu edo aparkaleku!

Gauza da batez besteko 20 minutu eman behar ditugula autoa aparkatu nahiez gero. Autoa izateagatik urtero zerga ordaindu behar, suposatzen da autoak okupatu behar duen lekuaren truke... Baina zer gertatzen da lekurik ez dagoenean?

100 euroko isunarekin ohartarazten gaituzten gune berriak, eta aparkalekurik ez. Autoa aparkatzen ematen dugun denboren kostua ezagutzeko gustatuko litzaidake.

Hau guztia larria da, baina bereziki arduratzen naue-

"Autoa aparkatzen ematen dugun denboraren kostua ezagutzeko gustatuko litzaidake"

na, auto gidariengan dakarren umore aldaketa. Osasun arazo bilaka daitekeela konbentzitututa nago. Ikusi besterik ez dago zer-nolako umorea sorrazaizten zaigun aurrekoak tokia okupatzen digunean. Edo bost minutuko enkargu bat egitera presaka joateagatik bigarren lerroan utzi, eta, nola ez, segundora agertzen da oztopatzen duzun autoaren jabea, lagundu! Klaxona jo eta jo, zu konturatu ez, eta bueltan denetik entzun behar, juramentu, keinu, irain...

Ez diot 15 minutu itxaroten dagoenari arrazoirik kenduko, baina jaun-andreok, oihera eta juramentuek ez dute ezer konpontzen; eztarik narritadura, eta umore txarra kentzeko egin beharreko lana gehitu besterik ez. Lasai gaitezen, ez dago beste erremediorik eta!

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

UGARTE
AROTEGIA-ALTZARIAK

K21

Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 / Faxa: 943 76 08 04

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ez / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behe / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibarra 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

LORENZO MARTIN RAFAEL

Arrasate / Zarugalde 16-1. esk. / 943 77 12 63

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk. / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

TRIPALDI ENRIKE

Bergara / Justo Garate 1 / 943 76 70 76

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

DIETISTAK

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behe / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

RAQUEL PEREIRA GALDO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Nafarroa etorbidea 3 / 943 79 44 22

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXE MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 - 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 5 / 943 08 21 89

ORMAZABAL FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Telleria 6 bis, 11 bulegoa Labegaraieta ind. / 943 76 53 35

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. esk. / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behe D - Kiroldetean

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibarra 44, behe / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOAK

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

PSIKOTERAPEUTA INTEGRATZAILEA - ANA GALLASTEGI

Bergara (Astelehena) / San Martin plaza 3 - 4D / 699 42 68 11

Donostia / Laramendi 2 solairuaretea / 943 45 65 56

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA

Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

ZUBILLAGA ZABALA MARISA

Bergara / Psikologo klinikoa / 943 76 30 76

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerías 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 235 753



BIDEGORRIA Aretxabaletako iparraldeko sarreratik CVL lantegia bitartean bide oso estua dago oinezko eta bizikletendako.

M.A.

INGURUMENA > BIDEGORRIAREN LANAK

CVL arteko bidegorri tartea egiteko deia egin du Aldundiak

Bien bitartean herriko tartean lanean dabilta, eta Copreci ingurua asfaltatu dute

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak deia egin du Aretxabaletako saihesbidearen iparraldeko sarreratik Cerrajera Valle Leniz lantegira bitartean dagoen bidegorriaren zatia

konpontzeko. Hain zuzen, hilaren 8ko Gipuzkoako aldizkarian argitaratu zituen oinarriak.

LEHENENGO ZATIA EGINDA Aipatutako bidegorriaren lehenengo zatia dagoeneko eginda

dago. Aldundiaren Errepide Sailak egin zuen, Udalak eskatuta. Izan ere, Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepidea gurutzatu behar zuten oinezkoek eta oso tarte arriskutsua zen. Urrian bukatu zituzten lanok, eta erre-

pide azpitik egin zuten oinezkoendako pasabidea. Orduan, baina, ez zituzten lan guztiak egin eta pasabidetik CVL arteko tartea, 190 metro inguru, Aldundiko Garapen Iraunkorraren eskuetan geratu zen.

HAMAR ASTEKO LANAK

Egin beharreko lanen proiektua LKS enpresak egin zuen 2005ean. Ia 217 mila euroko aurrekontua daukate, eta hamar astean bukatzea espero dute. Udaleko Hiritzaintza Saileko teknikariaren esanetan, eguraldiak asko baldintzako ditu lanok: "Zenbat denboran bukatuko duten esatea ez da samurra, ibaian sartu beharko direlako hondeatze-makinak eta langileak. Orain arte ez du euri askorik egin, baina nahikoa da elurte bat izatea lan baldintzak asko zailtzeko". Otsail hasieran bukatu da lanok egiteko lehiaketara aurkezteko epea. Bestalde, Eskoriatzara bidean dagoen tuneletik aurrerako lanak ere Aldundiak egin behar ditu. Seguru asko, aipatutakoak bukatzerakoan hasiko dituzte.

HERRIKO TARTEAN LANEAN

Bien bitartean, aurrera doaz herriko pasatzen den tarteko lanak. Udala dabil egiten, eta dagoeneko asfaltatu dituzte industrialdea eta Copreci pareko zatiak. Solohandi etxe multzoen ostean dagoen tartean argiteria berrituko dute, eta asfaltatu ere bai, euria egiten zuenean sortzen ziren putzu handiak ez daitezten egon. Ondoren, bizikletendako izango den ibilbidea marrotuko dute gorriz, CVLtik aurrera egindako moduan. Hala ere, bidegorri guztian ezin izango dute eurenako bakarrik den erreia izan bizikletek, tarte batzuk nahiko estuak direlako. Lanok 192 mila euroko aurrekontua daukate, eta hiru hilabetean bukatzea espero dute.



M.A.

Hilaren 31 arte tranbiari alegazioak egiteko

Azaroa ezker dago ikusgai tranbiaren proiektua udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Izan ere, Udalak proposatutako alegazioa onartu eta ibilbideak aldaketa handia izan du gure herrian. Hala, Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren zuzendaritzak erabaki du erakustaldi epea luzatzea hilaren 31 arte. Hain zuzen ere, herritar, elkarte eta erakundeek oraindik aukera izango dute proiektuaren aldaketa zein ingurumen inpaktuaren gaineko azterlana ezagutu eta alegazioak aurkezteko.

UDALA > OHIKO OSOKO BILKURA

Barajasko atentatuaren gaitzespen mozioa onartuta

Aralarrek puntu batzuk aldatu gura izan zituen, baina ez zizkioten onartu

M.A. > ARETXABALETAKO Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak astelehenean, hilak 8. Gai bakarra zuten zerrendan, baina azken orduan mozioa aurkeztu zuen EAJk Madrilgo aireportuko atentatua gaitzesteko.

GAITZESPEN ETA BABES MOZIOA Osoko bilkuran gai bakarra zegoen: Debagoieneko Mankomunitatea ahalmentzea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak SAn sartzeko. Aho batez onartu zuten guztiak.

Eztabaida, baina, mozioarekin iritsi zen. EAJk aurkeztu zuen Barajasko atentatua gaitzesteko, eta sei puntu zituen. Aralar guztiekin bat ez zetorrenez, puntuz puntu bozkatzeari esker zuten. Atentatu terroristaren aurrean, samina erakustea eta atentatua gaitzestea onartu zuten, baita kaltetutako eta zauritutako herritarrei babesa eta elkertasuna adieraztea ere. Mozioan agertzen ziren *Ezker abertzale* berben orde *Batasuna* jartzea eskatu zuen Aralarrek, eta onartu egin zioten. Beste aldaketa batzuk ere proposatu zituen; tartean, *Batasuna* ez ezik PSOE ere aipatzea eskaerak egiteko orduan. PSEko zinegotzia ez zen ados agertu, eta gainerakoek ere ez zuten onartu. Azkenean, aldaketa txikiak eginda onartu zuten.

AISIALDIA > LUDOTEKA ZABALIK

Zerbitzua zabaldu dute ludotekan, eta urtarril osoan eman dezakete umeei izena

Ordutegia aldatu dute, zerbitzu zabalagoa eskaini eta ludotekan gehiago gozatzeko

Domeka arratsaldeetan ere zabalduko dituzte ateak, neguan, 8 eta 12 urte artekoendako

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Aldaketa askorekin dator Algara ludoteka urte berrian. Loramendi Euskara Elkarteak kudeatuko du, baina zerbitzu zabalagoa eskainiko dute orain.

ORDUTEGI ALDAKETA

Ordutegian aldaketak egin dituzte. Hala, astelehen, martitzen, eguen eta egubakoitzetan 4 eta 6 urte artekoendako egongo da zabalik, 17:00etatik 18:30era, eta 7 eta 12 urte artekoendako, 18:30etik 20:00etara. Eta eguzteetan, txikiengan, hau da, 3 urtekoen txanda izango da. Zapatu goizetan, ostera, ume guztiendako egongo da zabalik, 11:00etatik 13:00etara. Gazteria teknikari Maider Etxanizen esanetan, ordutegi horrekin umeei ludotekaz gozatzeko aukera zabalagoa izatea da helburua.

Beste berrikuntza bat ere badakar ludotekak: domeka arratsaldeetan, 17:30etik 19:30era zabalik egongo da 8 eta 12 urte artekoendako negu partean. Hilaren 21ean jarriko dute abian, eta irekiera festa merienda handi batekin egingo dute. Martxoaren 25ean bukatuko da zerbitzua.



LUDOTEKA Argazkiak erakusten ditu 3 eta 4 urteko neska-mutikoak jolasean Algara ludotekan.

M.A.

tsaldeetan, 17:30etik 19:30era zabalik egongo da 8 eta 12 urte artekoendako negu partean. Hilaren 21ean jarriko dute abian, eta irekiera festa merienda handi batekin egingo dute. Martxoaren 25ean bukatuko da zerbitzua.

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Lehen bezalaxe Loramendi kudeatu arren Algara ludoteka, bazkide txartela berriro egin beharko dute erabiltzaileek. Urtarrila eta ekaina bitarteko kostua 20 euro izango da, eta familia

ugariek erdia ordainduko dute. Domeka arratsaldeetako zerbitzua, ostera, doan da: "Gaztetxengana iritsi gura dugulako da, hain zuzen, doan", azaldu du Etxanizek. Izena emateko epea zabalik egongo da urtarril osoan.

IKASTAROA > JOLASAK

Jolas ikastaroa egingo dute berriro

Hilaren 20an, 23an eta 27an egingo dituzte saioak, 10:00etatik 12:00etara, Urtxintxa aisialdi eskolako gidaritzapean

M.A. > ARETXABALETA

Udaleko Euskara Zerbitzuak berriro antolatu du jolasen ikastaroa 2 eta 8 urte arteko umeei dituzten guraso eta hezitzaileendako. Hiru saio egingo dituzte: urtarrilaren 20an, 23an eta 27an.

EUSKARA SUSTATZEKO

Ikastaroa goizez izango da, 10:00etatik 12:00etara, Iralabarri plazan dagoen gaztelekuan. Izena emateko epea hilaren 15ean bukatuko da, eta, interesa izanez

gero, ikastetxean jakinarazi edo Udaleko Euskara Zerbitzura deitu behar da. Euskaraz izango dira saioak, baina ez dute inolako arazorik izango euskaldun berriek. Gainera, gertu daude ulertzen ez diren kontuak gaztekeraz azaltzeko.

Izan ere, ikasturte honetan antolatzen duten bigarren ikastaroa da. Lehena azaroan egin zuten, eta hamabi lagunek hartu zuten parte. Azken saiora, gainera, umeei joan ziren gurasoak eta ederto ibili ziren guztiak. Oraingoan ere Urtxintxa aisialdi eskolakoek emango dute, eta, euren esanetan, jolasa tresna eraginkorra da umeen artean euskara sustatzeko, motibazioa, ezagutza eta erabilera areagotzeko balio baitu: "Jolasean euskara erabiltzea lagun arteko harremanak euskaraz eraikitzeko urrats garrantzitsua da", diote.



M.A.

Zebrabideak espaloien mailara

Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko ahaleginean hainbat zebrabide egokitu ditu Udalak. Hala, urtea bukatu aurretik ibili ziren Santa Kurtz kalean dauden hainbat zebrabide espaloien mailan jartzen. Santa Kurtz kalean ez ezik beste kale batzuetan ere egokitu dituzte eta guztira 12 izan dira. Lanek 70 mila euroko aurrekontua izan dute, eta guztiz bukatuko dituzte margotze lanak egindakoan.

BATZARRA

Korrika batzordea sortzeko deia

Batzarra egingo dute martitzenean, 19:00etan, udaletxe zaharrean

M.A. > ARETXABALETA

Bi urtean behin egin bezalaxe, Korrika pasatuko da aurtun, eta Aretxabaleta martxoaren 24an iritsiko da. Irtsi bitartean, baina, Korrikaren inguruko ekitaldiak antolatzen dituzte herri guztietan, eta horretarako Korrika batzordea sortzen dute. Hala, martitzenean, hilak 16, 19:00etan egingo dute lehen batzorra gurean aipatutako batzordea sortzeko. Loramendi Eeko lokalean izango da, eta, elkarte, ikastetxe eta erakundeetako kideei dei berezia egin badiete ere, interesa duen edonor hurrera daiteke batzarrerara.

> SARIAK

Aretxarte elkarteak banatu ditu 2.500 euroko sariak

Kanpaina egin zuen Aretxarte merkatarien elkarteak udazkenean, 2.500 euro arteko sariak eskainiz herritarrei. Dagoeneko egin dute hainbat bonuren zozketa, eta hona hemen sarituak: 500 euroko bonua Arantxa Bengoak eskuratu du; 400 eurokoa, Marisa Muñoz; 300 eurokoa, Luis Larrañagak; eta 200 eurokoa, Lourdes Zubillagak. Horiez gain, beste 11 bonu banatu dituzte 100 eurokoak. Aipatutako bonuak Aretxarteko kide diren dena eta komertzioetan erabiltzeko izango dira.

> PARROKIA

Galartza eta Areantzan esango dituzte mezak urtarrilean

Urte berriarekin batera, auzoetan dauden parrokiak mezen ordutegia kaleratu du Leintz Pastoral Barrutiak. Urtarrilean, Galartzan esango du meza Pablo Letona abadeak, 11:30ean, eta Areantzan, 12:30ean. Mendiolan mezarik ez izan arren, auzoko kideek otoitzaldia egingo dute, 12:00etan.

Otsailean, ostera, Arkarazon esango du meza Letonak, 11:30ean, eta Goroetan, 12:30ean.

mingainari tiraka

Jon Kepa Zubillaga > Gurea tabernako jabea

"Gero eta emakume gehiago etortzen da"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

50 urtetik gora ditu Gurea tabernak, eta Zubillaga senideena izan da beti. Jon Kepa 18 urterekin hasi zen lanean, eta bertan jarraitzen du, nahiz eta lan lotua dela esaten duen.

Noiz zabaldu zen Gurea?

Ziur ezingo nizuke esan. Gogoan dut 2000. urtean 50 urte beteko zituela entzun nuela behin etxean.

Eta sasoi hartan jatetxea ere bazen...

Bai, ama zen sukaldaria eta bazkariak ematen genituen.

Zelako jendea etortzen zen orduan?

Langileak, gehienbat.

Orain urte batzuk berritza erabaki zenuen...

Bai, ez dira urte bi pasatu berritu gurea: 2005ean, hain zuzen.

Orduz gero ez duzue bazkaririk ematen.

Ez, sukaldean lan egiten zuten langileek alde egin zuten, eta jatetxerik ez jartzea erabaki genuen.

Tabernaz gain era askotako apustuak egiteko makina ere badaukazue. Ze apustu egin daitezke?

Askok; futbolekoak bi, zaldien apustuak beste bi, Primitiboa, Bonolotoa, Primitiboa-ren Saritzarra eta Euromilioiak.

Egunean zenbat jende pasatzen da apustuak egitera?

Uf, ezingo nizuke esan. Jende gehiago ibiltzen da astelehen eta eguenetan, Primitiboa egiten dutelako.

Eta batzuei zeuk egiten diezu apustua eurak etorri barik; hala da?

Bai, jende ezagunari, gehienbat, eta beti berandu ibiltzen diren batzuei.



Sekula eman duzu sari potoloren bat?

Azkena orain dela hiru urte inguru izango da, Loteria Primitiboa bost eta osagarria asmatu zituen batek. Hala ere, ez zen dirutza handia izan, askok asmatu zutelako.

Apustuak egiteko makinak jarriko zituztela entzun zen garai baten.

Bai, zerbait entzun zen, baina ez dakit gehiago. Guri, gainera, argi utzi ziguten ezingo gurea halakorik jarri tabernan bestea daukagulako.

Gurea tabernak, gainera, bloga dauka orain.

Bai, *Goiena.net* webguneko blogen tartean dago, eta zozketen emaitzak sartzen ditut. Batzuek arazoak ematen dizkirate, Euromilioiak esaterako, baina gainerakoak egunero sartzen ditut.

Tabernariak aberastu egiten zirela esaten zen lehen. Kontuak asko aldatu dira?

Lehen ere ez dut halakorik entzun nik etxean. Orokorrean jaitsi egin dela uste dut, baina gure kasuan, berriro dugunetik mugimendu handiagoa daukagu.

Aretxabaletan gaueko giroak behera egin duela diote. Zer diozu?

Ni ez naiz askorik ibiltzen, baina atera izan naizenetan oso giro tristea iruditu izan zait.

Eta jaietan berdin gertatzen da?

Egunez giro polita egoten dela esango nuke, baina gauez batere ez. Dena dela, azken Andramaixetan jende gutxi ibili da egunez ere.

Diru kontua izan daiteke?

Bai, baina diru asko dagoelako. Jendeak kanpora joateko ohitura hartu du, etxea erosi duelako esaterako, eta herrian gutxi geratzen dira.

Txikiteroak desagertzen ei doaz...

Egunero dabilena 40 urtetik gorakoa da, eta gehien ibiltzen direnak erretiratuak.

Lehen baino alkohol gehiago hartzen dela esango zenuke?

Ez, kafe gehiago bai. Gero eta emakume gehiago hurreratzen da eguerdi eta arratsalde partean kafea hartzera.

Oraindik etortzen da jendea futbol partiduak ikustera aste bukaeretan?

Bai, sufritza egokitzen zaien Realzale asko elkartzten dira.

bere ustez



Katalin Antxia

Egia gezur saltsan

Baiez, ezetz, zuk bai ta nik ezetz... doinua ezaguna dut. Konturatzen naiz egunero ikusten dudala kanta hau kokatuko nukeen testuingurua. Erabakiak franko hartzen ditugu duda putzuetan. Baina zerbait garrantzitsua egitea erabakitakoan, guztiz ondo egin ez dugun sentimendua gelditzen zaigu barruan. Laguna hurreratu, 10eko mailan aritu ez garela esan eta segituan arrazoituko diogu egin dugun *narrtoa*. Nabaria da egoki jardun dugula, baina adiskideak ez digu hori erran. Orduan, ohartzten naiz biok egia

"Jaun-andreok, gezur bidez egia ulertzen dugu sarritan"

dakigunean gezurra sortzen dugula. Gertatutakoa, gertatu ez denaz komunikatu diogu batak besteari eta berak baita guk, gertatu dena ulertu dugu: ederto egin dugula alegia.

Badira inkesta deituriko figurez osatzen diren estatistika izeneko datu batzuk, non plazaratzen diren datuak erdutzat hartzen ditugun. Irakurri dugun horretatik errealitatea zein den ulertu dugu; eta errealitatea ez da irakurri duguna.

Badira beste politikari batzuk non promesak sermoitzen dituztenean egingo dutena ulertzen dugun; eta ez dute esan dutena egingo. Horregatik lotzen dut egunerokoa zentsura modu berezi honekin. X ulertzeko, Y praktikatzen dugulako. Gero, gure zentsura modu berezia ulertzen ez dutenak datoz, eta akabo.

argazki zaharra

Ezkontza egunean lagun artean

Aretxabaleako parrokiaren ezkontza zen Mercedes San Miguel, 1968ko irailean, eta Taberna Berri jatetxean egin zuten bazkaria. Lagunen inguruan elkartu zen argazkia ateratzeko.

Argazkian ageri direnak: Puri Beltran de Heredia, Pili Elkoro, Maria Jesus Pagaldai, Mercedes San Miguel, Zizili Olabe, Maria Angeles Altube eta Maria Jesus Iturbe. Azpian daudenak: Maria Dolores Axpe eta Arantxa Altzola.

Argazkia: Puri Beltran de Heredia
Testua: Puri Beltran de Heredia
Urtea: 1968



((112))
SOS DEIAK

HIRIGINTZA > URBANIZAZIO LANAK

San Juan kalean espaloi zabalagoak eta aparkalekuak jarriko dituzte, elkarlanean

Udalak eta Sukibidek San Juan kaleko 9. zenbakitik Leteko bidera bitartean espaloiak eta aparkalekuak jarriko dituzte; Aldundiak diruz lagunduko du

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

San Juan kalean hainbat hobekuntza egingo dituzte datozen hilabeteetan. Aurretik Udalak kale horren hasieran hainbat hobekuntza egin zituen.

Udalaren asmoa zen San Juan kaleko 9. zenbakitik trenbide zaharreraino kale guztia berri- tzea. Hala, horren gaineko proiektua idatzi zuten Udalak eta LKS enpresak.

SUKIBIDE ETA UDALAREN ARTEAN

Baina proiektua zeharo aldatu dute. Izan ere, San Juan kaletik gora, Bolibarrera bidean, Sukia enpresa Elorretako etxebizitzak egiten dabil. Hala, berez Sukiak lurzoru zati bat Udalari utzi beharko dio. Horrez gain, azken asteotan Udalak erabaki du San Juan kalean bertan 18 aparkaleku egitea eta San Juan kaleko 9. zenbakitik Leteko biderainoko kalean bi espaloi jarriko dituzte.



ESPALOI ZABALAK San Juan kaleak premia handia du espaloiak zabaldu eta kalea bera berritzeko.

IKER BARANDIARAN

ALDUNDIAK LAGUNDUKO DU

Horrez gain, bertan dagoen zubia ere pixka bat zabaltzeko asmoa dute, espaloiak jartzeko estuegia delako.

Lanek, guztira, 338.000 euroko aurrekontua izango dute. Udalak 240.000 euro hartuko ditu bere kargu; eta gainontzekoa Sukia enpresaren Sukibide ekimenak

hartuko du. Udalari dagokion kopurutik 200.000 euro Aldundiak ordainduko ditu.

Udaleko Hirigintza Sailak onartu egin du lanok egitea. Hala

ere, urtarrileko osoko bilkurak Udalaren eta Aldundiaren arteko hitzarmena onartu beharko du. Asmoa da lehenbailehen lanen baldintza-orria onartzea.

MERKATARITZA > GABONETAKO ZOZKETA

Zozketako sari batzuk eskuratzear daude oraindik

1.000 euro eta bi lagunendako afaria, eta 100 euroko bost sari banatuko dituzte merkatariek

I.B. > ESKORIATZA

Herriko merkatarien Gabonetako zozketak oso harrera ona izan du berriro. Saltoki gehienetan bonoak banatu dituzte; mila bono bakoitzean. Ekimena oso arrakastatsua izan da, eta gero eta saltoki gehiagok esku hartzen du.

Gabonen ostean egin zuten zozketa herriko plazan, eta saria jasoko duten sei zenbakiak jakinarazi zituzten. Oraindik ez dira irabazle guztiak agertu, eta antolatzaileek dei egin dute sarien bila joan daitezten. Hain zuzen, lehe-

nengo saria Edurne estetika zentroan banatu zuten.

SARI HANDIA ETA BOST TXIKI

1.000 euro eta bi lagunendako afaria honako zenbakiari dagozkie: 18.281. Horrez gain, 100 euroko bost sari emango dizkiete honako zenbakiak dituztenei: 18.281, 9.217, 16.206, 13.203 eta 6.370, hain zuzen ere.

EZKER ABERTZALEKO OTARREA

Bestalde, ezker abertzaleko ota- rrea 5.544 zenbakiak hartu du.



JENDAURREAN Herriko plazan egin zuten merkatarien Gabonetako zozketa.

AZKOAGA



GAZTETXOEN GUNEETAN Ume eta gaztetxoak jolastan diren guneetan daude kutxa horiek.

IKER BARANDIARAN

EUSKARA > EZEZAGUNEK APURTU EGIN DITUZTE JOKOEN EUSKARRIAK

Jolas-kutxak konpondu egingo dituzte astean

Ume eta gaztetxoek euskaraz jolasteko euskarri berezi horiek apurtu egin dituzte orain dela gutxi

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Udaleko Euskara Zerbitzuak jakinarazi digu udalerrian jarritako lau jolas-kutxak apurtuta daudela, eta datorren astean konpondu egingo dituztela. Jolas-kutxak egin dituen enpresak egindako azterketaren arabera, badirudi kutxa horiek ostikoka apurtu dituztela.

Lau jolas-kutxa zutik eta osorik daude, baina barnealdea apurtuta eta sakabanatuta dute. Hor-taz, aspaldi honetan, ume eta gaztetxoek ezin dituzte barruko jolas eta asmakizunak erabili, eta konpondu beharrean daude.

Udaleko Euskara Zerbitzua jolas-kutxak egin dituen enpresarekin harremanetan jarri da eta datorren astean konponduko dituzte. Konpondu bezain laster, udal teknikariek aho-korapiloak sartuko dituzte kutxen barruan.

EKIMEN AITZINDARIA

Joan den urtean Udaleko Euskara Zerbitzua jakin zuen herriko ume eta gaztetxoek euskararen erabilera jaitzi egin zela. Horri buelta emateko, hainbat ekimen bultzatzea erabaki zuten. Hala, jolas-kutxak jartzea erabaki zuten.

Hain zuzen, lau jolas-kutxa jarri zituzten udalerrian, umeak eta gaztetxoak ibiltzen diren guneetan, hain zuzen ere: Intxaurtxueta jolas-parkean, kiroldegiaren alboan, biblioteka parean eta Olaeta plazan.

JOKOAK, ASMAKIZUNAK ETA BESTE

Ekimenaren helburua da ume eta gaztetxoei euskaraz egin dezaten gailuak eta pizgarriak ahalbidetzea. Hala, giza talde horiek ibiltzen diren guneetan jolas-kutxak jarri eta horien bitartez, euskarazko jolasak, asmakizunak, aho-korapiloak eta beste gerturatu dizkiete.

Are gehiago, gurasoak ere inplikatzeko garrantzitsua da helburua lortzeko orduan.

ERREPIDEAK > BOLIBAR ETA MENDIOLAKO ERREPIDEAK

Aldundiak onartu egin du Bolibarko eta Mendiolako bideak konpontzea

Aldundiak 386.000 euro onartu ditu hiru errepideak konpontzeko; horietako bi Bolibarko eta Mendiolako dira

I.B. > ESKORIATZA

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du Bolibar eta Mendiolako errepideak konpontzeko asmoa daukela. Hala erabaki zuen Diputatuen Kontseiluak iazko abenduaren 26an egindako

biltzarrean. Bolibarko bidea Eskoriatzako udalerrirako dago; Mendiolako, berriz, Aretxabaleta eta Eskoriatzari.

Aldundiak bi errepide horiek bigarren mailako sarean edo sare grisear kokatzen ditu, eta helburua da zorua eta profilak konpondu ondoren, gainazalean konpontzea arin egitea.

HIRU ERREPIDE LEHIAKETARA

Bi errepide horiek eta Zarautz eta Aia artean dagoen Urdanetakoa konpontzeko 386.000 euroko aurrekontua onartu du. Ez dugu jakiterik izan bakoitzari zenbateko kostua dagokion. Oraingoz,

hiru errepideen zorua konpontzeko lanak lehiaketara ateratzea onartu dute.

GI-3344 ETA GI-3354

GI-3344 errepidea, Bolibarko, 2.725 metro luze da eta 5,5 metro zabal, eta GI-3354 errepidea, berriz, 2.435 metro luze eta 5,2 metro zabal.

Bada, Aldundia arduratuta dago, hala jarraituz gero errepide horien estruktura kaltetu egin daitekeelako. Horregatik, gura du lehenik eta behin zorua konpontzea. Horren ostean, errepidearen iragazgaitasuna eta beste gauza batzuk landuko dituzte.

> EUSKARA

Gurasoendako euskara ikastaroetako bat bukatu egin da, eta besteak harrera ona du

Udaleko Euskara Zerbitzuak, herriko ikastetxeekin lankidetzan, iazko irailean indarrean jarri zituen gurasoendako euskara ikastaroak harrera ona izan dute.

Bi ikastaro bereiztu zituzten: bata, guraso euskaldunek hizkuntza hobetzeko. Horretan zortzi lagun aritu ziren eta Gabonak aurretik bukatu zuten; bestea, euskararik ez dakiten gurasoendako. Azken horretan bederatzita lagun dabilta buru-belarri eta Aste Santura bitartean hala jarraituko dute.

Ekimenaren helburua da gurasoak seme-alabekin euskaraz aritzeko ahalik eta erraztasun handien izatea. Ezer ez dakitenek oinarritzko gauzak ikasten dituzte: zenbakiak, jokoak...

> ETXEBIZITZAK

Arbiñosten egingo dituzten etxebizitza tasatuen zozketa apirilaren bukaeran izango da

Azkeneko Udaleko osoko bilkuran onartu zuten Arbiñosten (Santa Marina) Visesa eta Goitu sustatzaileek egin behar dituzten etxebizitzaren zozketa. Orain, beste pauso batzuk eman aurretik, itxaron egin beharko dute Jaurlaritzak lur kutsatuen gaineko jakinarazpena noiz eman. Hala, horren ostean, lizentzia ematea onartu beharko lukete.

Visesak 31 etxebizitza tasatu egingo ditu, eta Goituk, berriz, merkatu askeko 16 etxebizitza. Horrez gain, etxebizitza gehiago egingo dituzte aurrerantzean.

Udalak eta Visesak bultzatutako 31 etxebizitza tasatuei dago-kienez, Udalak jakinarazi du horien zozketa apirilko azkeneko astean egingo dutela.

> KULTURA

Zapatuko Inkernuko kontzertua bertan behera gelditu da, Zainax-eko musikaria gaixo dagoelako

Bihar, zapatua, Irungo Zainax taldeak kontzertua egin behar zuen Inkernu tabernan. Baina, zoritxarrez, izen horren atzean dagoen Oskar Benas musikaria gaixotu egin da, eta aurreikusitako emanaldia otsailera atzeratu behar izan dute. Besteak beste, Fermin Muguruzaren taldearekin, The Solanosekin eta Zizateh taldeekin aritu izan da Benas.

Bestalde, Aitzorrotz kultura elkarteak baditu antolatuta bestelako ekimenak urtarrilerako: Irlandaren gaineko jaia, film emanaldia, Euskal Herriko une sozial eta politikoaren gaineko mahai-ingurua, Kemen Lertxundiren kontzertua eta beste batzuk.



GOIENKARIA

Trukaroren aurkezpena, egunean

Egunean, hilaren 18an, Trukaro programaren aurkezpena egingo dute kultura etxean, 18:00etan. Trukaro dirua erabili barik elkarri laguntzeko programa bat da. Egindako lana ordutan neurtzen da eta ordutan ordaindu. Lana lanaren truke. Iaz sortu zuten programa, eta harrera ona izan du. Aurkezpena Trukarok eta erretiratuen elkarteak antolatu dute.

ALKATEA GOITB-KO 'DEBARRI' SAIOAN > SEGURUENA EZ DA MAIATZEKO HAUTESKUNDETARA AURKEZTUKO JOSE ANGEL ZABALO

Bidegorria egiteko dirua emango du Foru Aldundiak

EAJ-EA koalizioak aurkeztutako programa ia osorik bete dutela esan zuen

Errekako lanak Aste Santu ingururako amaituta egongo direla iragarri zuen alkateak

AINZANE IRIZAR > ARRASATE

Eguaztenez, Alberto Gorritibereak zuzentzen duen GOITBko *Debarri* saioan izan zen Jose Angel Zabalo Antzuolako alkatea.

Ia lau urte bete dira Zabalok kargua hartu zuenetik, eta agintaldiari gainbegiratu orokorra eginez hasi zuten elkarrizketa. Zera esan zuen alkateak: "EAJ-EA koalizioak aurkeztu genuen programa garbia zen eta han batutako proiektu eta asmo ia guztiak bete ditugu; industrialdea bakarrik geratu zaigu airean".

ERREKA ETA ETXE HUTSAK

Hainbat herritarrek egindako galderetan oinarritu zuten saioaren zati handiena. Errekaren gaiarekin ekin zioten; erreka bistarreak herriko plazaren itxurari ekarriko dion aldaketa izan zuen hizpide Zabalok, eta zera azaldu zuen: "Jendearendako, herritarrendako plaza izango da Antzuolako, eta ez automobilendako". Aste Santu ingururako lanak amaituta egongo direla ere aurreratu zuen.

Herritarrek honako galdera ere egin zioten: etxe hutsekin zerbait egiteko asmoa ote duen Udalak. "Etxe berri asko eraiki da herrian urteotan; gure hurrengo erronka da etxe zaharrak berrietzea. Zergak igotzearekin ez dut uste ezer lortuko dugunik; egin behar dena da alde zaharra berpizteko laguntzak eskaini", erantzun zuen alkateak.



DEBARRI Alberto Gorritiberea kazetaria eta Jose Angel Zabalo eguaztenezko saioan.

A.L.

KIROL INSTALAZIOAK

Kirol instalazioak ere izan zituzten hizpide *Debarri*-n: "Oraingo futbol zelaian inbertsio handiak egitea ez du merezi, nire ustez. Kokapen berria topatzearen aldekoa naiz eta Iriarteko zelaian egitea planteatuko nuke", adierazi zuen alkateak. Bestalde, frontoiari erabilera handiagoa eman behar zaiola esan zuen.

Igerilekuaren gaia jarri zuen mahai gainean Gorritibereak; horrekin lotuta zera adierazi zuen Zabalok: "Egitekotan, ganorazko zer edo zer egitearen aldekoa naiz. Gakoa da alde batera laga behar dugula ikuspegi lokalista". Bergarako igerilekuez ari zen alkatea. Gakoa komunikazio bide egoki eta indartsuak jartzea

dela esan zuen: "Bergararekin beti izan dugu harreman estua eta hori indartu behar dugu".

BIDEGORRIA EGITEKO ASMOA

Berri garrantzitsua ere jakin genuen: Aldundiak agindu dio Antzuolako Udalarari diru bat emango diola, Bergararainoko bidegorria egiteko. Errepide zaharra erabiliko dute horretarako. Uzarraga auzotik Bergarako Urteaga kaleraino doana.

AURREKONTUAK PRESTATZEN

Epe laburrean aurrekontuak prest egongo direla iragarri zuen alkateak. Azkeneko urteotan inbertsio handiak egin dituzte herrian eta orain errekupeztzeko garaia da. Araudiak eta orde-

nantzak landu eta bestelakoak egitea da orain Udalaren helburua, eta ez inbertsio handiak egitea.

Gorritibereak, nola ez, maizteko hauteskundeetan aurkezteko asmorik baduen galdetu zion; erantzuna, hauxe: "Oraindik ez dut erabaki, baina, osasun arazoengatik, ezetz aholkatu didate; pena handia ematen dit, lanean jarraitzeko ilusioa nuen".

Baserriak, ur hornidura, Maiuraren Alardea, GOITB, Gizarte-Kultura Etxea, AHT eta Beasain-Durango ere izan zituzten berbetarako gai.

Amaieran, Brasilen misiolari dagoen Juan Antonio Lizarralderi elkarrizketa laburra egin zion Gorritibereak.

> ODOL EMAILEAK
Odol ateratzeak egingo dituzte datorren eguenean

Antzuolako Odol Emaileen batzordeak jakinarazi digu odol ateratzeak egingo dituztela datorren asteko eguenean, hilak 18, 17:30ean hasita, Olaran etxean. Horixe iragartzeko eta urte berriarekin asmo berriak izaten ditugunez, jendea animatzeko gutunak banatu dituzte etxez etxe.

> MANIFESTAZIOA
Ibarretzek deitutako manifestaziora joateko autobusa

Antzuolako EAJ-PNV eta EA alderdiek autobusa antolatuta dute Ibarretzek deitutako manifestaziora joateko. Bihar, zapatua, izango da manifestazio hori, Bilbon.

Ez dago autobuserako ize-na eman beharrik; nahikoa izango da 15:30ean Olarango geltokira azaltzea.

> INAUTERIAK
Inauterietarako entseguak hasi dituzte

Orain dela bi aste hasi zituzten aurtengo Inauterietarako entseguak, Oinarinek antolatuta. Herritarren parte hartzea bultzatzea izaten da ekimen horren helburua. Aurtengo, Iparraldeko Muxikoen dantza egingo dute. Martitzenero, 20:00etan, elkartzan dira Eguzki Auzoko lokalean.

> JAIOTZAK
Azkeneko urtetako jaiotza kopuru altuena 2006an

33 ume erroldatu dituzte udalletean oraingoan, baina, badakigu beste lau ere jaiotzeak. Azkeneko urteotako kopururik altuena da.

Aipatzekoa da, bestalde, 36 horietatik, 25 mutikoak direla eta hamaika besterik ez neskatilak.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaza
**Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzea**
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaza
**Apainketarako eta
industriarako pinturak**
•
Paper margotzak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

bere ustez



Ana Gillegi

Kosmetika eta sustantzia kaltegarriak

Publizista zein produktoreek ondotoxo dakite *naturala* hitzak saldu egiten duela. *Kosmetika* hitzak Grezian du bere jatorria eta *apaingarria* esan nahi du, naturaltasunera lotuta agertzen da sarri. Kosmetikaren munduan araudi ofizialik ez dago. Horregatik iruzur askoren aurrean egon gaitzke *natural* hitz horren babilian. Hauxe gomendatzen dizuet, irakur ditzazuela eskura dituzuen potoen etiketak. Laster ohartuko zarete, kimikari profesionalak izan gabe,

"Kosmetikan araudi ofizialik ez dago eta horregatik iruzur askoren aurrean egon gaitzke"

industria petrokimikoan erabiltzen diren sustantziez osatuta daudela. Sustantzia hauek giza osasunarentzat kaltegarriak direla ezin uka. Hurrengo zehazten ditudan sustantziak gogoan izan oparitu dizuten krema hori erabiltzeko orduan; eta kremez gain, gel, xanpu edo zuen gorputza *zaintzeko* erabiltzen dituzuen produktuak erabiltzean. Paraben: Britainia Handian egindako ikerketa batzuetan, Paraben mota batzuk bularreko minbiziarekin erlazionatu dituzte. Kontuan izan hauek ere: Phthalates, Polietilenglicol eta Alkynophenols. Lau hauek sustantzia kimiko artifizialak dira eta kosmetikaren munduan 6.000 inguru erabiltzen dira.

ERASOAK > TXAKURREK ARDIEI ERASO EGITEN DIETE

Azken eraso Beizu baserrian izan da; ez dute ardirik akabatu, baina kalteak eragin dituzte

Txakurren erasoak ugaritu egin dira urritik hona eta artalde jabeak kontu horrekin kezkatzen hasiak daude

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Azken eraso Beizu baserriko Enrike Astolaren artaldeari egin diote. Oraingo honetan, txakurrek ez diote ardirik akabatu, baina kolpe handiak hartu dituztela esan digu Astolak: "Ardiak, orain, umatzeko daude, eta, dituzten kolpeak ikusita, litekeena da askok umea botatzea".

Kezkatuta daude artaldea duten baserritarrak. Azkenaldian erasoak ugaritzen ari dira Elgeta aldean eta ez ditu inork eragindako kalteak bere gain hartzen. Ardi bakoitzak 90 euro inguru balio duela esan digute artzainek. "Txakurren jabeak aurkitu beharko nituzke, baina ez ditut artaldeari eraso egiten ikusi eta horrela ezin dut inor salatu". Erasoa gauez izan zen, eta Astolak ez zuen ezer ikusi.



ARDIAK umatzeko daude, eta erasoak inoiz baino kaltegarriagoak dira. GOIATZ ARANA

BASERRITARRAK, KEZKATUTA

Larrabil baserriko Enrike Ormaetxeak ere badu txakur erasoan berri. Bost ardi akabatu dizkiotela adierazi dio GOIENKARIAri. Larrabil eta Beizu baserrietan ez ezik txakurrek Mistei eta Olei baserriko artaldeeire ere eraso egin dietela dio Enrike Ormaetxeak.

Txakur galduen hipotesia darabilte Beizun, baina Larrabilen beste susmo bat dute. Uste dute txakur ikasiak direla eta jabeek ez dituztela behar den moduan lotzen. Hark artzain aleman arrazako txakur bat eta boxer arrazako beste bat erasoan ikusi dituela ziurtatzen du.

ERRETIRATUEN AUZIA > ERRETIRATUENDAKO ALTERNATIBA EGOKIA AURKITUKO DUELA DIO EAJ-EA-K

Ez dago akordiorik, eta Aralar ikusten du Ozkarbiren ezetzaren atzean EAJ-EAk

"Ozkarbiko zuzendaritzan Aralar talde politikoko kide batzuk daude", dio EAJ-EAk, eta "gaia politizatu egin dute"

L.Z. > ELGETA

Elgetako EAJ-EAk uste du erretiratuena auzia politizatu egin dela eta auzia konpontzen ez bada Aralar dela egoeraren erantzule zuzena: "Ozkarbiko zuzendaritzan Ara-

lar talde politikoko kide batzuk daude eta gure ustez gai hau erabili nahi dute Udalaren aurka joateko; gaia politizatu egin dute".

EAJ-EAK GOIENKARIAri bidalitako prentsa oharrean, erretiratuena auzia gaztelekuaren auziarekin lotzen dute. "Ozkarbi elkartearen ezetzaren ondorioz eraman dugu udal gazteleku eskola zaharretara". Aralarrek erabaki hau ere kritikatu izana ez dela kasualitatea adierazi dute prentsa oharrean. EAJ-EAK uste du larria dela benetan interes politikoko jakin bat herriaren interesen gaitetik egotea.

3.000 EURO EZTABAIDAN

Gogoratu behar dugu Ozkarbi elkarteak 9.000 euroko diru kopurua eskatzen diola aurten Udalari elkartearen hartzen dituen 150 erretiratuerei zerbitzua eskaintzen jarraitzearen truke. Idatzian, EAJ-EAK honakoa adierazten du: "Guk gure proposamena mantentzen dugu: 2006. urtean 6.000 euroko alokairua eta 2007. urtetik aurrera kopuru horri KPIa gehitzea. Guk Elgetako erretiratuendako onena nahi dugu eta posible bada Ozkarbin, baina lasai, Ozkarbin ez bada ez ditugu kale gorrian utziko... Alternatiba egokia izango dute".

LIBURUTEGIA, 'ON-LINE'

Liburutegia, laster euskal liburutegien sarean

L.Z. > ELGETA

Liburuak sailkatu, bakoitzari euskal liburutegien sarean alta eman eta signatura topografikoa jartzen dihardute hilabeteotan Elgetako Udala Liburutegian. Ane Berasategi bergararrak jarri du automatizazio prozesu hori martxan, baina orain, beste batek hartuko du lekukoa udal liburutegian Maria Elena Eztenagaren ondoan.

Udaberrirako lana amaitzea zen asmoa, baina behin hasita konturatu dira liburutegia gaurkotzea eta garbiketarako sakona egitea ere merezi zuela. Horrela, bada, luzatu egingo da prozesua.

BERRIKUNTZA NABARMENAK

Prozesua amaitutakoan, erabiltzaileek ordenagailu bidez aurkituko dute liburuak liburutegian duten kokapena. Gainera, beste liburutegietako maileguak ere egin ahal izango dituzte etxetik bertatik.

> POSTONTZI BERRIAK

Baserritarren postontziak, Andra Mari plazara

Otsailetik aurrera postontzi berriak izango dituzte Elgetako baserritarrek. Egun udalleteko arkupean daudenak hondatuta daude eta berriak jartzea onartu dute astelehen egindako baserritarren batzordean.

Postontzi berriak Andra Mari plazara arkupean jarriko dituzte. Baserritarrek bi giltza izango dituzte: bata postontzia bera zabaltzeko eta bestea postontziak babesteko jarriko den atea irekitzeko.

Aurrerantzean, beraz, baserritarren posta ez da orain arte bezala denon eskura egongo.



Goiena Telebista

Ikustekoa!

DEBARRI / Babeslea



Elgeta hizpide

DEBARRI

Patxi Basauri, Elgetako alkatearekin berbetan

Asteazkena 17, 21:15ean

Alberto Gorritibereak aurkeztuta

Aurrez galderak egiteko: www.goiena.net webgunean edo 943 71 23 91 telefono zenbakian.



UDALA > AURREKONTUA

Aurrekontuaren inbertsio handiena Eguzkierriparako da

Aurrekontu osoa da 1.761.664,81 euro; iazkoa baino %4 handiagoa

Partida handiena Udalak ematen dituen zerbitzuendako izango da: 598.747,97 euro

UBANE MADERA > ARAMAIO

Udalbatzarrak aho batez onartu zuen osoko bilkuran aurkeztutako aurrekontu proposamena: 1.761.664,81 euro; iazkoa baino %4 handiagoa.

Laster, onartutakoa jendarean ipiniko dute, alegaziorik balego haiek hartzeko. Hain justu ere, Arabako buletinean argitaratu ostean, 15 eguneko epea zabalduko dute horretarako. Ezustekorik ezean, hil honetan argitaratuko dute.

UR KONTAGAILUAK

Orokorrean begiratuta, ez da ezusteko askorik izango 2007ko aurrekontuan. Azken urteotan bezala, aurten ere udal zerbitzuendako izango da aurrekontu osotik partida handiena: 598.747,97 euro. Eta zerbitzuen barruan, Udalaren garbitasunerako izango da diru kopuru handiena: 60.985,41 euro.

Bigarren partida handiena, berriz, izango da kiroldegia datozen bi urteotan kudeatzeko: 57.761,60 euro.

Bestalde, Zerbitzu Sailean beste bi partida ere onartu ditu Udalak: batetik, ur-kontagailuendako 10.000 euro; izan ere, Udalaren asmoa da apurka-apurka kontagailu elektrikoak ipintzea Aramaion. Bestetik, 6.000 euro bideratuko ditu Haurreskola berriaren mantentze eta garbiketarako lanak egiteko.

Beste datu batzuk aipatzearen, 45.160,50 euro eramango ditu zabor bilketak eta beste 23.680 euro uraren kalitatea zaintzeko lanek.

EGUZKIERRIPAKO LANAK

Ohikoa da, baita ere, udal aurrekontuaren zati handi bat izatea Ogasun Sailarendako, hortxe kontabilizatzen dituzte-eta Udaleko langile gehienek soldatak, udal txearen aseguru eta Udalean erabiltzen duten materiala, adibidez. Hala, 2007an, 459.558,49 euro bideratuko dituzte halakoetarako.

Edozelan ere, herritarrek gehiago igarriko dituzte Hirigintza Sailetik bultzatuko dituzten inbertsioak. Sail horrek hartzen



KULTURA ETXEA Besteak beste, Udalak mailegua eskatu zuen kultura etxea egiteko; 2009an bukatuko du ordaintzen. U.M.

Aurrekontua sailez sail

| | KOPURUA EUROTAN |
|-----------------------------|-----------------|
| Zerbitzu Saila | 598.747,97 |
| Ogasun Saila | 549.558,49 |
| Hirigintza Saila | 388.515,12 |
| Kultura Saila | 138.108,13 |
| Euskara eta Hezkuntza Saila | 98.525,82 |
| Mendi Saila | 82.815,76 |

du hirugarren partida handiena: 388.515,12 euro. Hala, kopuru horretatik 233.778,40 euro erabiliko dituzte Eguzkierripan azpiegitura lanak egiteko. Hain zuzen ere, argindar eta telefono hornikuntzak egingo dituzte. Eta beste 55.405,75 euro bideratuko dituzte Arriolako azpiegitura lanak bukatzeko.

Azpiegiturakin bukatzeko, Udalak aurreikusitako 24.000 euro bideratzea herriko bideak konpontzeko.

KULTURA ETXEA ETA JAIK

Kultura Sailari dagokionez, berriz, 138.108,13 euroko aurrekontua zehaztu dute; hortik kultura etxearen kudeaketarendako 39.258,13 euro bideratuko ditu Udalak, Kulturako partida handiena. Eta herriko jaiendako apurtxo bat gutxiago gordeko du: 35.650 euro. Jakina, kopuru horre-

atik zatirik handiena izango da Ibarrako jaiak ospatzeko: 23.500 euro, hain zuzen ere. Horrez gainera, beste 4.700 euro gorde ditu jai berezietarako; alkateak esandako moduan, dantza taldeari omenaldia egiteko erabiliko dute horko zatik bat, esaterako.

Bestalde, herriko kultura taldeen artean banatzeko 8.500 euro gorde ditu Udalak; musika irakaskuntzako 4.800 euro; udal kirol elkarteendako 4.600 euro; pilota partiduak antolatzeke 4.000 euro, eta emakumeen asterako beste 2.000 euro.

EUSKARAREKIN LOTUTAKOAK

Euskara Sailetik, berriz, euskarazko komunikabideak bultzatzeko erabiliko dute partida handiena: 17.315 euro, bereziki, Goiena Komunikabideendako. Uemari (Udal Euskaldunen Mankomunitatea) eta Elejirari (kul-

DATUA

164.434

EURO

Udalak 678.434 euro eskatu zituen mailegu, bi lan egiteko: kultura etxea eta Oletan obrak. Bada, 164.548 euro ordaintzea falta zaio orain. 2009rako guztia likidatuta izatea aurreikusitako dute.

tura zirkuitua), berriz, 7.119 euro bideratu dizkie.

Horrez gainera, *Kirola Euskaraz* ekimenerako bideratuko ditu 7.050 euro; eskola garraiorako izango dira 7.000 euro; euskararen kalitatea zaintzeko 6.000 euro; Aramaio web orrirako (www.aramaio.org) beste 5.186,20 euro; bertso eskolarendako 2.550 euro eta guraso elkar-terearendako 2.200 euro.

BASO LANDAKETAK EGITEKO

Eta, bukatzeko, aurtengo aurrekontuan zehaztu dute Mendi Sailearendako 82.815,76 euro izatea. San Adrian eta Durakogain mendietan baso landaketak egiteko izango da hortik partida handiena: 51.315 euro eta baso-bideen mantentze lanendako hurrengoa: 30.000 euro.

AZPIEGITURAK

AHTren gaineko galdeketa egingo dute

Ez dute zehaztu noiz izango den, baina ahalik eta lasterren egin nahi dute

U.M. > ARAMAIO

Udalbatzarrak onespina eman dio Abiadura Handiko Trenaren gaineko galdeketa egiteko eskaerari.

Hala, herri kontsulta egin ahal izateko, lantalde bat osatu dute. AHT Gelditu Elkarlaneko bi kidek eta Udaleko EAJ eta EA alderdietako bina ordezkari osatu dute talde hori. Lehenengo batzarra Errege ostean egin nahi zuten; esan dutenez, ahaleginduko dira oraingo astean egiten, baina artikulua hau idaztean oraindik eguna zehaztu barik zuten.

ESKERRAK EMAN NAHI

Bestalde, AHTren kontrako taldeak eskerrak eman nahi dizkie euren sinadurarekin herri kontsulta bultzatzen lagundu duten herritarrei.

ERRETIRATUAK

Mus txapelketa jokatu dute bihar

15:30ean hasiko dira partidak; 16 bikotek parte hartu ahal izango dute

U.M. > ARRASATE

Bihar, zapatua, mus txapelketa jokatu dute erretiratuen egoitzan, Alaiak erretiratuen eta pentsiodunen elkarteak antolatuta.

15:30ean hasiko dira partidak jokatzeko. Asko jota 16 bikotek parte hartu ahal izango dute. Bakoitzak 18 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko.

GERO, AFARIA

Sariei dagokionez, honako hauek izango dira: lehenengo bikotearendako garaikurra eta urdaiazpikoa; bigarrenendako bakailao bana; hirugarrenendako gazta eta laugarrenendako xanpain eta ardo botilak.

Txapelketaren ostean afaria izango da guztiendako.

URA > ITURBURUA LEHORTU DA

Gaztainuzketako etxeei ura ematen zien Lapikozulueta iturburua lehortu egin da

Autobideko lanen eraginez izan delakoan daude, eta hainbat teknikari joan ziren neurketak egitera

Marotobasoko iturburutik eroango dute orain ura, eta lanak bukatzen dabilta

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Ezusteko galanta izan dute Gatzagan Gabon garaian. Gaztainuzketako mendi etxeak ur barik geratu ziren. Antza, autobideko lanek iturburua lehortu dute.

LAPIKOZULUETA, LEHORTUTA

Gure Ametsa jatetxe gainaldean zegoen Lapikozulueta iturburua, eta garai baten bertako urek hornitzen zuten Gatzaga herria. Iturburuak, baina, dagoeneko ez dauka uririk. Halaxe azaldu digu Jon Sasiain zinegotziak: "Autobide-

ko lanek lehortu dutela uste dugu, eta, antza denez, egin duten tunelerantz bideratu dira urak". Horren berri jakin orduko deitu zuten Udaleko ordezkariak Bidegira, eta abenduaren 28an hainbat teknikari azaldu ziren. Bien bitartean, kamioian eraman zuten ura Gaztainuzketako ur-depositua -20 mila litro inguru ditu- betetzeko.

HERRIKO AZKEN ITURBURUA

Lapikozuluetakoa lehortuta, beste iturburu bat aurkitu behar

izan dute. Jarindo menditik gertu dagoen Marotobasotik eramango dute orain ura: "Herrian geratzen zaigun azken iturburua da Marotobasokoa, ez dauka gu besterik", azaldu digu Sasiainek. Hondeaketa-lanak egiten dituen Arabako Aitzur enpresari deitu, eta lehenbailehen hasi zituzten lanok. Marotobason depositua egingo dute ura hartzeko, eta gero, lurperatutako hodian bitartez Gaztainuzketaraino eramango dute: "Lehenengo egunetan hodia lur gainean utzi genuen, baina izozteen erruz arazoak izan genituen. Hori ikusita, geu hasi ginen zanga egiten", dio.

Lehortutako iturburua ikustera joandako teknikariak hainbat neurketa egin zituzten. Eta, jasotako emaitzak aztertu eta gero, iturburu berritik Gaztainuzketara ura eroateko egin beharreko lanen aurrekontua egiteko eskatu zion Udalarari Bidegik. Lanek 24 mila euroko inguruko kostua izango dute.

> LANAK

Hasi dira udaletxe alboko parkea konpontzen

Udaletxe alboan dagoen parkea konpontzeko asmoa zuen Udalak, eta dagoeneko hasi da daude lanean. Urak arazok sortzen zituelako parke alboko etxean erabaki zuten konpontzea, eta, hain zuzen, horregatik bota zituzten bertan zeuden hiru pinu handiak. Urak bideratu dituzte, eta hezetasun arazorik izan ez dezaten etxean asfaltozko geruza jarri diete. Mandoi eraikuntza enpresa dabil lanok egiten, eta ondoren, harmaila egingo du parkearen atzeko partean. Haren gainean hesia jarriko dute. Lan horiek guztiak bukatuta koan belarra ereingo dute, eta txintxaun berriak jarriko dituzte ume eta gaztetxoek jolas egiteko.

Gasteizera irteera herritik pasatzen den autobusa hartuta

Gabon garaiko oporrak aprobetxatuta, Gasteizera irteera egitea erabaki zuten Gureleko kideek. Gainera, joan-etorria herritik pasatzen den autobusean egitea erabaki zuten. Hala, 22 lagun inguru -ume eta guraso- elkartu ziren geltokian, baina tokirik ez guztiendako autobusean, eta batzuek autoan joan behar izan zuten. Behin Gasteizera iritsita nagusienak izotz pistara hurreratu ziren, eta txikiak, 3 urtekoak, txiki parkera. Ederto ibili ziren guztiak ere.



M.A.

> INTERNET

Hilaren 15ean eta 29an egongo da begiralea KZgunean

Datorren astelehenean, hilaren 15ean eta 29an hurreratu da Aitor Madrid begiralea KZgunera. 09:00etatik 13:00ak bitartean egongo da bi egunetan edozein zalantza duenari laguntzeko gertu, eta, bide batez, ikastaro bi eskainiko die herritarrei.

Astelehenean, Adobe Acrobat Reader programa zela erabili erakutsiko du, 10:00etatik 12:00etara bitartean, euskaraz. Aipatutako programa pdf formatuak irakurtzeko erabiltzen da.

Hilaren 29an, astelehena, Euskara ziberespazioan izeneko ikastaroa egingo du, 11:00etatik 13:00etara. Euskarazko materiala: hiztegiak, liburuak... zela bilatu Interneten erakutsiko du.

'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

Antzuola Kirol Elkarte 06-07 astelehen honetan, Asteleheneko Goienkaria-rekin.

Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero *Asteleheneko Goienkaria*-k. Oraingo astelehenean, hilak 15, Antzuola Kirol Elkartearen futbol sailarena argitaratuko dugu. Antzuolako bi futbol taldeen argazkiak handiz eta jokalarien izen-abizenak jasoko dituzu, erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Asteleheneko Goienkaria*.



Itziar Mallabiabarrena > Saskibaloia jokalaria

"Ziurrenik ez dut jokatzeko jarraituko Hondarribian"

JOKIN ETXEBARRIA > ARRASATE

Erreginaren Kopa Txapelketa jokatu berri du Hondarribia-Irunek eta Itziar Mallabiabarrena bertan egon da, nahiz eta ez duen minutu bat bera ere jokatu. Aukera gutxi izateaz nazkatzen hasi da dagoeneko arrasatearra, eta datorren urterako beste talde bat bilatzea pentsatzen dabil.

Erreginaren Kopan finalerdietan galtzeak nolabaiteko gazi-gezotasuna utzi du taldean?

Egia esan, bai. Bartzelonaren aurka ez genuen partidu ona egin, eta, hala ere, irabazi egin genuen. Ros Casares egokitu zitzaigula jakin genuenean, nolabaiteko mesfidantza sortu zen taldean. Izan ere, ligan 36 puntugatik irabazi genien, baina talde hori beti da txapelketa irabazteko faborito. Eta gure kontra ondo erakutsi zuten. Sekulako jipoia eman ziguten hasieran. Hala ere, partiduari buelta emateko kapaz izan ginen eta irabazi egin behar genuela uste genuenean, epaileek laguntza ederra eman zieten eta puntu bakarragatik irabazi ziguten.

Nahiko polemika sortu da epaileen azken erabaki horrekin, ezta?

Bai, noski. Falta adierazi zuten Tornikidou tartean zelako eta Ros Casaresek aurrera jarrai zezan horrela behar zuelako izan, eurendako azken aukera baitzen. Bideoan argi eta garbi ikusten da

faltarik ez dagoela, baina zoritxarez kirol honetan oraindik ere izenek pisu handiegia dute.

Hirugarren kanporaketa da jarraian gerora irabazle izan denaren kontra galtzen duzue-na.

Datu hori ez nekien, baina hori kasualitate hutsa da. Ros Casares, Perfumerias Avenida, gu geu eta Bartzelona bera finalean egon gaitezkeen taldeak gara eta normala da euren aurka partiduak galtzea.

Hasieran kili-kolo ibili ostean, esan daiteke hasi zaretela zuen maila berreskuratzen?

Nahiz eta taldean aldaketa askorik ez ziren egon, elkar ulertze arazo dezente egon ziren denboraldi hasieran. Gaizki jokatzeko genuen, baina talde honek oso jokalaria onak ditu eta gutxi-ka-gutxika bagoaz gorantz.

Zer moduz fitxaketa berria?

Iziane Castro Brasilgo selekzioarekin jokatzeko ikusi nuen lehenengo aldiz eta sekulako jokalaria zela iruditu zitzaidan. Hondarribiara etortzea zorte handia izan da guretzat, eta taldearentzako jokalaria garrantzitsua izango dela uste dut.

Lehiaketak ez du atsedetik ematen. Kopa amaitu eta segituan Bulgariara?

Bai, eta Sofiatik etorri eta hurrengo egunean ligako parti-



Itziar Mallabiabarrenak (berdez) eduki dituen minutu apurrak ondo aprobetxatu ditu.

TXINGUDI SASKIBALOI ELKARTEA

dua. Bi txapelketatan ibiltzeak hori dauka, ez zarela geldirik egoten. Horrek gutxienez minutu batzuk jokatzeko balioko balu...

Egia da, aukera askorik ez duzue izaten, ezta?

Iaz ez nituen izan eta aurten desberdina izango zela adierazi zidan entrenatzaileak, baina berdin jarraitzen dut. Badirudi atzeritarra izan behar duzula jokatzeko, eta nazkatzen hasita nago. Txakartegik jarraitzen badu, ziu-

rrenik ez dut Hondarribian jokatzeko datorren denboraldian.

Talde bila hasi zara da orduan?

Ez, oraindik goizegi delako. Hala ere, uda aldean hori gertatzea litekeena da.



OBERENA Horixe izango dute aurkari asteburuan Arlutzekoek.

ARTXIBOA

XAKEA > IRUÑEKO OBERENA TALDEA IZANGO DA LEHEN AURKARIA

Euskadiko ohorezko mailari eusteko nahiarekin hasiko du denboraldia Arlutzek

Oberena eta Sestao taldeak igo berriak izan arren, lehen postuetan ibiltzeko faboritoak dira

J.E. > ARETXABALETA

Bihar, Iruñean, Aretxabaleta Arlutz xake taldekoek denboraldiko lehen neurketa jokatu dute. Aurkaria ez da nolanahikoa: Oberena taldea aurten igo da Euskadiko ohorezko mailara, baina taldean bi jokalaria profesional daude eta goiko postuetan egoteko moduko taldea da. Hala ere, Fran eta Andoni Miguel anaiek, Esteban Romerok eta Aitor Alcaidek ahalegin guztiak

egingo dituzte ahalik eta puntu gehien lortzeko.

Gainera, bai Alcaidek eta baita Andoni Miguelek ere sasoi onean daudela erakutsi berri dute. Alcaide seigarren sailkatu zen Iruñeko nazioarteko txapelketan eta Andoni Miguelek Oñatiko xake txapelketa irabazi zuen.

Bada, dena beharko dute aretxabaletarrek, mailari eustea geroz eta gaitzagoa da-eta; izan ere, Oberena eta Sestao dira mai-

lax igo diren talde berriak, eta biek ere lehen postuetan amaituko dutela ematen du, talde oso sendoak egin baitituzte. Beraz, beheko postuetan ez sartzeko lehiarako talde gutxiago gelditzen dira.

ARRASATEARRAK, HARROBIAREKIN

Arrasateko San Andres xake taldeak lehen mailan jokatzeko du aurten, eta, taldea egiteko arazok eduki eta gero, mailari eustea izango du helburu. Hala ere, harrobia ederto lantzen dabilza eta hurrengo urteetarako talde sendoa osatuko duten esperantzarekin daude.

FUTBOLA > PREFERENTE MAILA

Sailkapeneko bigarren postua lortu nahi du Mondrak, liderrari irabazita

Aretxabaletak Trintxerperi egingo dio bisita sailkapeneko goiko postuen bila; Aloña Mendik, ordea, Idiazabalen jokatu du zapatuan

JOKIN ETXEBARRIA > BERGARA

Joan den astean Aloña Mendiren aurkako partidu zoroan 3-3 egin eta gero, Mondrak sailkapeneko bigarren postua galdu zuen. Bada, aste bukaeran etxean jokatu dute Igor Gordobilen mutilek, baina galdutako postua berreskuratzeko ez da kontrario proposena izango Atxabalpen: Mondrak Zarautzen aurka neurtu beharko ditu indarrak. Zarautzarrek 16tik 11 partidu irabazi dituzte, alde nabarmenarekin daude lider sailkapenean, eta hirugarren mailarako bidea aldan behera dutela esan daiteke. Baina Mondrak bere denboraldi onarekin jarraitu nahi du, eta



LIDERRA ARRASATEN Mondrak Zarautz liderraren aurka jokatu du asteburuan Atxabalpen.

GOIENKARIA

liderrari irabaztea taldeko moralarentzat ezin hobea izango litzateke. Sailkapeneko bigarren postua lortu eta hirugarren maila-

ra bueltatzeko ametsari eusteko aukera dauka Mondrak zapatuan, arratsaldeko laurak laurden gutxiagotan hasita.

BESTE BIEK, KANPOAN

Preferente mailako gure bailarako beste bi taldeek kanpoan jokatu dute aste bukaeran.

Aretxabaletak ahaztua du denboraldi hasiera kaxkarra eta Trintxerperi zapatuan irabaziz gero taulan nabarmen egingo luke gora. Hala ere, Don Boscon jokatzeko duen taldea beti izan da kontrario zaila. Joan den astean Zarautz liderrak uste baino gehiago sufritu zuen Trintxerperi irabazteko eta UDakoek ez dute partidu erraza izango.

Aloña Mendik ere kanpoan jokatu du, zapatuan. Mondraren, etxean, bi jokalarik gutxiago zituztela azken minutuetan berdindu eta gero, sailkapenaren erdialdean jarraitzen dute oñatiarrek. Edozelan ere, Idiazabalen irabazita, hurrengo asteetan lasaiago egoteko moduan egongo lirateke. Baina Idiazabal Zestoaren aurka sekulako jipoia jasotzetik dator, eta zaleen aurrean joan den astekoa hutsegite bat besterik ez zela izan erakutsi nahiko dute.

Bestalde, lehen erregionalean, Bergarak Zumaiako liderra hartuko du Agorrosinen. Denboraldi kaxkarrari buelta ematen hasteko liderrari irabaztea ez litzateke txarra izango.



www.udaleuskaltegiak.net

matrikula zabalik

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza 2
(Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ondoan)
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88 • Fax: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4, 20.550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 21 68 / Faxes: 943 79 92 62
Intxartxueta 10, 20.540 ESKORIATZA
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

HABEren dirulaguntzaz.

UDAL EUSKALTEGIAK

Euskara ikasteko biderik gertukoena, erosoena eta errazena

etxean bezala

25 urte
43 zentro
Todos los niveles
Horarios personalizados
Bekak, HABEko
diplomak...



Cristina López (Elgoibar), Oscar Tena (Tolosa), Leticia Viafara (Leintz),
Juan Andrés Rodríguez (Azpeitia), Mari Carmen Barreiro (Pasaia), José Valdivielso (Legazpia), Jesusa Esnaola (Lasarte).



ELURRA Mendi elkarreak elurra egin zain daude horrela eskiatu ahal izateko.

GOIENKARIA

ESKIA > DATORREN ASTEAN HASI ETA ASTE SANTUA BITARTEAN IRTEERAK EGINGO DITUZTE

Debagoieneko mendi elkarreendako eski denboraldia hasi da

Elurra egoteak edo ez egoteak baldintzatuko ditu irteera gehienak, baina Pirinioak eta Alpeak debagoiendarrez beteko dira aurten ere

JOKIN ETXEBARRIA > BERGARA

Nahiz eta elur askorik ez den ikusten mendietan, eski denboraldia hasiera eman diote dagoeneko, eta gure ibarreko mendi elkarre, urtero legez, irteerak antolatzen dituzte.

Bergarako Pol-Pol mendi elkarreak, adibidez, hainbat irteera egitea du pentsatuta, bai urtarilerako (19tik 21era), bai otsailarako eta baita martxorako ere. Era berean, Aste Santuan, apirilaren 6tik eta 14ra bitartean Alpe- etara ohiko irteera egingo dute:

Tres Valles-era joango dira aurten. Izenematea Pol-Pol elkarrearen bulegoan egin behar da.

BESAIDETIK FORMIGALERA

Arrasateko Besaide mendi elkarre, berriz, Formigalera asteburu antolatuko ditu irteerak —betiere elurra baldin badago— eta datorren asteburuan hasiko dira bidaia horiek. Izena ematera astelehen, martitzen eta eguaztengan joan daiteke, Besaideko lokalera. Bestalde, Aste Santurako Alpeetara joateko bidaia antola-

tu dute baita ere. Tignesera izango da eta dagoeneko autobus bat bete badute ere, izena emateko aukera dago oraindik.

Bestalde, Aretxabaletako Murruxio mendi taldekoak ere hasi dira irteerak antolatzen. Datorren asteburuan, mendi zeharreko eskia egitera joango dira Formigalera. Hala ere, eski alpetarra egiteko aukera ere egongo da Murruxiorekin: otsailaren 10-11ko asteburuan izango da hori, Luz Ardiden eta La Mongiera egingo den irteerarekin.

Horiek, baina, ez dira antolatu dituzten irteera bakarrak. Debagoieneko gainontzeko mendi taldeak ere elurretara bidaia antolatzen dabilta, eta haietara joan behar da izena ematera.

> TXIRRINDULARITZA

Zikloturisten lizentziak berritzeko epea zabalik

Bergarako Txirrindulari Elkarreko zikloturisten lizentziak berritzeko kanpaina jarri du abian. Hain zuzen, baimena otsailaren 17a arte berri daiteke Igar-tua eta i2 dendetan. Prezioa 92 eurokoa da.

Bestalde, arropa berriak ere ekarriko dituzte. Interesatuak otsailaren 15a baino lehen pasa beharko dute Ciclos Igartuatik.

> ESKUBALOIA

Egia liderraren aurka jokatu du Ford Mugarri Arrasatek urteko lehen norgehiagokan, Iturripen

Lau punturen faltan dago Ford Mugarri Arrasate matematikoki mailari eutsi ahal izateko, eta denboraldia hasi zuten bezain ondo hasi nahi dute 2007a ere, puntu horiek lehenbailehen lortzeko. Gabonetatik bueltan, lehen partidua da zapatuan 18:30ean jokatu dute, Iturripen. Horrek kezkatzen ditu gehien arrasatearrak, oporraldi luzea izan ondoren nola ibiliko diren kantxan. Baina ez da kezka bakarra, kontrarioa ez da eta nolana hiko. Egiakoak mailaz igotzeko faborito dira. Lehenak daude sailkapenean eta bi partidu besterik ez dute galdu. Beraz, ez dute erraz izango garaipena etxe-koek. Hala ere, eta liderraren aurka galduta ere, egiten dabilta denboraldiarekin oso pozik daude arrasatearrak.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Lehenengo maila
Racing-Reala
Zapatua. 17:00. Santander.

Preferente maila
Trintxerpe-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Pasai Antxo.

Mondra-Zarautz
Zapatua. 15:45. Atxabalpe.

Idiazabal-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Arizkorreta.

Lehen erregionala
Bergara-Zumaia
Zapatua. 15:45. Agorrosin.

Bigarren erregionala
Soraluze-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Ezozia.

BTLs-Eibartarrak
Domeka. 17:00. Ipintza.

Antzuola-Mondra
Zapatua. 16:30. Estala.

Ohorezko mailako gazteak
Herrerako Sport.-Mondra
Zapatua. 15:30. Donostia.

Burumendi-Aretxabaleta
Domeka. 15:45. Mutriku.

Aloña Mendi-Martutene
Zapatua. 15:45. Azkoagoin.

Ohorezko mailako gazteak. Kopa eta jaitzierak
Mariño-Bergara
Zapatua. 17:30. Irun.

Lehen mailako gazteak. Igoera fasea.
Arizmendi Aretx.-Tolosa
Zapatua. 16:30. Ibarra.

Gazteak, Kopa
Bergara-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Ipintza.

Arrasate-Antzuola
Domeka. 12:00. Atxabalpe.

Ohorezko mailako kadeteak
Arizmendi Aretx.-Tolosa
Domeka. 11:00. Ibarra.

Bergara-Lengokoak
Domeka. 12:00. Ipintza.

Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitziera postuak
Antiguoko-Aloña Mendi
Domeka. 15:30. Berio.

Arrasate-Hondarribia
Zapatua. 11:00. Atxabalpe.

Kadeteak, Kopa
Arizmendi Aretx.-Zestoa
Zapatua. 11:30. Ibarra.

Ikasberri-Bergara
Zapatua. 17:15. Garmendipe.

Ohorezko mailako infantilak (Txapeldunen fasea)
Lengokoak-Arizmendi Aret.
Zapatua. 11:00. C. Benito.

Ohorezko mailako infantilak (Kopa eta jaitziera fasea)
Anaitasuna-Arrasate
Domeka. 15:00. Txerlola.

Aloña Mendi-Añorga
Zapatua. 11:30. Ibarra.

Lehen mailako infantilak
Bergara-Oiartzun
Domeka. 10:30. Ipintza.

Infantil txikiak
Vasconia-Arizmendi Aretx.
Domeka. 10:30. Martutene.

Emakumezkoen F-8
Arizmendi Arrasate-Mutriku
Zapatua. 12:00. Almen.

Kadete emakumezkoak F11
Aloña Mendi-Hernani
Domeka 11:00. Ibarra

Intxaurdi-Arizmendi Aretx.
Domeka. 11:30. Cesar Benito.

Alebin maila
Bergara-Arrasate
Domeka. 09:45. Unbe.

Aloña Mendi-Eibar
Domeka. 11:00. Unbe

Aretxabaleta-Lagun Onak
Domeka. 11:00. Unbe

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Liga
Eskoriatza-Ikusnet
Zapatua. 18:00. Intxautxu.

Lehenengo maila
Oiartzun-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Oiartzun.

Hirugarren maila
Idiazabal-UDA Mercedes
Gaur. 22:30. Idiazabal.

Gazteak
Aloña Mendi-Zarautz
Domeka. 12:00. Zubikoa.

SASKIBALOIA

ACB
DKV Joventut-Bruesa GBC
Domeka. 19:00. Badalona.

Gipuzkoako ligako senior maila (gizonezkoak)
Allerru-Aloña Mendi
Gaur. 20:00. Lezo.

Candy BKE-Haurtzaro Ikast.
Zapatua. 16:00. Labegaralet.

Plásticos Urteta-Ointxe
Zapatua. 18:00. Zarautz.

Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)
Ordizia-Eskoriatza KE
Zapatua. 16:00. Ordizia.

Aloña Mendi-Alde Zaharra
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Gipuzkoako ligako gazte maila (gizonezkoak)
Lasao Altx.-Mugarri Alkasa
Zapatua. 11:30. Azpeitia.

Aloña Mendi-Azkune
Zapatua. 19:15. Zubikoa.

Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)
Ford Mugarri-EASO
Zapatua. 16:00. Iturripen.

Gipuzkoako ligako gazteen maila (emakumezkoak)
Eskoriatza-Internacional
Zapatua. 11:00. Intxautxu.

ESKUBALOIA

Euskadiko Senior Maila
Ford Mugarri.-Egia.
Zapatua. 18:30. Iturripen.

Lehen territorial maila
Tolosa-Arrasate Esk.
Domeka. 12:00. Tolosa.

Urrietako-Bergara
Domeka. 11:45. Urnieta.

Gazte maila (gizonezkoak)
Aloña Mendi-Urola
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Bergara KE-Usurbil
Zapatua. 18:00. Labegaralet.

Kadete maila (neskak)
Cocina-Aiala-Verkol Aloña
Domeka. 10:30. Zarautz.

Udaberri Saria. (emakumeak, gazte maila)
Leizaran-Verkol Aloña
Domeka. 11:30. Andoain.

Kadete maila (mutilak)
Gatz Museoa-Bidasoa
Zapatua. 16:00. Musakola.

Aloña Mendi-Donibane
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Udaberri Saria. (emakumeak, kadete maila)
Cocina-Aiala-Arrasate
Domeka. 12:00. Zarautz.

ERRUGBIA

Gazte maila
Arrasate-Gernika
Zapatua. 16:00. Garagartza.

PILOTA

Eskuz Binakako txapelketa
Galartza V - Nalda III /
Berasaluz IX - Zubietza
Irujo-Goñi III / Olaizola I -
Beloki

Baleztena - Auxkin
/Apeztekoa - Arruti
Domeka 17:00 Bergara

Euskadiko liga (Nagusiak)
Bergara-Gure Txokoa
Domeka. 12:30. Bergara.

Arrasate-Belate
Zapatua. 19:30. Uarkape

Nagusiak (Lagunartekoak)
Agirregabiria-Uribarren /
Jimenez-Agirre
Zapatua 21:30 Uarkape

Kadete maila (Lagunartekoak)
Zubizarreta-Etxagibel /
Arana-Goitia
Zapatua 20:30 Uarkape

Infantil mailako Debarroko txapelketa
Goierri - Bergara
Bergara - Eskoriatza
Ilunpe - Aloña Mendi
Zapatua. 16:30etan. Bergara

Alebin maila
Zapatua. 16:00ean hasita
Debagoieneko 9 elkarre
norgehiagok jokatu
dituzte Uarkapen.

ATLETISMOA

Gipuzkoako Pista Estaliko Txapelketa
Asteburuan zehar
Gipuzkoako pista estaliko
txapelketa absolutua
jokatu da Anoetan

Mugertza Memoriala
Domeka. Elgoibar.

Euskadiko Beteranoen Txapelketa
Zapatua. Muskiz.



Gipuzkoako final-erdiak jokoan

Mugarri Alkasko kadeteek Gipuzkoako finalerdiak jokatu dituzte Easoren aurka zapatuan, 16:00etan, Iturripen.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **DANBAKA**
Debagoieneko musika lehiaketako finala gaur gauean Elgetan > 45



> **'KOMUNIKAFEM'**
Publizitate sexistari aurre egiteko bloga sortu dute > 51

> **JORDAN BARQUERO**
Musikazale amorratua, bi zarzuelatan hartu du parte gazte arrasatearrak; udaltzain izateko oposizioak gertatzen ari da orain > 50



Liburu eta disko oroigarriak kaleratuko dituzte 175. urteurrena ospatzeko

Abendura bitartean hainbat ekitaldi egingo dituzte

Bilboko Udal Musika Bandaren emanaldiak emango die hasiera ekitaldiei, datorren egubakoitzean

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarako Udal Musika Bandak bere sorreraren 175. urteurrena ospatuko du 2007an. Euskal Herriko banda beteranenetakoa da Bergarakoa, eta hori ospatzeko egitarau zabala prestatu dute. Lehen ospakizun ekitaldia hurrengo egubakoitzean, hilaren 19an, izango da: Bilboko Udal Musika Bandak emanaldia egingo du Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Martitzenean eman zuten antolatutako ekitaldien berri, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren artoan. Victoriano Gallastegi alkatearekin eta Kultura zinegotzi Luis Abajorekin batera, Alfredo Gonzalez bandako zuzendariak, Jose Gonzalez presidentek eta Mireia Larrañaga antolaketa batzordeko kideak hartu zuten parte aurkezpenean. Hala, bandako kideak zoriondu ondoren, alkateak herritarrak gonbidatu zituen ospakizunetan parte hartzera.

LEHEN AIPAMENA 1832KOA

Bandaren historia jasoko duen liburua idatziko du Juan Luis Bikuña kazetariak. Horren ibilbide luzea izan duen bandaren jatorria ez dago guztiz argi: "Bandari buruzko lehen agiri ofiziala 1832koa da, baina baliteke urte batzuk lehenago sortu izana, 1.500 errealeko dirulaguntza eskatzeko orduan *Como en años anteriores...* espresioa azaltzen delako", diosku.

Data esanguratsuen artean hainbat aipatzen dizkigu: "Asko dira: esate baterako, 1897an zuzendari kargua hartu zuen Ramon Ruiz *Potxoko* ezagunak, bandaren maila hobetzeko lan aipagarria egin zuenak; 1905ean Eibarren emanaldi gogoangarria egin zuten; 1913an Euskal Herri-

Bergarako Udal Bandak 175 urte



IRUNEN Bergarako Udal Musika Bandako kideak Iruñen kalejiran, 1913an. Euskal Herriko txapelketa irabazi zuten urte hartan.

BERGARAKO UDAL ARTXIBOIA (JUAN IDIGORAS FONDOA)



IBILBIDE LUZEA Bandaren gaineko lehen aipamena 1832koa da. Goiko argazkia 1890ean egin dago.

BERGARAKO UDAL ARTXIBOIA



Urteurrenerako sortutako logotipoa.

(43. orrialdetik dator)

ko Txapelketa irabazi zuten Iru-
nen; 1918an estatu mailako hiru-
garren saria lortu zuten Bilbon;
1978an Zarauzko Banda Txapel-

ketan nagusitu ziren baita...;
Usandizagaren *Mendi mendian*
jo zuten Zarautzen".

Nagusiki, ahozko iturrieta-
ra eta Bergarako Udal Artxi-
bora jo du Bikuñak bandaren his-
toria osatu ahal izateko. Bestek
beste, Karmen eta Miguel Gon-
zalez Bastida anai-arrebek eman-
dako informazioak berebiziko
garrantzia izan du: Ignacio Gon-
zalez Escala haien aita bandaren
zuzendaria izan zen XX. mende-
aren hasieran eta Miguelek aita-
ren lekukoa hartu zuen jarraian.
Miguelen semea, Alfredo Gonza-
lez, da zuzendaria gaur egun.

Artxiboko agirien artean, G.
De Bionak *Euskalerraren Alde*
aldizkarian 1916 argitaratutako
artikuluak adierazgarria izan dai-
teke: "*Son varias las razones que*
hacen a la Banda de Vergara acre-
edora a nuestras vivas simpatías:
su aplicación constante, su desin-



Alfredo, Miguel aitarekin eta Karmen eta Inazio osaba-izebekin, urrian.

IÑIGO ZAITEGI

terés (5.000 pesetas anuales para
cincuenta individuos no pueden
borrar el desinterés), la existen-
cia del grupo de aficionados que
sirve de acicate plausible, son
motivos de simpatía para nosotros.
Pero sobre todas esas hay otra
razón que a nuestros ojos ensal-

za a esa magnífica Banda: el cul-
tivo de la música vasca".

76 MUSIKARI GAUR EGUN BANDAN
Orduetik hona gauzak ez dira
horrenbeste aldatu agian: Alfre-
do Gonzalez Chirlaquek 76 musi-
kari dauzka batutapean; asko eta

asko Musika Eskolan ikasle izan
ditu. Hain zuzen ere, gazteek bul-
tzada handia eman diote bandari
azken urteotan; izan ere, tra-
dizioa eta berrikuntza funtsezko-
ak izan dira banda 175.
urteurrenera iristeko.

Luis Abajo zinegotziaren
hitzetan, "belarritik sartzen dena
baino garrantzitsuagoa da biho-
tzera iristen dena eta bandak lan
ikaragarria egin du herriaren
izena han eta hemen zabaltzeko".
Mireia Larrañaga bandako kla-
rinete-jotzaileetako bat da eta
urteurreneko batzordean ari da:
"Bandako kideak eta herria impli-
katu nahi ditugu ospakizunetan;
ahalegin berezia egin dugu egi-
tarau erakargarria osatzen". Bes-
talde, Jose Mari Ugalde margo-
lariaren marrazki bat erabiliko
dute bandarekin harremana izan
duten taldeek urteurreneko oroi-
garri bat izan dezaten.

Liburua eta Miguel Gonzalez Bastidaren omenezko diskoa urteurrena ospatzeko

Bandaren 175. urteurrena ospatzeko, liburu eta disko oroigarriak kaleratuko dituzte urtean zehar. Maiatzean grabatuko duten diskoak Miguel Gonzalez Bastida omentzea du helburu. Hain zuzen ere, haren zazpi abesti grabatuko dituzte: *Campo de rosas*, *Mendia eta itxaso*, *Lorea*, *El metrónomo de Maelzel*, *Ezpata dantza*, *San Martzial* eta *San Martin*. Zortzigarren abestia Alfredo Gonzalez Chirlaquek konposatutako 1832 izenburuko pieza izango da. Diskoaren aurkezpena azaroaren 17an, Santa Zeziliako kontzertuan, egingo dute.

Oraindik izenbururik ez duen Bikuñaren liburuak 250-300 orrialde izango ditu eta testuarekin batera (euskaraz eta gazteleraz), argazki ugari. Bostehun ale kaleratuko dituzte eta aurkezpena San Martin bezperan, irailaren 15ean, izango da udaletxean.

Musika, nola ez, izango da urteurreneko protagonista nagusia. Bilboko Udala Musika Bandaz gain, Gasteizko eta Tolosako udal bandak etorriko dira, martxoaren 25ean eta apirilaren 22an, hurrenez hurren. Bergarako bandarekin harreman estua izan duten kalitate handiko taldeak direla azpimarratu zuen Alfredo Gonzalezek martitzenean. Bestalde, urteurreneko jai kontzertua eta herri bazkaria uztailaren 15ean izango dira.



Gallastegi alkatea, Alfredo Gonzalez zuzendaria, Mireia Larrañaga, Luis Abajo zinegotzia eta Jose Gonzalez, martitzenean. E.M.



Aramaion lursaila duten 11 etxebizitza eraikitzen ari gara PROMOCIONES ARAMAIXO S.L.

Informazio gehiago:
630 31 13 18/ 945 44 54 60
Nardeaga kalea 26
ARAMAIO



MUSIKA > DEBAGOIENEN II. DANBAKA MUSIKA LEHIAKETA

Hiru finalisten azkeneko ahaleginak erabakiko du guztia

Hirugarren taldeak, Malenkoniak, jo bezain laster bukatuko da botoa emateko aukera

Hiru finalistek ordu erdiko emanaldiak egingo dituzte; eta Kerobiak, 40 minutu

IKER BARANDIARAN > DEBAGOIENA

Heldu da askok eta askok espero zuten eguna. Gaur, egubakoitza, Danbako Debagoieneko II. Musika Lehiaketako finala izango da Elgetan, 22:30ean. Hiru irabazleak zeintzuk diren jakingo dugu.

Danbakan esku hartu duten talde gehienak saiatu dira oholtza gainean guztia ematen, baina gaur gauekoek ahalegin bereziago bat egin beharko dute; ordu erdi izango dute horretarako. Horren arabera eskuratuko du batek edo besteak sari nagusia: disko baten grabazioa Arrasateko Shot! estudioan, eta lan horren edizioa eta merkaturatzea Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen bitartez.

GUSTUKOENA AUKERATZEKO

Danbaka.com-en bidez botoa emateko aukera atzo, eguna, itxi zuten, baina oraindik badira beste bide batzuk: hirugarren taldeak, Malenkoniak, emanaldia bukatu arte SMSak bidali edota Espaloian bertan jarrita dauden boto-kutxak erabili ahal izango dira. Une horretan itxi egingo dira bide guztiak. Irabazleak 1.200 euroko saria jasoko du Carrion musikadendan gastatzeko.

BAKARLARI ONENA

Bigarren edizio honetako zazpi bakarlarrietatik onenak Azkena Rock jaialdirako bi bono eta Gas-teizko hotel baten bi lagunendako egonaldia irabaziko du. Horrez gain, Danbakak hainbat kontzertu antolatuko dizkio irabazle surretzen denari.

GAURKO TALDEAK



ABY-KEM
Bergara

Bergarako boskote horrek bide handia egin du AK-47 izena zuenetik. Hiru kantu indartsuz osatutako grabazioa aurkeztu zuten lehiaketara, eta horren ostean, zuzenean, jendaurrean, talde trinkoa dela erakutsi zuten, tontakeriarik gabekoa, harira doana. Metala, death ukituak eta beste daude euren erreperatorioan, eta taularatzea oso landuta eta bortitza dute.



MALENKONIA
Oñati

Oñatiko zazpikotea bi aldiz sailkatu da Danbako musika lehiaketan zuzenean aritzeko. Lehenengo ediziotik bigarrenera bilakaera handia egin du eta bigarren honetan finalera heldu da. Talde izaera handia hartu du zuzenean eta instrumentu guztiak bat egitea lortu dute, pop dotorean oinarritutako emaitza txukuna lortuz. Taula gainean bi gitarra, baxua, bateria, teklatura, saxofoia eta biolina erabiliko dituzte, aurreko kontzertuan bezalaxe.



BELCEBLUES
Bergara

Bergarako hirukote horrek bluesa eta rocka uztartzen ditu taula gainean, ingelesez abestuta. Musika eskoletan aritutako musikariak dira eta hori igartzen da, oso teknikoak dira-eta. Hiru lagun izan arren, eszenatokia ondo bete eta batez ere ikusleak harrapatu zituzten. Finaleko emanaldirako bi saxofoi jotzaile, tronpeta jotzaile eta tronboi jotzaile bana izango dituzte alboan.



KEROBIA
Iruñea

Iruñeako laukote horrek ez du lehiaketan esku hartuko. Gonbidatu moduan arituko da eta 40 minutuko emanaldia egingo du Espaloian, epaimahaiak hiru sarien gaineko erabakiak hartu artean. Kerobiak *Rose Escargot* izeneko bigarren diskoa kaleratu du Gor diskoetxearekin, hedabideetan oso harrera ona izan duena. Teklatuek protagonismo handia hartzen duten pop-rocka egiten dute, eta talde gaztea baina arrakastatsua da une honetan.

DANBAKA

Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: danbaka.com webgunean; SMS bidez: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZ. Eta Espaloian jarritako kutxetan.

- 1** **LITTLE, LITTLE, MUCH**
ARRASATE
Botoen %17,85
- 2** **DRAKES**
ONATI
Botoen %17,82
- 3** **ANAL BAG**
ARRASATE
Botoen %11,45
- 4** **ABY-KEM**
BERGARA
Botoen %9,45
- 5** **KLAKSON**
ANTZUOLA-ZUMARRAGA
Botoen %8,38
- 6** **RAUL LASA**
ARRASATE
Botoen %8,14
- 7** **SCAM**
BERGARA
Botoen %4,65
- 8** **UNNĒA**
ONATI
Botoen %4,62
- 9** **THE 5 TWISTERS**
ARRASATE
Botoen %4,03
- 10** **LOS CRETINOS**
ARRASATE
Botoen %3,00
- 11** **OZEN**
ARRASATE
Botoen %1,90
- 12** **BELCEBLUES**
BERGARA
Botoen %1,69
- 13** **YOTOX**
BERGARA
Botoen %1,62
- 14** **IGOR**
ARETXABALETA
Botoen %1,54
- 15** **MALENKONIA**
ONATI
Botoen %1,28
- 16** **MATX**
ELGETA
Botoen %0,97
- 17** **MAHASTER RIVER**
BERGARA
Botoen %0,64
- 18** **INALECTRIK**
ARETXABALETA
Botoen %0,31
- 19** **JIM TNT**
ARRASATE
Botoen %0,29
- 20** **AZKAITER PELOX**
BERGARA
Botoen %0,27

DANBAKA))))



ASTELEHENEN GOIENKARIAN!

Danbako kontzertuen gaineko **informazio guztia** ASTELEHENEN GOIENKARIAN:
kronikak, kritikak, iritziak, inkestak, taldeen inpresioak, argazkiak...
Eta baita ikuslearen sariaren gaineko sailkapen eguneratua.
Hori guztia eta gehiago... ASTELEHENEN GOIENKARIAN.
Erosi ASTELEHENEN GOIENKARIA edo egin zaitez harpidedun!
INFORMAZIO + www.danbaka.com













INMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
 Tel. / Faxa: 943 76 97 97
 www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- S. Antonio 50 m². Berritua.
- Duplexa Ortuibar. Oso ondo.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- Angiozar. Bi solairu. Berrituko.
- Boli Laskurain. 93 m². Ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Martoko 90 m². Berritua.
- Simon Arrieta 80 m². Ondo.
- Ibargarai 87 m². Oso ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 65 m². Oso ondo.

Etxebizitza berrien erakuntza San Lorentzon. 2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobea.

Elgeta:

- Etxebizitza berrien erakuntza, 2-3 logela, duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.

DEBA
GARAIA
 INMOBILIARIA
 Telesforo Aranzadi 2
 T. 943 76 21 80 F. 943 76 06 37

BERGARA:

- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Oso ondo.
- Boli 100 m². Ondo.
- Duplex berria. 72 m² + 34 m².
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Artekale 70 m². Oso ondo.
- Masterreka duplexa 170 m².
- Juan XXIII plaza 80 m². Berritua.
- Masterreka 79 m². Ondo.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berrituko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraiskoziuri 102. Ondo.
- Arizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m². Ondo.
- Mugertza. Duplex berria.
- Martoko 93 m². Berritua.
- San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garajea eta trastelekuarekin.

ANTZUOLA:

- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

BERGARA

Taberna baterako zerbitzaria behar da.

629 26 88 51

OÑATI

Ile apaintzaile esperientziaduna behar da ile apaindegirako.

Lanegunak: Astelehenetik egubakoitzera.

ZAPATUETAN JAI.

665 73 95 65

ARRASATE

Zerbitzaria behar da taberna baten lan egiteko. Euskaraz egitea baloratuko da.

Aste bukaeratan jai.

617 60 84 45
680 67 22 93

BERGARA

Sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dira jatetxe baterako.

943 76 55 00

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

ULMA

Packaging **eref 01/07**

INGENIERIA PROIEKTUEN KUDEATZAILEA

Prestakuntza-profila:

- Ingeniaritza tekniko, sistema elektriko eta elektronikoaren ezagupen zabalarekin.
- Automatismoen ezagutzak (mekanikoak eta elektrikoak).
- Ingeleser jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.

Funtzio nagusiak:

- Proiektuak planifikatzea.
- Erosketa eta azpikontratazio kudeaketan laguntzea.
- Muntaiak jardueren eta instalazioaren prestaketa lanen koordinazioa, haien onarpena gauzatu arte.
- Bezeroaren proiektu arduradunarekin interlokutore lanak beregain hartzea.
- Proiektuen helburu kostuak betetzen direla zaintzea.
- Bezeroei proiektuetan laguntza tekniko kudeatzea.

Profil profesionala:

- Zailtasun tekniko handiko proiektu konplexuen instalazioen koordinazioan eskarmentua izatea.
- Bidaiatzeko aukera.

Interesatuok bidali curriculumua honako helbidera:
ULMA Packaging-eko GGBBetako Departamentua
Garibai auzoa 28 145 posta-kutxa 20560 OÑATI
Gutun-azalean lanpostuaren erreferentzia adierazi.

ULMA

Packaging

INGENIARI TEKNIKOAK ETA GOI MAILAKOAK
 (Especialitatea: elektronika) **eref 02/07**

Eskatzen da:

- Industria automatizazio ezagutzak.
- 2-3 urteko eskarmentua.
- PLC eta PC sistemak programatzen jakitea (C eta Visual Basic hizkuntzak).
- Ingeleser jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.
- Ekimena eta taldean lan egiteko zein harremanetarako gaitasuna izatea.
- Bezeroen instalazioetan laguntza tekniko ematea, bertara joanda.

INGENIARI TEKNIKOAK ETA GOI MAILAKOAK
 (Especialitatea: mekanika) **eref 03/07**

Eskatzen da:

- Makinen diseinu mekanikoaren ezagutza.
- 2-3 urteko eskarmentua.
- Diseinu tresnak: Autocad, Solid Edge eta Microstation.
- Ingeleser jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.
- Ekimena eta taldean lan egiteko zein harremanetarako gaitasuna izatea.
- Bezeroen instalazioetan laguntza tekniko ematea, bertara joanda.

Interesatuok bidali curriculumua honako helbidera:
ULMA Packaging-eko GGBBetako Departamentua
Garibai auzoa 28 145 posta-kutxa 20560 OÑATI
Gutun-azalean lanpostuaren erreferentzia adierazi.

OÑATI

Estetizista eta ile apaintzailea behar da ile apaindegi baten lan egiteko.

607 81 52 74

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Etxea salgai Eguzki auzoan. Hiru logela, bi komun, igogailua. Eguzkitsua. Telefonoa: 620 31 64 93.

Arrasate. Etxebizitza salgai,

ANTZUOLA

Untxi granjarako langile espezializatua behar da. Ordezkapen kontratua. Autoa beharrezkoa.

608 40 42 61

Bergara. Simon Arrieta kalean, 80 metro koadroko etxea salgai. Berritua. 2 logela ditu, komuna, egongela, sukaldaria, jantokia eta balkoi ederra. Banakako berogailua du, gas naturala eta baita igogailua ere. Garajea aukeran. Pre-

zioa: 45 milloi. Deitu telefono honetara: 664 73 49 60.

Osintxu. 85 metro koadro. Berogailua, igogailua eta trasteleku ditu. Egoera oso onean eta prezio interesgarria. Telefonoa: 656 74 78 80.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Hiru logela, bi bainugela eta bi balkoi. 80 metro koadro. 19 metro koadroko edo 35 metro koadroko garaje itxia aukeran. 656 74 80 47.

105. ETXEA OSATU

Antzuola. Logela bat daukagu alokatuzko. Deitu telefono honetara: 616 45 00 20.

Arrasate. Langilea naiz eta etxebizitza bat osatuko nuke

beste batzuekin edo logela bat alokatuko nuke. Deitu telefono honetara: 615 75 11 47.

2/ GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Garajea Kalegoian. Deitu telefono honetara: 666 44 10 09.

Antzuola. Sagastin garajea errentan ematen da. Deitu telefono honetara: 650 55 44 98.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Ingeles eskolak emateko pertsona behar da. First titulua beharrezkoa. Felix. Deitu telefono honetara: 943 03 73 39.

Oñati. Emakume bat behar da arratsaldeetan ume bat zaintzeko. 658 73 40 21

402. ESKAERAK

Arexabaleta. Emakume arduratsua goizez edozein lan egiteko gertu. 943 03 64 36 edo 637 37 41 80.

Debagoiena. Emakume arduratsua eta esperientziaduna gertu pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 610 95 81 16.

Debagoiena. Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketara lanak egiteko. Arratsaldez lan egingo luke. Luisa. Deitu telefono honetara: 628 82 96 56.

Nekazaritza teknikaria naiz. Zuhaitz inausketa, lorategi, baserri edota edozein lekutako garbiketara eta mantentze lanak. 699 34 71 99.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroen ZX 1.9 TD autoa salgai. Bost ate, aire girotua. 12 urte. 1.600 euro balio du. Deitu 19:30etik 22:00etara. 943 78 36 32.

Multivan Allstar furgoneta bat. 1997koa, egoera oso onean. Prezio oso interesgarria dauka. Deitu telefono honetara: 679 24 80 35.

Scooter Suzuki motorra salgai. 49 cc. 12.000 km, 420 euro. Deitu telefono honetara: 626 28 68 13.

Volkswagen Passat 1.8 autoa salgai. Gasolina. Zazpi urte. 100.000 kilometro. Neguko gurpil berriak ditu. Deitu telefono honetara: 685 75 61 34.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Cannon EOS 300 argazki kamera. 28.90 objektiboa. Poltsa opari. Deitu telefono honetara: 639 90 36 18.

Pultsometroa salgai. 5410 modelo, CD-ROMa barne. 685 76 44 77.

Peavey baxua salgai. 2002an erosi. Egoera onean eta nahiko merke. 638 46 72 13.

Epiphone SG gitara elektriko eta Peavy amplifikadore. 210 euro eskatzen ditut biengatik. Berri-berriak. 636 57 65 66.

806. GALDU

Arrasate. Erlojuja galdu nuen abenduaren 14an. Akelarre gozotegi inguruan. Balio handia dauka neuretzat. Deitu telefono honetara: 943 79 86 21.

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

KAZETARIA

kontratatu nahi du bertako hedabideetan aritzeko

Eskatzen da:

- Euskaraz idazten maila ona izatea.
- Ordenagailuak erabiltzen jakitea.
- Gidatzeko baimena eta autoa edukitzea.

Eskaintzen da:

- Lan kontratua.
- Etorbizun handiko proiektuetan partaide izatea.
- Lanpostua lortzen ez duenak Goiena multimedia enpresaren (prentsa idatzia, irrati, telebista eta telematika) lan-poltsa osatuko du.

Interesatuok bidali curriculumua, 2007ko urtarrilaren 18a baino lehen, ondoko helbidera:
 Goiena Komunikazio Zerbitzuak
 Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
 edo admi@goiena.com

Goiena
 Komunikazio Zerbitzuak

COPRECI

Copreci kooperatiba-sozietateak, MCCko Osagaien Dibisioko parte den enpresak, formaziodun makinistak behar ditu.

GOI MAILAKO MODULUETAN TITULATUTAKO PERTSONEN bila gabiltza. Euskararen ezagutza eta kudeaketarako eta talde lanerako gaitasuna kontuan hartuko dira.

Interesatuok ahalik eta azkarren bidali behar dute curriculum-a, harremanetarako telefonoa eta erreferentzia adierazita.

Copreci koop.
Pertsonal departamentua
Araba etorbidea, 3
20550 Arexabaleta (Gipuzkoa)

MONDRAGON COMPONENTES

hildakoak

- **Juliana Aranguren Txintxurreta.** Antzuola, hilaren 1ean. 90 urte.
- **Bixente Zabarte Agirre.** Oñati, hilaren 1ean. 85 urte.
- **Maxima Anduaga Baltzategi.** Oñati, hilaren 2an. 80 urte.
- **Inazio Guridi Errasti.** Arrasate, hilaren 2an. 77 urte.
- **Julian Elortza Gartzia.** Arrasate, hilaren 2an. 76 urte.
- **Lurdes Arregi Uriarte.** Bergara, hilaren 2an. 45 urte.
- **Asuncion Zurututza Aperribai.** Eskoriatza, hilaren 3an. 86 urte.
- **Pedro Irizar Oregi.** Bergara, hilaren 4an. 92 urte.
- **Teodora Iturbe Arenaza.** Bergara, hilaren 4an. 75 urte.
- **Maria Luisa Villar.** Eskoriatza, hilaren 5ean. 89 urte.
- **Brigida Monje Gartzia.** Arrasate, hilaren 5ean. 101 urte.
- **Isabel Etxebarrieta Madinabeitia.** Arrasate, hilaren 6an. 86 urte.
- **Guillermo Pozo Sanchez.** Arrasate, hilaren 7an. 82 urte.
- **Victor Herran Izarra.** Bergara, hilaren 7an. 90 urte.
- **Benita Azkarate Etxeberria.** Bergara, hilaren 8an. 99 urte.
- **Maria Urriategi Larrea.** Bergara, hilaren 8an. 84 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.



Basilisa Franco eta Amador Santamaria bergararrak due-la 50 urte ezkondu ziren Bur-gosen, 1956ko abenduaren 29an, hain zuzen ere. Eta seni-deekin ospatu berri dituzte urrezko ezteiak. Etxekoen par-tetik, zorionak eta muxu han-di bat, bioi!

URTEURRENA

Candido Leturiaga Moyua

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 14an, 13:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Emilia Errasti Zubizarreta

Pedro Errastiren alarguna

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 13an, 19:00etan, Aramaion Arexola auzoko Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Izaskun Galarza Zulueta

Oñatin hil zen 2006ko abenduaren 22an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA

Lurdes Arregi Uriarte

Bergaran hil zen 2007ko urtarrilaren 2an, 45 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko urtarrilaren 12an.

URTEURRENA

Ramon Valencia Esteban

'Beltxa'

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 14an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Teodora Iturbe Arenaza

Bergaran hil zen 2007ko urtarrilaren 4an, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko urtarrilaren 12an.

URTEURRENA

Maria Purificacion Bastida Aranguren

Anacleto Agirre Badiolaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 14an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Ines Larrañaga Telleria

Julen Arzelus 'Txarriduna'-ren alarguna

Bergaran hil zen 2006ko abenduaren 21ean, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko urtarrilaren 12an.

ESKER ONA

Andoni Ugalde Mujika

Arrasaten hil zen 2006ko abenduaren 29an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko urtarrilaren 12an.

URTEURRENA

Nieves Ibarrola Albeniz

Julian Zabalaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 14an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA



Joxe Telleria Etxebarrieta Isabel Etxebarrieta Madinabeitia

Agur Isabel, gure ama eta amama. Agur Joxe, gure anaia, osaba eta laguna Joan zarete, baina gure ondoan segitzen duzue. Zuen oroitzapenak borra ezinak dira. Betik gure artean egongo zarete




Etxekoak.
Arrasaten, 2007ko urtarrilaren 12an.


bila-bila 7



hitz gezidunak

| | | | |
|---|----------------------|-----------------|-----------------|
|  | Gorputz-adar | Gailena | Putrea |
| | * Irudiko animalia | Hamar gehi bost | Aterea |
| Maiz | | | |
| Karea egiteko labe | | | |
| Metal mota | Haizearen jostagarri | | |
| Gar | Zakar, latz | | |
| | | Emakume izena | Gabarra txikiak |
| | | Artsenikoa | |
| Auto-ilara | | | |
| Nekagarri | | | |
| | | Aluminioa | |
| | | 2 | |
| Euskal sindikatua | | Musika nota | Bokala |
| Haritz basoak | | Kontso-nantea | Bokala |

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

Ke arteko bilerak

Jon Imanolek auzo lagunena arteko bilerara joan behar izan du. Ia inor ez du ezagutzen eta isilik egotea erabaki du.

Gero eta gutxiagotan gertatzen den arren, erretzaillez beteriko bilera egokitu zaio. Jon Imanolek ordu erdi bat ke artean pasa eta gero, guztiz nazka-nazka egin da, altxa egin da eta:

- Nazkatu naiz eta ezin dut gehiago. Zuek ohartzen al zarete ni erretzaila pasibo bihurtu nauzuela?

Eta erretzaila batek:
- Tabakoak duen prezioarekin erretzaila pasibo ez, erretzaila aprobetxategi bihurtu haiz!

sudokua

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | | 1 | 8 | | | |
| | 5 | | | 6 | 4 | |
| | 8 | | 9 | | 3 | |
| 2 | 1 | 8 | | | | |
| | | | | 2 | 4 | 7 |
| 5 | | 3 | | 1 | | |
| 3 | 4 | | | 5 | | |
| | | | 1 | 4 | | 6 |

hieroglifikoa

Zer sentitu zenuen?




hizki salda

Debagoieneko 5 mendiren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | E | H | U | G | I | J | Z |
| N | U | B | O | S | H | K | A | L |
| D | E | D | I | M | A | I | R | U |
| A | N | U | A | R | R | O | I | G |
| R | A | D | H | L | K | E | N | O |
| T | S | E | T | B | A | T | D | I |
| O | N | G | A | E | I | I | O | R |
| D | E | M | E | K | T | O | T | A |
| D | I | Z | P | I | Z | T | E | Z |

soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K | V | I | L | Z | I | R | V | H |
| V | | S | | B | L | A | | |
| L | A | | O | S | O | K | E | N |
| V | A | N | A | B | A | R | A | K |
| | E | N | A | V | A | L | A | M |
| V | A | T | E | M | O | K | | N |
| I | R | R | S | | | | | |
| V | A | O | I | A | L | E | H | |
| S | | G | | B | | | | |

bono fotoa



Herriko parrokia egin aurrekoa da baseliza hau. Bere lehen aipamena 1503koa da. Zein da bere izena eta ze herritan dago?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoroberezibar



Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Flor Ultra leungarria
500 ml-ko botila

1€
Super BMn beti eskaintzarik onenak!


AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
MENTXU IRASUEGIrendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Don Pedruena deituriko jauregian

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 3 | 8 | 4 | 1 | 5 | 2 | 7 | 9 |
| 7 | 5 | 9 | 8 | 2 | 6 | 3 | 4 | 1 |
| 2 | 1 | 4 | 7 | 1 | 4 | 2 | 5 | 8 |
| 1 | 7 | 1 | 4 | 7 | 1 | 4 | 2 | 5 |
| 8 | 5 | 9 | 6 | 3 | 2 | 4 | 7 | 1 |
| 6 | 3 | 7 | 9 | 4 | 1 | 2 | 5 | 8 |
| 4 | 2 | 1 | 8 | 7 | 5 | 3 | 6 | 9 |
| 2 | 6 | 8 | 4 | 5 | 9 | 7 | 1 | 3 |
| 1 | 9 | 5 | 7 | 2 | 3 | 6 | 8 | 4 |
| 7 | 4 | 3 | 1 | 8 | 6 | 9 | 2 | 5 |

Hieroglifikoak: Lotsa

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | E | H | U | G | I | J | Z |
| D | E | M | E | K | T | O | T | A |
| N | U | B | O | S | H | K | A | L |
| A | N | U | A | R | R | O | I | G |
| R | A | D | H | L | K | E | N | O |
| T | S | E | T | B | A | T | D | I |
| O | N | G | A | E | I | I | O | R |
| D | E | M | E | K | T | O | T | A |
| D | I | Z | P | I | Z | T | E | Z |

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3. erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

RELE

Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza
• Hormigoizko estruktura eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

IGELTSEROAK

DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

G. IZCUE IRURZUN

Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak...
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

ITURGINTZA

ARETXABAETA ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA

Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate
- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberitzeak
Bolibar dokorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC

Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate
• Metal arosztegia, PVC eta arosztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

LEIHATEK

Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatze sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

L. GONZALEZ PINTURAK

Aretxabaleta
• Pintura orokorra, pintura papereztatua
Basabe poligonoa F-6
T: 686 113 581

Jordan Barquero > Abeslaria eta futbol jokalaria

"Nik batez ere heavya dut gustuko, baina orain arte bi zarzuelatan abestu dut"

Arrasateko Jordan Barqueroren aurpegia eta ahotsa ezaguna egingo zaizkie hainbat arrasa-

tearri. Izan ere, orain dela gutxi Arrasateko Musika Eskolako Bandarekin bi kantu abestu

zituena Amaia Udal Antzokian. Hanka bat Gasteizen eta beste bat bere jaioterrian duen arra-

satear horrek heavya du gustuko, baina zarzuelan ere abesten aritu da azkenaldian.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Abesteaz eta futboleko jokatzear gain, hainbat fabrikatan lanean aritu da Jordan Barquero. Aspaldi honetandantzain izateko oposizioetarako ikasten dabil.

Ikasle ona zinen txikitari?

Ez, ganberro samarra, baina ikasten jartzen nintzanean emaitza onak eskuratzen nituen. Amak dio jaunartzea egin nuenean aldatu nintzela, ordura arte oso okerra nintzela. Mesedeetako Ama ikastetxeko irakasle batzuk nitaz gogoratuko dira seguruenik...

Horren ostean, ikasten jarraitu zenuen?

Bai. Arrasate-Aretxabaleta Institutuan galdaragintzaren gaineko modulua egin nuen. Eta jarraian praktikak eta lan egin nuen Fagorren, Ederlanen eta Polmetasan. Une honetan langabezian nago, baina datorren astean beste fabrika baten hasiko naiz.

Eta ikasten jarraitzen duzu?

Bai, orain udaltzain izateko oposizioak prestatzen nabil Gasteizko akademia baten. Nire asmoa da Arrasaten eta Gasteizen udaltzain lanpostua lortzeko aurkeztea.

Fabrikako lanarekin nazkatuta bukatu zenuen?

Ez. Egia esanda, fabrikatan ondo moldatu naiz. Ondo ordaintzen dute eta zortzi ordu egin ostean ez duzu beste ardurarik. Hala ere, nire helburua da lanpostu finkoa lortzea. Egonkortasuna gura dut.

Badakit abesteko zaletasuna daukazula.

Bai, hala da. Orain dela lau bat urte etxean dutxan abesten hasi nintzen eta halako baten amak esan zidan oso ondo abesten nuela. Horren ostean, lagunekin Gasteizko karaokeetan abesten hasi ginen. Zaletu egin ginen.

Eta txapelketaren bat irabazi zenuen...

Bai, orain dela bi urte Gasteizko Boulevarden antolatu zuten karaoke txapelketa baten lehenengo saria eskuratu nuen. Hainbat zapatutan jo nuen finalera heldu arte. Nik heavya dut gustuko, baina bestelako kantuak abestu behar izan genituen. Finalean David Bisbalen *Ave Maria* abestu nuen.

Gerora, abesten jarraitu duzu...

Bai. Orain dela hiru bat urte Arrasateko Musika Eskolan ize-



IKER BARANDIARAN

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 23 urte. **Zaletasunak:** Abestea, lagunekin eta neskalagunarekin elkartzea, futboleko jokatzeko eta musika entzutea. **Nora egingo zenuke bidaia bat?** Greziara, Pragara edo Egiptora joango nintzateke gustura. **Betetzeko daukazun amets bat?**

Etxebizitza bat ordaindu ahal izatea. **Debagoieneko txokorik gustukoena?** Udalatx. Urtean bizpahiru alditan igotzen naiz eta oso gustuko dut. **Maniarik badaukazu?** Oso burugogorra naiz, eta ez dut kontra egiterik onartzen. **Futbol talde bat?** Reala.

na eman nuen, eta Tere Gonzalez irakaslearekin ahotsa lantzen nabil; Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko zuzendaria da. Astean ordu bat egiten dut harekin eta lehenengo urtetik igarri nuen alde handia egin nuela. Asko ikasten nabil Gonzalezekin.

Eta ikasitakoa praktikan jartzzen hasi zara...

Bai, Gonzalezi esker bi zarzuelatan esku hartzeko aukera izan dut. 2005ean *Baserría* laneko koron esku hartu nuen; eta iaz *La leyenda del beso* ikuskizunean paper txiki bat izan nuen. *Ernesto* izan nintzen azken horretan. Asko disfrutatu nuen. Badut gogoaz zarzuela gehiago egiteko!

Eta urtea bukatzeko Amaia Udal Antzokian aritu zinen..

Bai, Arrasateko Musika Eskolako Bandak gonbidatu ninduen Urtezaharreko kontzertuan esku hartzera. *La donna é mobile* eta *La Taberna del puerto* laneko *No puede ser* piezak abestu nituen. Hasieran oso urduri nengoen, baina oso ondo joan zen. Guztiak txaloka ikustea oso pozgarria da.

Baina zure ametsa talde heavy baten abestea da?

Gurako nuke, baina ez dakit inolako musika instrumenturik jotzen. Talderen batek interesa balu, gustura egingo nuke proba.

Eta zer talde dituzu gustuko?

Avalanch, Tierra Santa, Scorpions eta beste batzuk.

Eta futboleko noiztik aritzen zara?


Txikitatik. Umean Makatzenan bizi nintzen, eta han ia egunero jokatzeko genuen. Gero, Erdiko kalera bizi izatera joan nintzen. Hala ere, astean behin lagunok kiroldegian elkartzen gara futboleko jokatzeko.

Hortaz, ez duzu jokatzeko ohi-tura galdu?

Ez. Arrasateko Zaldibarko txapelketan bi taldetan jokatu dut: Alai Gozokiak eta Whiskeria. UDAn ere bi denboralditan aritu nintzen. Eta iaz Gasteizko Arenal PV taldean jokatzeko hasi nintzen.

Non ikusten duzu zure burua etorkizunean, Gasteizen ala Arrasaten?

Gasteizen. Arrasaten ere etxeak oso garestiak dira, eta prezio berean gurago dut hiri baten bizi. Hiri batek aukera gehiago ematen ditu, eta neskalaguna hangoa da.



OBJEKTU GISA Horrela erabiltzen dituzte iragarle askok emakumearen irudia.

GOIENKARIA

INTERNET > BLOGAK

'Komunikafem': publizitate sexistaren kontra egiten duen bloga

Bilgune Feministak urtero egiten duen publizitate sexistaren gaineko kanpainak Internet bidez ere izango du bultzada, 'Komunikafem' izeneko blogari esker

X.U. > BERGARA

Beste blog bat dago sarean: www.blogak.com/komunikafem. Bilgune Feministak urtero egiten duen publizitate sexistari buruzko kanpainarekin batera. Hala, berdintasunaren alde egitearekin batera, edozein herritarrek bere herri edo auzoan publizitate sexistaren aurkako ekimenak abian gura baditu laguntza

eskaintzen dute. Horretarako, erreklamazio orriak bidaltzen dituzte komunikafem@euskalerrria.org helbidera idatziz gero.

PUBLIZITATE DUINAREN ALDE

Izan ere, hori da blogetik egiten duten aldarrikapena, emakumeek publizitate duina izateko duten eskubidea, alegia: "Emakumeok urte osoan zehar sufritu behar ditugu publizitatearen erasoak, baina egoera hau Gabonen inguruan areagotu egiten da. Izan ere, geure herriko kaleetan, egunkarietan, teletabietan... egunerokoa aurkitzen dugun publizitateak gure duintasuna kolpatzen du zuzen-zuzenean". Hala, egungo publizitateak emakumea objektu soiletan bilakatzen duela salatzen dute: "Publizitateak historikoki sistema honek inposatu dizkigun rol eta eginkizunen mezuak bidaltzen ditu, eta izan beharko

ginatekeen emakume eredu konkretua inposatzen digu: garbiketara produktua, etxetresna elektrikoak, jakien gaineko iragarriak...". Hala, emakume ereduaren aniztasuna bultzatuko duten publizitateak eskatzen dute: emakume altuak, baxuak, argalak, gizenak, zaharrak eta gazteak errespetatuta, emakumeek eduki beharreko itxura etengabe errepikatzen duten iragarkien kontra eginez.

'INDEPENDENTZIA FALTSUA'

Egungo emakumeek duten ustezko independentzia faltsuaren gainean ere egiten dute berba blogetan, etxeko lanez arduratzen diren bitartean exekutiba agresiboaren irudia saldu guran. Hala, horren guztiaren kontra egin gura dutenak aurrerantzean egingo dituzten ekimenetan esku hartzerantz gonbidatzen dituzte.

teknologia berriak

> TELEFONIA

Nokia N95: WI-FI, bost megabyteko argazki kamera eta 150 megabyteko RAM memoriadun telefonoa

Nokia etxeak beste aurrerapauso bat egingo du N95 telefono berriarekin. Proposamen berri horrek Symbian S60 sistema eragilea izango du WI-FI konexio bidearekin batera. Horrekin batera, 150 megabyteko RAM memoria, bost megabyteko argazki kamera... Gainera, ez du txantxetako optika erabiliko, Carl Zeiss etxeak eginiko lentea du-eta. Hala, ATI txip grafikoak lagunduko du 2,6 hazbeteko pantailan. Ikusteko dago bideoa DVD kalitatean grabatzen ote duen.



Nokia N95 berriak 100 lurraldetako mapak dituen GPS sistema dakar, gal ez zaitezten.

> IPHONE

Musika, bideoak, argazki kamera eta Internet arakatzailerak duen Appleren telefono mugikorra

Martitzenean produktu berriak aurkeztu zituen Apple enpresak San Frantziskon.

Beste produktu batzuk aurkeztu bazituen ere iPhone-a izan zen txalo zaparrada handiena jaso zuen produktua. 3,5 hazbete duen pantaila luzexka, bideodeiak egiteko eta argazkiak ateratzeko 2 Megapixelen argazki kamera, posta elektronikoa jasotzeko ahalmena... Estatu Batuetan otsailean egongo da eskuragarri. Europan berriz urte amaieran helduko da.



4GB eta 8GB, Lau-banda, GSM/EDGE, WiFi, Bluetooth, Yahoo mail eta Google Maps instalatuta dakar.

> INFORMATIKA

USB Warmer Mouse II: zirkulazio arazoak dituztenendako, saga berogailuarekin

Lagun asko daude zirkulazio arazoak dituztenak eta ordenagailu aurrean saguarekin lanean ibiltzerakoan, eskuak hoztuta geratzen zaizkienak. Berogailu lana egiten zuten lehenengo saga 2005eko urte amaieran merkaturatu zuten, baina USB Warmer Mouse II saga da egungo aukera onenetakoa. 17 euro inguru balio du. Horrez gainera, eskuak izerdi patsetan izaten dituztenek ere badute konponbidea: hozkailu lana egiten duen saga. Uda partean azalduko dizuegu hori.



USB Warmer Mouse II gauza da gainazala 45 gradura berotzeko. Etengailu bakarra baino ez du horretarako.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko **blog komertzialak**

www.goiena.net/blogak

- /aebpn
- /aiastui
- /aretxargi
- /argi-plastik
- /arregi
- /atai
- /azkarate
- /bastida
- /briz-aseguruak
- /BZ-sistemas
- /dragon-oriental
- /dukiena
- /ego
- /ekilore
- /ekin
- /elejalde
- /ezkutuorly
- /galgorri
- /gallastegi
- /ganesha
- /garaia

- /gertu
- /gorkataxi
- /gurea
- /gutzieder
- /hamaika
- /itxaseder
- /irudisport
- /jracing
- /joseba
- /korozaleta
- /markiegi

- /maulanda
- /mayte
- /merkeopari
- /multiopticas
- /ohiak
- /ogizun
- /okipark
- /otzeta
- /pando
- /richimaier
- /tabernaberri

- /udalaitz
- /urdeki
- /urbieta
- /vitoria
- /zainduz
- /ziripot

Eta baita ere:

- www.aizue.com
- www.lilura.com
- www.baster-aldejetetxea.com
- www.ehmff.com
- www.gelatzu.com
- www.haurtxoa.com
- www.klorofila.com
- www.landaluze.com
- www.uxarte.net



berriak

> GOITB

'Ilunpean' saioan, Aizpea Goenaga aktore eta zuzendaria

Oihana Elortza kazetariak Aizpea Goenaga aktore eta zuzendari donostiarrak elkarriketatuko du *Ilunpean* saioan gaur, hilak 12, 22:15ean. Lanez lepo dabil Goenaga. *Ama, quiero ser Lehendakari* antzezlanaren estreinatuko du datorren astean Elgoibarren. Bernardo Atxagaren obran oinarritutako *Zeru horiek* filma, berriz, Parisko Mediatekako lehiaketarako aukeratu dute.

> GOITB

'Ur eta Lur' saioa estreinatuko dute astelehenean GOITBn

Euskarazko Toki Telebisten Elkarteko (Tokiko) bazkide da Goiena Telebista. Hori dela eta, debagoiendarrak ohituta daude gure mugetatik kanpoko erreportajeak edo sukaldariak ikustera. Orain, nekazariarentzako saio batekin datoz: *Ur eta Lur*. Xaloe telebistak ekoiztutako saioa da eta Iñaki Alustiza kazetariak aurkezten du. Astelehenean, hilak 15, estreinatuko dute saioa, 17:47an.

>ARRASATE IRRATIA

Aldaketekin itzuli da uhinetara 'Igo autobusera' saioa

Agindu bezala, astelehenean uhineratu genuen FM 107.7ko autobusa. Indarberrituta eta aldaketekin hasi du, gainera, urtea. Berrikuntza batzuk albistegietan ditugu: batetik, gidaria orain Imanol Gallego da; bestetik, *Igo autobusera* saioaren barruan sartu dugu eguerdiko albistegia. Horretaz gain, geltoki berriak ere izango ditu uhinetako autobusak, Bezeroen Arreta Zerbitzua kasu.

> ARRASATE IRRATIA

'Asteko gainbegiratu' saio berezia asteburuan

Astean irradian izan denaren laburpena jasotzen du *Asteko gainbegiratu* saioak. Oraingoa berezia izango da, irrati-ko asteko elkarriketekin batera GOITBko *Berbaire* saioa ere entzuteko aukera izango duzue-eta.

Gorka Etxabe kazetariak gidatzen du mahai-inguru saio hori. Aste honetan, egungo egoera politikoa berbagai izan du ibarreko politikariek. Zapatuan eta domekan berreskuratuko dugu.


'DEBARRI' > EGUAZTENA, 21:15

Patxi Basauri elkarrizketa 'Debarri' saioan, eguaztenean

Alberto Gorritibereak Patxi Basauri Elgetako alkateari botako dizkio herritarrek egindako galderak

GOIENKARIA > ARRASATE

Hainbat aukera dituzue elgetarrok zuen alkateari galderak egiteko: alde batetik, www.goiena.net orrira sartu eta bertako eztabaidak aukera ematen dizue galdera egiteko. Eta nahiago baduzue telefonoz egin, 943 71 23 96 telefono zenbakira deitu dezakezue. Horrez gain, GOITBko kamerak Elgetan izango dira herritarren kezka jasotzen. Zuek egindako galdera guztiak egingo dizkio Alberto Gorritibereak Patxi Basauri Elgetako alkateari datorren eguaztenean, 21:15ean, *Debarri* saioan.



BASAURI Alkateari galderak egiteko aukera dute herritarrek.

GOIENKARIA

'DANBAKA' > ASTELEHENA, MARTITZENA ETA EGUENA, 21:45

Gaur bertan jakingo dugu Danbaka lehiaketa zein taldek irabazi duen

GOIENKARIA > ARRASATE

Elgetako Espaloia Kafe Antzokiko taula gainean izango ditugu gaur, hilak 12, Danbaka musika lehiaketako hiru talde finalistak: Aby-kem, Belceblues eta Malenkonia. Horrez gain, Kerobia taldea ere gonbidatu du

antolakuntzak. Hain zuzen, hiru sari banatuko dira: Danbaka lehiaketako irabazleari, bakarlari onenari eta ikusleak aukeratutako talde onenari.

Musika talde guztien kontzertuak eskainiko ditu Goiena Telebistak hurrengo bi asteetan.

Hasteko, astelehenean, hilak 15, finaleko une bitxiak jaso dituen saio berezia ikusi ahal izango dugu. Egubakoitzero lanean jardun dutenen lana gertutik erakutsiko digute; finalean hurbildutako aurpegi ezagunak ikusiko ditugu; sari banaketa... Martitzenean, berriz, hilak 16, talde irabazlearen kontzertuak eskainiko dizkigute. Eguenean, hilak 18, bakarlari onenaren saria jaso duenaren kontzertua ikusiko dugu. Danbaka saioarekin hitzordua GOITBn duzue, 21:45ean, astelehenean, martitzen eta eguenean.

telebegi

Edu Mendibil > www.goiena.net/blogak/edu

Denbora geldirik

Bukatu dira Gabonak eta horrekin batera, zorionez, amaitu da kolonia eta perfume zaparrada telebistan (horrenbeste iragarkiren artean zaila egiten da programa bat osorik jarraitzea), loteria eguneko albistegi aspergarriak (saritutako adierazpen txispauekin), telearatoki eta futbol partidu solidarioak, Bisbalen *aurreskua* eta Raphaelen aspaldiko keinuak, Ramon Garciaren kapa oraindik antzinakoagoa, ETBren kanpaihots izoztuak (hala ere, Urtezahar gaueko *Wazemank* saioa, bikaina), abenduaren 28ko grazziarik gabeko inozentadak edo TVEren errepaso nostalgikoa. Urteroko klasiko baten hutsunea nabari dut aurten: *¡Qué bello es vivir!* filmaren ohiko emanaldia. Domeka iluntzean bukatu ziren Gabonak niretako, Bischofshofenetik (nahikoa lan daukate esatariek izenekin batzuetan) eman zuten eski jauzi zoragarriekin.

Horrekin guztiarekin batera, zoritxarrez amaitu da ETAREN su-etena. Susmoa dut urte aldaketarekin batera, aurrera beharrean, denboran atzera salto egin dugula. Bueltatu gara lehengora, betiko martxara.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu. Inazio Lakuntza, Arrasateko alkatea; Jesus Mari Elkorro, Ibai-arte kidea; Amaia Diaz de Monasterioguren, dietista; Edurne Muxika, BAZeko arduraduna; GOITBko *Berbaire* saioa ...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera
Albistegiak
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Meteorologiaren geltoki (Pello Zabala)
Lorategiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 12

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Erreportaia. 16:15 Bizitegia. 16:45 Albistegia. 17:15 Sherlock Holmes. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Debarri-Antzuola. 18:45 Albistegia. 19:15 Danbaka berezia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Mandio. 22:15 Ilunpean-Aizpea Goenaga. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 13

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Nonochan, Sherlock Holmes eta Snorkeldarrak. 11:00 Ikusmira. 11:30 Jazmina. 12:00 Astekoak. 12:15 Bizitegia. 12:30 Erreportaia. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Debarri-Antzuola. 14:30 Danbaka. 15:00 Teknopolis. 15:30 Mandio. 16:00 Danbaka berezia. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasi berriak. 19:30 Klip@. 20:00 6mm. 20:30 Erreportajea. 21:00 Berbaire. 22:00 Astekoak. 22:15 Klip@. 22:30 Ilunpean-Aizpea Goenaga. 23:00 Danbako kontzertuak. 00:30 Emisio amaiera.

Domeka, 14

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes, Nonochan eta Snorkeldarrak. 11:00 Mandio. 11:30 Danbakako kontzertuak. 13:00 Bizitegia. 13:30 Berbaire. 14:30 Ilunpean-Aizpea Goenaga. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Jazzmina. 18:30 Mandio. 19:00 Hasi berriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Astekoak-Gatza ta berakata. 20:30 Erreportajea. 21:00 Debarri-Antzuola. 22:00 Berbaire. 23:00 Ilunpean. 23:30 Danbakako kontzertuak. 01:00 Emisio amaiera.

Astelehena, 15

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Mandio. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Klip@. 16:15 Bizitegia. 16:45 Albistegia. 17:15 Sherlock Holmes. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta Lur. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albistegia. 19:15 Danbaka berezia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka-Finala. 22:15 Telesaila. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportajea. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ikusmira. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 16

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Danbaka-Finala. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Erreportajea. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaila. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albistegia. 17:15 Nonochan. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Klip@. 18:30 Bizitegia. 18:45 Albistegia. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka. 22:15 6mm. 22:45 Berriak. 23:15 Mandio. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Harmailatik. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 17

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 6mm. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaila. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albistegia. 17:15 Sherlock Holmes. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmailatik. 18:15 Mandio. 18:45 Albistegia. 19:15 Danbaka. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 20:45 Berriak. 21:15 Debarri-Elgeta. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Debarri-Elgeta. 22:15 Telesaila. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ur eta Lur. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 18

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Debarri-Elgeta. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Danbaka. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albistegia. 17:15 Nonochan. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:15 6mm. 18:45 Albistegia. 19:15 Bizitegia-Klip@. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka. 22:15 Didjeridu. 22:45 Berriak. 23:15 Danbaka. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.



DANBAKA))))
DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA

FINALA!

**URTARRILAK
12**

Egubakoitza | 22:30
Elgetako Kafe Antzokia

ABY-KEM

BERGARA

BELCEBLUES

BERGARA

MALENKONIA

OÑATI

INFORMAZIO +
www.danbaka.com

TALDE GONBIDATUA

KEROBIA

LEHIAKETATIK KANPO

Prezioa: 4 euro / Gaztekutxa: 2 euro

Emanaldiaren amaieran emango dira ezagutzera
**Danbaka lehiaketako irabazlea, bakarlarari onena
eta publikoak aukeratutako talde irabazlea.**

**KAMISETAK
SALGAI!**



Urtarrilak 12-19

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Haurrendako antzerkia



ARRASATE

> 'Robin eta Hood' antzezlan bihar, zapatua, 17:00etan, Amaia antzokian

Robin Hood mendetan zehar oso estimatua izan den pertsonaia da, batik batik gaztetxoengandik. Bada, Gorakada antzerki taldeak oraindik ere bizirik dirauen pertsonaia dela erakutsiko du bihar, 17:00etan, Amaia antzokian.

Rock kontzertua



ARRASATE

> Gose eta Raul Lasa taldeen kontzertua bihar, zapatua, 3.60 aretoan

Arrasateko talde bat eta bakarlari bat hartuko ditu 3.60 aretoak bihar, zapatua. Alde batetik, Gose taldeak jardungo du eta bestetik, Raul Lasa Ugartondo bakarlariak. Emanaldia 23:00etan hasiko da.

Margolan erakusketa



OÑATI

> Epi Perez antzuolarrak erakusketa irekiko du kultura etxean

Astelehenetik otsailaren 4ra arte 45 margolan erakutsiko ditu Epi Perez artista antzuolarrak Oñatiko kultura etxean. Gehienak olioak badira ere, akuarela batzuk ere eskegiko ditu kultura etxeko hormetan.

testua eroan beharko du: *Aratusteak 2007, Bergara*. Hilaren 29a da lanak aurkezteko mugaeguna.

Argibideak: www.bergara.net.

ARRASATE

> Inauteriak iragartzeko kartel lehiaketa

Edonork har dezake parte. Kartelak 50x70 zentimetroko neurria izango du eta formatu bertikala. Teknika librea izango da, baina honako derrigorrezko testua izan beharko du: *2007 Aratusteak Arrasate*. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 24a da.

Argibideak: www.arrasate-mondragon.org.

ARRASATE

> Martxoaren 8a iragartzeko kartel lehiaketa

Udaleko Emakume Txokoa ak deitu du eta edonork har dezake parte. Aurtengo leloa da: *Zu beharrezkoa zara*.

Argibideak: www.arrasate-mondragon.org.

Antzerkia

ARRASATE

> Olatz Pagaldai ipuin kontalaria arituko da AEDn

Zahar Berrik ipuin kontaketa saioa antolatu du. Olatz Pagaldai bi saio egingo ditu.

Hilaren 18an, eguna, 10:00etan eta 18:00etan, AEDren egoitza.

ARETXABALETA

> Pirritx eta Porrotxerako sarrerak salgai daude

Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunek *Mari Motots* ikusizuna egingo dute urtarrilaren 27an. Sarrerak dagoeneko salgai daude.

Kultura etxean eta kirol etxean eros daitezke. Aurrez, 4 euro; leihatilan, 5.

Musika

BERGARA

> Bilboko Udal Musika Bandaren emanaldirako sarrerak salgai

Begarako Udal Musika Bandaren 175. urtemuga ospatzeko ekitaldien barruan egingo du emanaldia Bilboko Udal Musika Bandak. Hilaren 19an, egubakoitza, izango da emanaldia, 22:30ean. Sarrerak dagoeneko salgai daude.

Kultura etxean eta Lazkano oinetako denda eros daitezke 3 euroren truke.

ARRASATE

> Perter Pan Speedrock taldea 3.60 aretoan

Holandako taldeak Sarris Rock&Roll Trio taldearekin batera egingo du emanaldia.

Hilaren 19, egubakoitza, 23:00etan.

OÑATI

> Arpa emanaldia egingo du Cristina Sanchezek Oñatin

Hain zuzen, Aita Madinaren jaiotzaren 100. urtemugako ekitaldien barruan egingo du

kontzertua Cristina Sanchez arpa-jotzaileak.

Hilaren 28an izango da.

Erakusketak

BERGARA

> Bergarako Emakumeen elkartearen eskulanak

Begarako Emakumeen Kultura Elkarteak (BEKE) eskulan erakusketa jarri du ikusgai.

Gaur hasi eta hilaren 21era arte, Aroztegi aretoan.

ELGETA

> Unai Azkaratek margo erakusketa irekiko du Espaloian

Begarako margolari Unai Azkaratek erakusketa jarriko du Espaloia kafe antzokian. Azkaratek margoak eskegiko ditu antzokiko paretetan.

Bihar hasi eta otsailaren 4ra arte.

Hitzaldiak

ESKORIATZA

> Trukaro programaren aurkeztuko dute

Trukarok eta erretiratuen elkarteak Trukaro programa aurkeztuko dute herritarren aurrean.

Hilaren 18an, eguna, 18:00etan, kultura etxean.

Ospakizunak

BERGARA

> San Antonabat jaiak ospatuko dituzte San Anton auzoan

Eguaztenean, San Anton eguna, meza nagusia izango da San Anton ermitan, 11:00etan. Gero, salda, txorizoa eta ardoa banatuko dute. Ospakizunek 20an eta 21ean segituko dute.

Hilaren 17an, eguaztena, da San Anton

eguna.

BERGARA

> Gaztaina erre jana egingo dute Jardun euskara elkarteok

Jardun euskara elkarteak antolatuta, gaztaina erre jana egingo dute datorren barikuan. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Hilaren 19an, egubakoitza, 19:00etan, San Martin plazan.

Lehiaketak

BERGARA

> Inauteriak iragartzeko kartel lehiaketa

Herrian bizi edo erroldatutako edonork parte hartu ahal izango du. Diseinuen kartelak 40x60 zentimetroko kartoizko oinarri bertikalean aurkeztu beharko dira. Koloreak eta teknika libreak izango dira, baina derrigorrezko honako

PROPOSAMENA

DEBAGOIENA

> Jazz talde berrien II. lehiaketan izena emateko epea zabalik

Errabal zigiluak kalera berri ditu jazz talde berrien II. lehiaketan parte hartzeko baldintzak. Otsailaren 8ra arte dago zabalik izena emateko epea. Iaz egin bezala, lehiaketan parte hartzeko aukeratutako taldeek Elgetako Espaloian egingo dituzte emanaldiak, martxoan.

Hiru urte dira jazz gustuko duen lagun talde batek Errabal sortu zuela. Debajazz jaialdia ere eurek antolatzen dute

Argibideak: www.hotsak.com/Errabal/baseak.pdf



Bestelakoak

ARRASATE

> Portaloik dei egiten du txikiteoan abesteko

Tabernaz tabernan kantuan jarduteko dei egiten die Portaloik kultura elkarteak herritar guztiei.

Gaurko, egubakoitza, egin dute hitzordua, 19:00etan, Monte tabernan.

BERGARA

> Eski irteerak Pol-Pol mendizale taldearekin

Pol-Pol mendizale taldeak lau eski irteera antolatu ditu urtarrietatik apirilera bitarterako. Urtarrilaren 19an, 20an eta 21ean; otsailaren 23an, 24an eta 25ean; martxoaren 9an, 10ean eta 11n; eta apirilaren 6tik 14ra (Alpeetara) egingo dituzte irteerak.

Argibide gehiago 943 76 48 51 telefono zenbakian.

ESKORIATZA

> 'Lehoinabarraren aztarna' dokumentala ikusgai

Andoni Ormazabalak, dokumentalaren egileak, aurkeztuko du. Hain zuzen, haren anaia zenaren omenez egin du eta jasotzen ditu anaia Sobietar Batasuneko bost gailurrik altuenetara egindako igoerak.

Hilaren 16an, eguaztena, 19:00etan, kultura etxean.

ELGETA

> Ardo dastatzea egingo dute Espaloia kafe antzokian

Ardo dastatzera joan nahi duten herritarrei dei egiten diete.

Hilaren 18an, eguna, 20:00etan, Espaloia kafe antzokian.

nire aukera



Iñaki Igartua
Oñatiko Turismo Bulegoko teknikaria

Donostiara paseatzera

Aste bukaeran kirol apur bat egitea gustuko dut. Hortaz, goizean kiroldegira joaten naiz. Squashean, zintaren gainean korrika pixka bat egin eta muskulazio gelan jarduten dut. Hori bai, neurrian.

Horren ondoren, Donostian paseatzea gustatzen zait: Pasealeku Berrian eta Kontxan barrena, itsasoa ikusten paseatzea oso gustuko dut. Hori egin eta gero, oso aukera ona da Juantxo tabernara joatea ogitarteko ederra jatera. Eta jan eta gero aukera bat baino gehiago dago. Nik zinemara edo futbolera joatea gomendatuko nuke.

Zuk Donostia aukeratu duzu. Zenbatek aukeratzen du Oñati?

Gorakada handia egin du Oñatik turismoari dagokionez. Ikusteko asko dago, bai monumentu aldetik bai natura aldetik ere.

Debagoienara bisitan datorrenari zer ikustea gomendatuko zenioke?

Bergaran paseatzea. Herriko kaleetan paseatzeari xarma ikusten diot. Eta horrekin batera, Korta-zar tabernan pintxoak jateari ere bai.

Nora egingo zenuke bidaiari? Leku askotara. Bat aukeratzeko, bada Londres edo Bartzelona. Kulturalki oso aberatsak dira, eta baita oso kosmopolitak ere.

Gomendatu liburu bat. Atxagaren *Gizona bere bakardadean*.

Telebista saio bat? BBCKo eztabaidak. Gaiak modu orekatuan lantzen dituzte; Euskal Herriaz ari direnean, esaterako.

Zinema

ARAMAIO
KULTURA ETXEA

La panda del patio
Domeka: 17:00.

ESKORIATZA
IBARRAUNDI
MUSEOA

Maroons
Domeka: 17:30.

INKERNU TABERNA

La Haine
Eguaztena: 22:00

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA

Infiltrados
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Ratonpolis
Domeka: 17:00.

Gracias por fumar
Eguena: 20:30.

ELGETA
ESPALLOIA ANTZOKIA

Ice Age II
Domeka: 17:30.

Tiempo de valientes
Eguaztena: 21:30.

OÑATI
KULTURA ETXEA

Nomadak TX
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Cristobal Molon
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

Election
Eguena: 20:00.

BERGARARA
AGORROSIN

Kutsidazu bidea, Ixabel
Zapatua: 17:00, 19:00, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:00.

EIBAR
UNZAGA

Hollywoodland
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15

GASTEIZ
GURIDI

Babel
17:00, 19:45, 22:30.

Rocky Balboa
17:30, 20:00, 22:30.

Arthur y los Minimoys
17:00.

Candida
17:30, 20:00, 22:30.

Eragon
17:00.

El gran silencio
18:50, 22:00.

El ilusionista
17:30, 20:00, 22:30.

El truco final. El prestigio
17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Maria Antonieta
17:30, 20:00, 22:30.

Mujeres en el parque
17:30, 20:00, 22:30.

Perez gure sagutxo hori
17:30.

Hollywoodland
20:00, 22:30.

La caja de Kovak
17:30, 10:00, 22:30.

Derecho de familia
17:00, 19:45, 22:30.

La masai blanca
17:00, 19:45, 22:30.

Banderas de nuestros padres
17:00, 19:45, 22:30

ÁBACO-LAKUA
ZINEMAK

La caja Kovak
16:00, 18:15, 19:00, 20:30, 22:00, 23:00.

Un vecino con pocas luces
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

La sombra de nadie
16:00, 18:15, 22:30, 23:00.

Santa Claus 3
16:00, 18:15, 20:30.

Mentes en blanco
20:30, 23:00.

Eragon
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Arthur y los Minimoys
16:00, 18:15, 20:30.

Happy feet
16:00, 18:15, 20:30.

Deja Vú
23:00.

Ratonpolis
16:00, 18:15.

007-Casino Royale
20:15, 23:00.

Colegas en el bosque
16:00, 18:15, 20:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO
CINEPLEX-GORBEIA

El truco final
12:15, 17:00, 18:15, 19:30, 22:00, 00:30.

Rocky Balboa
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Eragon
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Arthur y los Minimoys
12:15, 16:00, 18:00.

Deja vú
20:00, 22:25, 00:45.

The Holiday
12:15, 17:15.

El regreso
19:45, 21:45, 23:45.

Peligro, menores sueltos
12:15, 16:05.

El ilusionista
18:05, 20:15, 22:30, 00:45.

Santa Claus 3
12:15, 16:30, 18:10.

Saw III
20:05, 22:10, 00:15.

El Ratoncito Perez
12:15, 16:30, 18:30.

Mentes en blanco
20:30, 22:30, 00:30.

Volver
12:15, 16:00.

Infiltrados
18:25, 21:30, 00:20.

Un vecino con pocas luces
12:15, 16:20, 18:20, 20:20.

El camino de los ingleses
22:20, 00:35.

Happy feet
12:15, 16:00, 18:15.

El laberinto del fauno
20:20, 22:35, 00:45.

Colegas en el bosque
12:15, 16:20, 18:20.

007-Casino Royale
18:45, 21:30, 00:15.

El perfume
19:00, 21:40, 00:20.

Ratonpolis
12:15, 16:20, 18:20.

Candida
20:05, 22:15, 00:25.

Natividad
12:15, 17:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO
BOULEVARD

El truco final
12:10, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

Rocky Balboa
12:15, 16:05, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Maria Antonieta
12:00, 17:00, 19:30, 22:05, 00:45.

Banderas de nuestros padres
12:00, 17:00, 19:40, 22:15, 01:00.

Babel
12:00, 16:30, 19:20, 22:10, 01:00.

La alianza del mal
12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

Perez, el ratoncito
12:05, 16:10, 18:10, 20:15.

Cándida
20:00, 22:15, 00:30.

Eragon
12:00, 16:00, 18:10, 20:00, 22:30, 00:45.

Arthur y los Minimoys
12:10, 16:05, 18:10, 20:20.

Happy feet
12:00, 17:00, 19:30.

The holiday
22:00, 00:30.

Deja vu
22:20, 01:00.

Ratonpolis
12:15, 17:00, 18:20, 20:05, 22:10, 00:30.

007-Casino Royale
12:00, 17:00.

El perfume
19:30, 22:15, 01:00.

El ilusionista
22:25, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.



Luces al atardecer ****

Zuzendaria: Aki Kaurismäki.
Aktoreak: Janne Hyytiäinen, Ilkka Koivula, Maria Järvenheli.
Finlandia, 2006.
78 min. 13 urtetik gorakoendako.

Urtearen bukaerarekin iritsi zen gure pantailatarara Aki Kaurismäki-ren *Luces al atardecer* lan ederra. Zuzendari finlandiarraren filmak oso bereziak, bitxiak eta originalak dira, berarekin egile hitza beldur gabe erabil daiteke: filmatzen duen istorioengatik, sortzen dituen pertsonaiengatik eta istorio horiei hurbiltzeko moduarengatik beste zuzendari guztietatik bereizten da eta ikustera ohituta ez gauden filmak eskaintzen dizkigu.

Kaurismäkiren pertsonaiak hitz gutxiak dira, isiluneak eta musika hitzak bezain garrantzitsuak dira, *Luces al atardecer*-en ez du bere filmetan ohi den baino gehiagotan egin arren—kamera askorik mugitzen, gertatzen dena askotan planotik kanpo garatzen da eta elipsiek istorioari nortasun berezia ematen diote. Istorioa oso sinplea da eta horretara hurbiltzeko modua oso garbia eta laburra. Ez du denbora galtzen gauzei edo pertsonaien jokaerei itxura errealista ematen, egoeren eta pertsonaien alde burugabea bultzatzen du. Eta agian, hor dago arrakastaren gakoa. Kontatzen zaizkigun istorioak nahiko dramatikoa izaten dira, pertsonaia nagusiak gizartearen eta bizitzaren babesetik kanpo aurkitzen dira; hori dela eta, sufriztea tokatzen zaie, baina bestalde, bizitzaren alde eroa eta barregarria ere azaltzen du. Ederki elkartzen ditu drama eta komedia, neurritasuna eta aldrebeskeria, desengainua eta tolesgabetasuna, oso film berezia, pertsonala eta maitagarria osatzeko.

Antonio Zabala

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Eragon **
AEB, 2006. Zuzendaria: Stefen Fangmeier. Aktoreak: Ed Speleers, Jeremy Irons, Sienna Guillory. 70 min. Akziozkoa, fantasiakoa. Eragon-ek harri urdin distiratsua aurkitzen du basoan, eta horrekin negurako jatekoak erostea pentsatzen du. Baina laster konturatuko da harria dragoi baten arrautza dela, eta magia eta botere betetako mundu baten sartzen da horrela.

Casino Royale ***
Erresuma Batua-AEB-Txekia, 2006. Zuzendaria: Martin Campbell. Aktoreak: Daniel Craig, Eva Green, Mads Mikkelsen. 144 min. Thrillerra, akziozkoa. James Bond espioiak 007 estatusa lortu ondorengo lehen misioa kontatzen da. Madagascarren, Mollaka izeneko terrorista zelatatu behar du, baina planak porrot egiten du.

La alianza del mal
AEB, 2006. Zuzendaria: Renny Harlin. Aktoreak: Steven Strait, Sebastian Stan, Laura Ramsey. 97 min. Beldurrezkoa.

Spenser akademiaren, inguruko boteresuen seme-alabek ikasten dute. Hango lau ikasle elkarri lotuta daude, jatorria sakratua eta botere bereziak dituztelako. Halako baten, eurak bezalako bosgarren gazte bat agertzen da.

Babel ****
AEB, 2006. Zuzendaria: Alejandro Gonzalez Iñarritu. Aktoreak: Brad Pitt, Cate Blanchett, Gael García Bernal, Elle Fanning, Koji Yakusho, Adriana Barraza, Rinko Kikuchi. 142 min. Drama. 13 urtetik gorakoendako. Estatu Batuetako bikote bat Marokon dagoela gertakari larri batek gertakizun katea ekarriko du. Gertakizun kate horrek lau kontinentetako familia banarengan eragingo du. Jatorri eta kultura oso ezberdinetakoak badira ere, laurak ondo beren aterako dute: familia da benetako kontsolamendua.

El ilusionista ***
AEB, 2006. Zuzendaria: Neil Burger. Aktoreak: Edward Norton, Jessica Biel, Paul Giamatti, Rufus Sewell, Eddie Marsan, Vincent Franklin.

110 min. Drama. 13 urtetik gorakoendako. Begi bistakoak ez du zertan egia izan. Egoera horretan errealtatea non bukatu eta fizikoa non hasten den bereizten saiatuko dira eskujiokari bat eta polizia bat.

Banderas de nuestros padres
AEB, 2006. Zuzendaria: Clint Eastwood. Aktoreak: Ryan Phillippe, Jesse Bradford, Adam Beach. 132 min. 18 urtetik gorakoendako. 1945 urteko otsaila. II. Mundu Gerra. Iwo Jimako bataila odoltsuan, sinbolo bihurtuko den argazki bat aterako dute: sei soldadu estatubatuar agertzen dira, Suribachi mendian, AEBetako banderari eusten. Clint Eastwoodek duuari buruzko beste film bat egin du, baina japoniarren ikuspegitik.

Maria Antonieta
AEB, 2006. Zuzendaria: Sofia Coppola. Aktoreak: Kirsten Dunst, Jason Schwartzman, Rip Torn, Judy Davis, Asia Argento. 123 min. Adin guztietarako. Maria Antonieta Frantziako erregina

bihurtuko da 14 urterekin, eta Luis XVI. arekin ezkontzera behartuko dute. Frantziako Iraultza iristen denean, gillotinan hiltzera zigortuko dituzte bai bera bai senarra ere.

El perfume ***
Alemania-Frantzia-Espainia, 2006. Zuzendaria: Tom Tykwer. Aktoreak: Dustin Hoffman, Ben Whishaw, Alan Rickman. 147 min. 18 urtetik gorakoendako. Paris, XVIII. mendea. Jean-Baptiste Grenouillek mundua usaimenaren bitartez ikusten du. Amestutako lurrina lortzeko ezagutzak izango ditu, gainera. Hainbat emakumezkoak dute lurrrin preziaz hori.

Happy feet **
AEB-Australia, 2006. Zuzendaria: George Miller. Marrakzi bizidunak. 98 min. Adin guztietarako. Pinguinoen herrialdean, Antartikan, kantu baten bitartez aurkitzen dute bikoteak pinguino oespezie bakoitzeko kideak. Baina Mumblek soso zaila du bikotea aurkitzea, ez baitaki kantatzen. Dantzari ordea, primeran daki.

ESTREINALDIA URTARRILAREN 12AN IMPRELIZA: CHRISTOPHER NOLAN
EL TRUCO FINAL
(EL PRESTIGIO)
ADI ZAUDE?
HUGH JACKMAN
CHRISTIAN BALE
MICHAEL CAINE
SCARLETT JOHANSSON
www.eltrucofinal-es.com

Irabaz ezazu Warner-ekin eta ABACOrekin bi pertsonarentzako Londresko ZIRKULU MAGIKORA bidaiak eksklusiboa.

Eros ezazu filmaren sarrera eta bidal egizguz zure datu pertsonalekin batera (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa) honako helbidera: Grupo Abaco, c/Juan de la Cierva, 12 Parque tecnologico, 46980 Paterna (Valencia). Ref.: TRUCO FINAL

Bidaiak eksklusibo hori irabazi eta munduko mago onenak ezagutzeko aukera izango duzue!



Txerria hiltzeko sasoia

ABERE-HILTZAILEA Osintxuko Olalde baserriko Iñaki Labaka da bailarako abere-hiltzaile bakarretakoa

TXARRIBODA Debagoieneko baserrietan ibiltzen da txerriak hiltzen, azarotik otsailera bitartean

UDALTZAINA Mutikotan ikasitako ofizioari uko egin ez dion arren, lanbidez udaltzaina da Iñaki Labaka

EDU MENDIBIL > BERGARA

Txerria hiltzeko sasoia izaten da azaroaren bukaeratik otsailera bitartean. Osintxuko Olalde baserriko Iñaki Labaka da bailarako abere-hiltzaile bakarretakoa. Mutikotan ikasi zuen ofizioa, Bergarako hiltegia: "Ikasketekin ez nengibilen oso fin eta 14 urtekin hasi nintzen Zurraderon zegoen hiltegia. Abere-hiltzaileak zera egin behar du: txahalak hil, odola atera, larrutu, tripak kendu eta kanalean garbi jarri. Okela gertatzen Nikolas Arzelusek erakutsi zidan, plazako azokan zuen harategian, eta poliki-poliki baserrietan laguntzen hasi nintzen".

TXARRIBODA GARAI

Begarako hiltegia itxi zutenean udaltzain lanetan hasi zen Labaka. 25 urte inguru darama. Hala ere, ez dio uko egin mutikotan ikasitako ofizioari. Harategietan eta baserrietan ibiltzen da. Esan bezala, txerria hiltzeko sasoia da oraingoa. Gaur, egubakoitza, Marulandara eta Oñatira joate-

koa zen Labaka eta bihar, zapa-tua, beste lau txerri akabatuko ditu Udalan, Bedoñan eta Oñatin: "Behin txerriari *gantxua* sartu eta gero, baserriko jendea gertu egoten da txerriari odola ateratzeko. Ondoren garoarekin erretzen da eta jarraian garbitu eta tripak atera. Normalean hozteko eta gatza ondo har dezan hurrengo egunera arte lagatzen da, *urki-llatik* zintzilik. Txorizotarako denean -eta, momentuan zatitzen dugu. Baserrian txerria hiltzen denean badago usadio zahar bat: gibela atera ondoren baserriko emakumeak gibela hori gertatzen du lana bukatzerako. Era berean, txerriaren hiru zati albaitariarengana bidaltzen dira, azter ditzan: errai zati bat, saihets bitartea eta mingain ondoko beste zatitxo bat".

Esan bezala, harategietan ere ibiltzen da Iñaki Labaka. Gustuko lana duela diosku: "Txerri eta okela asuntorekin gozatu egiten dut. Okela jatekoa ere banaiz: ipurtxuntzur-xerra, urdaia eta solomoa bereziki".



ABERE-HILTZAILEA Harategietan eta baserrietan ibiltzen da Labaka, abereak hiltzen eta okela gertatzen.

E.M.

ahobero

"Gutxi gara benetan futbolaz dakigunak: Gorka Etxeberria, Mikel Etxarri... Orain nire bizitzarekin zer egin behar dudan erabaki behar dut"

Javier De Pedro > Futbolaria

Realetik irten zenetik (inoiz jakingo dugu berarekin gertatutako egia osoa?) noraezean dabil De Pedro. Hobe luke futbolaz dakitenean eta lagun onen gomendioak jarraitu.

iturri onetik

Sagarpe elkarteak ez du oraingo lokalean jarraituko datorren urtean

Begarako Sagarpe gastronomia elkarteak ez du oraingo tokian jarraituko 2008an. Dagoeneko hasi dira Irala kalea berritzeko lanak; Gaspar jatetxearen ondoko garaia eta Sagarpe elkarte gastronomikoko parra bota dituzte.

Honekin lotuta, Sagarpeko lokalaren jabeek urtebeteko epea eman diete elkarte berridazkideei, 2007ko abendura arte. Lokala berreskuratzeko interesa dute jabeek.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Normaltasunik ez udaletan

A lde askotatik ikus daiteke Madrilgo atentatuaren eragina, mota askotako ondorioak izango baititu. Niri oso larria iruditzen zait bat: hurrengo udal hauteskundeetan ezingo da normaltasuna berreskuratu.

Udal zalea naiz, autogestioa maite dudana aldetik. Hurbileko aginte guztiak dira niretzat garrantzitsuenak eguneroko bizitzan, horiek behar lukete izan hiritarren zerbitzurako tresna eraginkor. Aldiz, udalak gogotik ari dira ordaintzen gatazkaren konponezina. Besteak beste, udaletan ez dago ordezkartuta alderdi bat eta, beraz, besteen emaitzak puztuta daude. Horrek giroa zatartzen du, eta udalen eginkizuna aldrebesten. Ur sakonagotan sartu barik...

Beste lau urte udaletan berdin jarraituko al dugu? Kalte galanta litzateke.


ai, ene!



Artelanak ama gogora ekarriko zion eta...

Argi dago eskultoreak asmatu egin zuela artelan horrekin. Mutiko hau, behintzat, eskulturaren miresle hutsa da.

<http://www.boingboing.net/>



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51